

Augustin Zubikarai

EURI ETA TXINGOR


GERRATEKO OROIMENAK

Sarrera:

Adolfo Arejita

Edizinoa:

Igone Etxebarria



SUTONDOAN SORTA

LABAYRU IKASTEGIA

BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA

Augustin Zubikarai (1904-2004)

Ondarroako idazle eta euskaltzale oparoa dogu guztiz. Gizarteko beste arlo batzuetan be ekintzailea izan da, baina literaturara etorrira, haren ekarpenak gerizpe luzea egingo dau geroagoan be.

Eguna euskerazko lehenengo egunkarian hasi zan kazetari gisa euskeraz idazten. Kazetaritzan geroago be jarraitu eban, baina beste era bateko lanetara be jo eban bere ibilaldi luzean. Sorkuntzan antzerkia, nobela, ipuina eta poesia landu zituan, emaitza oparoagaz. Osterantzekoetan, etnografia, lexikografia eta herri kulturako ondarea batzea izan eban ekarpen-iturri zabala.

Euri eta txingor izeneko honek gerra zibileko kontuak ditu gaitzat. Gazte-gazterik gerra bizi izatea suertau eta, orduko joan-etorrien barri emoten dau idazleak. Ez da alderdirik latzenetan sartzen; horregaitik, gure historiaren pasarte hori ezagutzeko irakurgai aberasgarria izan daiteke.

AUGUSTIN ZUBIKARAI

Euri eta txingor

Gerrateko oroimenak

Etxetik etxera,
bost urte gerrate eta ondorenetan
igarota.
1936-1941

AUGUSTIN ZUBIKARAI

Euri eta txingor
Gerrateko oroimenak

Sarrera: Adolfo Arejita
Edizinoa: Igone Etxebarria

LABAYRU IKASTEGIA
BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA
BILBAO
2014

AURKIBIDEA

Mendeurrenean Zubikarai bergogorutzen, <i>Adolfo Arejita</i>	11
Sarrerako	31
Egun larriak.....	33
Agur Ondarroako itsaso bazterra!	36
Erbestetarren lehorreratzea	39
Ez diplomatiko eta ez jantxakur	41
Barrero itsasbidean	44
Nahigabeak ahazteko agurra.....	46
Lehenengo zeregina.....	49
Etxekoen bila	52
Gerrateko ostatua.....	54
Bitarte sakona	57
Indar erakusketa.....	60
Afaria galdu.....	62
<i>Eguna</i>	64
Agindua barriztetan	68
Egun larri bat	71
Betiko txikikeriak.....	74
Barruko hondarrak	76
Erreportajeak egiten ikasten	80
Zirikalariak.....	82
Gerrateko arrautzak.....	86
Durangon hilobien barruan.....	90
Orduko gure egoera	93

© *Argitaraldi honena*: Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa
Aretxabaleta, 1-1.a
48010 BILBAO
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Azaleko irudia: Enrique Morente
Discinua: Ikeder, S. L.
Fotokonposizioa: Ikur, S. A.
Silutegia:

Lege Gordailua: BI-1742-2014
ISBN: 978-84-92599-51-6

Lan hau erreproduzitu, banatu, jendaurreratu edo eraldatzeko, titularren baimena behar da nahitaez, Legeak ezarritako salbuespen kasuetan izan ezik. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu behar baduzu, jarri harremanetan CEDROrekin (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Cernika	96
Nora zoaz amona, nora?	98
Gazteak jokatu eta zaharrak galdu	101
Hegazkinak!	105
Itsasoan.....	107
Garrikoa	109
Etsipenaren oinarriak.....	111
Gau baltzak	112
BILBO GALDU ONDOREN.....	116
Bideetako bihozkadak	116
Santoñarako bideetan	119
Santoñako bizar-kentzailea	122
Miereseke garrazkeriak	125
Escudo inguruan.....	128
Laredoko hondartzan.....	131
Zeinen mende gengoan?	134
Burua makur eta bihotza gori	137
Musika eta guzti.....	140
Trenbidean Bilbon.....	143
Dueroko Arandan.....	146
Ebroko Mirandan.....	149
PIKU ETA PALAZ.....	152
Oteizako deabruak	152
Oraindik Oteizan.....	155
Oteizari agur	158
Romanonesen lurraldeetan	161
Jantziz aldatutako frailea	164
Calatayudera bazoaz... ..	167
Tajuñako Cortesetan	170
Ereinotzak eta oroitzak	173
Oraindik Guadalajaran	175
Agoratik Donostiara	178

Gizon trukea	181
Euskal nortasuna Tarbesen	184
Etixerako asmotan... Gibraltarren	187
Ni baino handiagoak baziran	191

MENDEURRENEAN ZUBIKARAI BERGOGORATZEN

Augustin Zubikarai Bedialauneta (1914-2004) ondarroar idazlea zendu zala ehun urte eta hil zala hamar urte pasa, ia 90 urteko bizitza emonkorren ondoren.

Oker ez banago, Bilbo Herri Irratiko F.M.n euskerazko irratiaioak hasi (1973ko udagoiena) eta lasterrera ezagutu neban, edo genduan, euskerazko irratigintza hasibarrian genbiltzanok, Augustin Zubikarai idazle ondarroarra. Euskal idazle lez lehenagotik banekuan haren entzutea, apur bat behintzat. Antzerkigile lez genduan ezaguna, batez be *Egan* aldizkarian argitaratuak zitualako antzerkiren batzuk: *Seaska inguruan* (1957), *Jaunaren bideetan* (1959), *Itxasora* (1960 eta *Aingira kumak* (1969), eta *Euskera* aldizkarian (1964), *Iru alaba*. Baina idazle honen ezagupiderik zabalena eta hurbilena, Herri Gogoa argialetxeak Irakur Sail sortan liburu formatoan 1970. urtean atera zituan antzerki-lan biren bidez izan genduan: *Bizi garratza* eta *Mendu zaharrak*. Aldi haretan antzerki munduan murgilduago ebilzanentzat, zer esanik ez Ondarroa ingurukoentzat, Augustin, ezaguna ezeze, idazle eta antzerkilari handia zan, eta askoz lehenagotik; batez be 1961ean *Kresaletan* ize-neko antzezlana taularatu ebenetik, eta Ondarroaz ganera, hainbat lekutan antzeztu, besteak beste Donostiako Victoria Eugeniean eta Bilboko Arriagan.

Halanda guzti be, literaturagile autortza geroago etorri jakon. Karmelo Etxenagusiak bere lehenengo lorategian (1965)¹ ez eban Bizkaiko idazleen artean jaso. Luis Villasantek be ez eutsan ezelango aitamenik egin bere euskal literaturaren historian, ez lehenengo argitaraldian (1961), ez bigarren berrikusi eta gehituan (1979) be. Aldi haretako literatura ikertzaileen artean, Mikel Zarate izan zan *Bizkaiko euskal-idazleak* obra goiztarrean (1970) Zubikarairi lekua autortu eutsana antzerkigile eta poeta lez (262-265 or.). Eta harik hamar urte garrenera, Karmelo Etxenagusiak Labayru Ikastegiaren ardura-pean argitara eban *Euskal Idazleak Bizkaieraz* antologian (1980, 243-251 or.), antzerkigileaz batera, poeta alderdia be erakutsi euskun: *Lurrunean* antzezlanaren 10. atala eta *Bost kanpai* izeneko olerkia.

Artean ez genduan ezagutzen Augustin gerra aurreko idazlea. Citxi genkian *Eguna* egunkaria gudu aldi latzaren erdian, gudu-frontea egonkortu barritan, 1937ko urteagaz batera argitaratzen hasi zanean, Augustin izan zala horretako kazetari seinaladuetariko bat, eta hondino hogeta bi urte baino ez zituan mutil lerdinari idazkaritza-buru ardurea leporatu eutsiena. Zer genkian guk orduan, oraingo idazlea kazetari edo *izparkari* izan zanik, eta gerrateak iraun eban denpora ez luzea, kazetari jarduncan emon ebala, ardura hori izentau eutsielako goiko agintariek. Eta gero be, frankotarren preso egoalala, kazetari atxilotuen truke bidez askatasuna jadetsi ebala 1939an.

Kazetari-lana izan zan, azken baten, irrati-kazetaritza, Bilbo Herri Irratiko euskerazko irratsaioetan, kanpotik, bete ebana. Ondarroako barriak bialtzen euskuzan astero zintzo-zintzo gure goizeko irratsaioetarako. Alkarrizketak be sarri-sarri egiten geuntsazan honezaz edo harezaz, Bilbon bisitetan ginduzan bakotxean. Eta berak onduriko euskal efemerideen egutegia erabilten genduan egunean egunean, euskal pertsonai historikoren bat edo jazoera seinalagarriren bat, egun horretakoa, gogora ekarteko. Orduan horrelako material gitxi egoan gure artean, euskaldunon ikuspegitik gure historiako

¹ Bizkaiera arautura ekarri ditugu zita-aipuak.



Gizaburuaga, 1988.

gorabeherak gizarteratzeko. Asko leuntzen euskuen bidea gure ondarroar kronikalariaren azterketa, indusketa eta eguneratzeek.

Beragaz berba egiteko era ona izaten zan etorren bakotxean, eta berehala ohartu eitekean bat, buru argiko gizona zala, zuhurra eta zorrotza, berba laburrakaz izango bazan be. Nasai-tenplau itxurakoa zirudian kanpotik, baina urduria zan barrutik. Ez geldirik egotekoa, beti zeozertan baino, idazten edo ekinean. Nekez idatziko eukezan hainbat zehetasun kontau euskuzan gerrateaz be, agirian esateko gordinegiak izan arren, benetako egoera zein zan hobeto erakusten ebenak, eta hainbat mito desmitifikatzeko modukoak. Hurretik ezagutzen eban gerrako historia, eta eretxi kritikoz epaitzen zituan gauzak. Abertzale sutsua bai bazan, baina ez itsua. Etxekoen akatsak, hutsak eta pekatuak ezagutzen ondo ekian. Ikuspegi pribilegiatua euki eban gerratean kazetari ardura horregaz eta informazino iturri

ziurretarako atek zabalik. Atsegina ohi zan beragaz berbaz jardutea. Buru ona, akordu argia eukan lehenagoko pasadizuetarako, eta ez eban gogaitik egiten gauzok kontatzen. Duintasuna danaren gainerik ondo jagoten ekian gizona zan Augustin. Handik gerotxoagora bere alabetariko bi be ezagutu nituan Derioko Udako Euskal Ikastaroan, Beatriz eta Marije, biak aitaren ezpalekoak, argiak eta euskalzale handiak.

Ekimen handiko gizona ezagutu genduan zahartzaro betean be. Beti eukan liburu eginbarriren bat, artikuluren bat, zer edo ha beti nobedadea. Guk, orduko gazteok, miresmenez eta begikotasunez ikusten genduan Augustin.

Euskeraz landu zituan arlo eta literatura generoen inguruan osoko eretxi bat emotekotan, danerik jorratu ebala esan daiteke: poesia, antzerkia, ipuin-kontaera, eleberria, kronika-erreportaia, historia lokala (monografia), herri-jakintza edo etnografia, herri literatura, biografia, lexikografia..., eta itzulpena, bai literarioa, bai administratiboa, bai osterantzekoa. Honezaz guztiaz labur jardungo dogu.

Antzergilea

Antzerkia izan da Augustinek gehien eta aspaldiren landu dauen generoa, duda barik. Idazle honek, izakunez eta ibilbidez, hurragokotzat sentidu dau dialogoa, alkarrizketa, eta bizitzako eszenak begitandu eta sortzea, kontaera eta deskripzioa baino. Pertsonaien artean eta euron alkarrizketa giroan erosoago sentidu izan da narratibaren jarraikotasunean baino.

Antzerkigimen gazte-gazterik hasi zan. Berezko jasa, doaia eta sena, batetik; giroa be alde, bestetik. Gudu aurreko aldi horretan, antzerkia, bertsolaritza letxe, mezu aberkoia gizarteratzeko baliabide zuzena eta eraginkorra zan. Zubikaraik, hondino hogeta gitxi urte zituala, hiru antzezlan argitaratu zituan *Euzkadi* egunkarian: "Aberriagaz bizi" (1934, ume-antzerkia), "Illobearen indarra" (1935) eta "Itxas lapurrak" (1936). Estepan Urkiaga *Lauaxetaren* aupada edo

sakakadea ez zan, segurutik, urrun ibiliko ondarroarrari literatura hasikinotan bultz egiteko. Laukiko seme hau, politikan eta literaturan buru-belarri murgildurik egoan ordurako, bai abertzaletasunaren kausa defenditzen, bai euskal literatura barriztetako ahaleginetan, teatroa barru dala. *Euzkadi* egunkariko Euskal Orriaren arduradun zan aldetik, leku onean egoan idazle gazte euskaltzale eta abertzaleci laguntzeko; Augustinen kasua, hatan be.

Bizkaian eta Bilbon euskal antzerkia bultzatu gura zan, euske-rea gizarteratu eta abertzaletasuna sendotzeko, Donostian atzera-txuago *Antzerti* aldizkariaren inguruan egin izan zan antzera. Donostian berez askoz lehenagotik etorren euskal antzerkiaren giroa eta ibilbidea; berrogeta hamar bat urte lehenago, 1880 inguruan, eta Euskal Lore Jokoen goraldian, Marzelino Soroak ereindako haziari eskerrak. Toribio Alzaga eta honen belaunaldikoeck hartuko eben 1915 inguruan haren lekukoa, Euskal hizkuntza eta Deklamazio eskolea sortzeagaz indartu zana, eta hogeta hamarreko hamarkadan, Ariztimuño eta Lauaxetaren aldikadan, belaunaldi gazteago batek hartu eban txandea, 1932an *Antzerti* aldizkaria sortzeraino. Donostian ezagun bihurtzen dira hamarkada horretan Bitor Caritaonandia, Abelino Barriola eta beste hainbat. *Antzerti* aldizkariak lau urte eta erdi eskasean 54 zenbakiraino argitaratu zituan, hilean bat edo bi hilerik behin ale bikotxa. Hor erakutsiko dau burua antzerkigintzan Augustinen belaunaldiko idazle eta lagun hurreko batek; auzoko itsas herriko Eusebio Erkiagak. Ondarroarrak baino gerotxoago, halanda be: 1936ko urtarrilean, 49. zenbakian, "Antzerki jaiian izan naz" atal bakarreko lan laburra argitaratuko dau. Augustinen lanik, ostera, ez zan gerra aurrean aldizkari horretan argitaratu. *Euzkadi* egunkarira bialdu zituan bere hiru sorkuntzak, goian aitatu diranak. *Antzerti* aldizkaria, gerraoste luzearen ondoren Eusko Jaurlaritza atzera eregi eta ostetxoan, atzera berbiztu zan Kultura Sailaren eskutik. Han buru egoana, Antonio Maria Labaien antzerkigile eza-gunaren semea zan, Ramon Labaien. Aldizkariaren bigarren aldi honek bizi laburra izan baeban be (1982-1985), gerra aurrekoaren jarraikoa izateko borondateaz agertu zan, eta gerraurrekoaren zen-

baki ordena berari segidu eutsan: 55-83 zenbakiak atera ziran, eta euren artean Zubikarairen bat: "Mendi eta Itxaso", 1983ko urriko zenbakian, 62.ean, hatan be.

Gerra aurreko urteetan, dana dala, izan zan Bizkaian be, euskal antzerkiari bere loralditxo ecragin eutsan uri bat, eta bertako idazle bat: Robustiano Ortuzar abade idazlea eta *Oroigarriak* izenburupean 1925ean Gaubeka argitaldaria argitaratu eban antzezlan bilduma. Lanok aurreko hamarkadaren erdialdetik aurrera antzeztuak izan ziran Bermeoko urian. Arrantzale eta herri giroko gaiak, abertzaletasunaz zerikusi zuzenik ez ebanak, baina euskal antzerki herrikoia alde meritu handikoak.

Baina gorago zertzelatu dogunez, gerraosteko urte ilun debekatuetan ezagutu eban honen antzerkiak sorkuntzarik ugariena eta plazaratzerik oparoena, Augustinen heldutasunean. 1956-1964 bitarteko bederatzi urteak jotzen ditu Ana Urkizak gure idazlearen biografia "loraldi" garaitzat (2009, 95 or.). Loraldiak kasu honetan zerikusi estua dauka teatroa eszenaratze eta gizarteratzearekin, *Kre-saletan* lanagaz jazo zan lez. Entzuterik gehien antzezlan honek irabazi eban antzeztokietan, baina antzezlan gehiago be izan ziran areto baten jokatzeko zoria ezagutu ebanak. Azpeitiarrek antzeztu eban *Jaunaren bideetan* lana, esaterako.

Baina sortu eta idazteari joakonez, ia bizi guztian ekin deutso idazleak genero hau lantzen, eta sortu ahala aldian aldiko sariketeta-
ra aurkezten. Sariketa bidez lortzen zan, besteak beste, antzezlanok ezagun egin eta argitaratzea. 1960tik 1987ra bitartean eten barik dihardu antzerkiak idazten, urtean bat edo pare bateko erritmoaz. Hainbat antzezlan inprimategiratu barik dagoz, eta argitaratu izan diranak lantzean leku baten. *Egan* aldizkariaren bidez ezagutarazo ziran harean lan sarituen batzuk. Eta 1970ean Irakur Sail bilduman atera ziran *Bizi garratza* eta *Mendu zaharrak* izan ziran aldi baten irakurlego zabalago baten atea edegi eutsezanak. Obra bikote horri Xabier Letek idatzi eutsazan sarrera-hitzak ez dira alperrik galtzeko-
ak (1970, 9-15 or.). Zubikarairen antzezlan batzuen errepresentazio-
noen barri zehatzik ez eban eukiko, baina Leteren giroan eta aldian

"jendeak, publiko zabalak, Zubikarairen teatroa ez du ezagutzen, ikusi ez duelako" (12 or.) dirausku bete-betean. Eta aurrerago: "Zubikarairen izena, irabazi dituen hainbeste sari eta premiotatik ezagutzen dugu, baina bere lana ez dugu ikusi ahal izan" (13 or.). Eta aldi horretan halan zatekean neurri handi baten. Teatroa, irakurteko barik, errepresentatzeko generoa dala-ta, horren hutsunea ikusten dau, honenetan eta beste antzerkigile batzuenetan, jakina. Baina errazoi eta era ona izan zan hori, inprimategi bidez Zubikarai-
ren sona eguneratzeko. Orain, berrogetaka urteetara, taula gancan dastatzeko ez bada be, irakurteko era ona daukagu, *Euskerazaleak* alkarteak bere webgunean sareraturik eskini deuskun ezker, bai makinaz jota, bai inprimatuta dagozan Zubikarairen lanak, antzerki eta enparaduko.

Antzerkietako dialogoak esaldi eta berbaldi laburrez horniduta dagoz. Urtenaldi bizkorak eta erantzun azkarrak. Zirikaldi eta zirisartze ugariak. Itsas giroko gaiak darabilz behin eta barriro, *Arrain sunda* legezko izenburuek be akordura dakarskuenak.

Antzerki sorkuntza ugariaz gainera, antzerkiaren ecragile eta bultzatzaile lez egin eban ahalegina be aintzat hartzekoa da. Ondarroako Kultura Etxearen bidez zahartzaroan be ekin eutsan hondino antzezlan lehiaketak ecratzen eta argitaratzen. Lekuko dogu *Banaka... Biñaka...* Antzerki-lan errazen lehiaketa lan sarituen txortatxoa (1985).

Eleberrigintza

Zubikaraik aldi bi izan ditu bere nobelagintzan. Lehenengoa, apalagoa eta isilagoa, 60ko hamar-urtekoan dauena: *Garratz eta gordin*, 1963ko Donostiako Agora Saria irabazitakoa, baina luzaroe-
tan ilunetan geratuko zana, eta *Piñuetako madalenak* (1966), aurreko urtean Gipuzkoa saria jasotakoa.

Baina orohar esan daiteke, Zubikarai berandu baten sartu zala buruz behera nobelagintzan. Narratibari jagokonez, lehenengo aldi-
kada horretan, ipuinari eta narrazio laburrari oratu eutsen gehiago

eta sarriago, kontaera luzetan baino gehiago. Baldintzak estuagoak ziran sorkuntza luzeetarako aldi haretan. Argitaratzeko zailtasunak, besteak beste.

Eleberrigintzan sartu izanaren errazoiatariko bat, berariaz 80ko hamar urtekoan, horretan bizkaieraz hutsune galanta ekusalako izan daiteke, hutsune hori bete behararen premineak eraginda. Domingo Agirre eta J. M. Etxeitagaz Bizkaitik hartu baeban eleberririk hasierako bultzada nagusia mende hasiera haretan, mende hori larogei urtera ezker, erkin eta makal agiri zan Bizkai alde nobelagintzan bizibarritzeko. Bere belaunaldikoen artean, Eusebio Erkiaga zan ildo horretan urrats sendoak emon zituan bakarretarikoa, *Arranegi* (1958) eleberriaz lehenengo, eta *Batetik bestera* (1962) eta *Araibar zalduna*-gaz (1962) hari lasterrera. Bien bitartean, beste bizkaitar idazle gazteago bat, Mikel Zarate, lezamarra bete-betean sartu zan narratiba generoan: *Haurgintza minetan* (1973) eleberria batetik eta *Ipuin antzeko alegi mingotsak* (1975) bestetik ekarzala. Zubikararik be bere burua ez eban ezlekuan ikusi gura izan eta narratiba aldetik indarrean etorren uholdearen bortitza ikusirik, berak be hor oleatu horretan bateatu gura izan eban.

1978an, Leopoldo Zugaza argitaldari durangarraren eskutik *Bale denporak* argitaratzeagaz hasten dau Augustinek literatura-ibilbide barri hau, narratiba luzearena. Ezagutzen genduanontzat be harrigarri eta pozzgarri gertatu zan ondarroar idazlea arlo barrietan sarturik ikustea. Hurrengo urtean Txomin Agirre saria irabazi eban *Anton Guzurretxe* eleberriaz eta segiduan argitaratua izan zan. Ondoko urteetan Mundakan eratzen zan Jose Manuel Etxeita narratiba labur Sarira aurkeztu eta, sariak irabaziaz ganera, bere lanok argitaratu ahal izatea bermatu eban: *Lainoak Mundakan* (1980) cza-gunena, eta *Ira usaina* eta *Mon-daka* hurrengo biak.

Bizitzako urratsak (1981), *Itxastarrak* (1985) eta *Garratz eta gordin* (1986) datoz plazara bata bestearen hurrengo, azkenengo hau askoz lehenago idatzia izan arren; beraren eleberririk zaharrena, berez.

Estiloa dala-ta "Azorin" estiloa aitatu da. Nik esango neuke, antzerkian eta eleberrian darabilen idaztankera beretsua dala. Esaldiak

labur, aditzaren elipsiaz sarri, eta behar ez dan edergarririk gehitu barik. Mezua adierazoteko behar diran berbak ozta-ozta: eszena bat deskribatzeko, momentuko egoera bat zertzelatzeko behar dantxo, beste barik. *Zaldupeko txikiena* (1991) bere azkenengo eleberriaren hasiereak darakus ondo garbi dinogun hau, idazle honen joera eta tankera:

"Negu ateko goiza. Eguraldi iluna. Likin, laino eta busti. Kanposanturako bidean, apaindura barik, ordu ezegokian, arineketa baten, anda bat. Abadea, akolitoa eta lau herriko langilek, kale-garbitzaileak, eroandako kutxa. Hiru ume atzetik eta oihal baltzez goitik behera estalduriko andratxo igar eta makur bi. Gizonik ez, zerbizaririk ez.

Hiltegiara heldu ta berehala, kutxa lepotik eratsi ahala, hurrean egina egoan zuloan sartu eben. Han laga eta, lurrez estalduten hasi baino lehen, abadeak ezpan arteko otoi arin bat egin eban. Latinez. Umek, neska bi eta mutil bat, hirurak be hamabi urtetik beherakoak, ez eben negar handirik egin. Muxingak, inkesa bako negarrak. Andrazkoak ez eben oihalik jaso. Zabaldu be ez eben egin kutxarik, azken ikusi bat emon edo azken agurra egiteko" (5).

Kazetaritza

Kazetaritza generoak definitzen dau ondoen Zubikarairen idatz estiloa, osoan jota. *Euri eta Txingor* kronika-liburu honetan atal osoa deutso eskeimirik *Eguna* egunkariaren sorrerari. Manuel Ziarsolo *Abeletxe* zuzendari eta Augustin zuzendariorde. Kazetaritza bat-batekoa eta apur bat behartua izan zan 1937ko urtarrilaren batetik hasita urte erdi eskasean, bagil horretan Bilbo frankotarren mendean jausi arte garatu behar izan ebana. Lan presazkoa, arin-aringa egina, patxada gitxigaz egin beharrekoa zan berarena eta egunkari barrian lankide zituan Erkiaga, Arizmendiarrrieta eta beste lankideona. *Euzkadi* egunkarirako gaztelaniaz idazten zana itzuli edo egokitzea zan gehiago, sortzea baino.

Artean be *Ekin*, *Argia* eta beste aldizkari batzuetan kazeta estiloko idazlan laburrak argitaratua zan, lantzean ezizen bat erabilita, eta garai-ko idazle gitxien artean ezaguna zan, gaztetasuna gorabehera. Lauaxetak, aurreko urteetan *Euzkadi*-ra postaz bialdu zituan antzezlan eta bes-telako kronika laburretatik ezagutuko eban gure ondarroar kezkatia.

Zubikarairen idazle ibilbidean, kazetari sena, kazetari estiloa lanetariko askotan agiri dau. Baina agirien, egunkari-aldizkarietan barreiatu-rik dagozan bere zutabe, cretxi, efemeride eta askotariko gaien inguruko artikuluetan. Egunkari bitan agertu dira batez be Augustinen zutabeak: *Diario Vasco* Donostiakoan eta *Deia* Bilbokoan. *DI*-koak 1976-79 bitartekoak dira batez be; *Deia* egunkarian 80ko hamar urtekoan zehar idatziko dau askoz gehiago, lehenengo bost urteetan batez be; hurrengo bost urtekoan megatxago. Bilduma-liburu bitan atera ziran gerotxoago idazlanok urte bi jarraian: *333 oroipen eta ikuspegi* (1994) eta *Sits eta bits. Gure gaiak* (1995), horretara lan sakabanatuok croso irakurteko moduan.

Baina beste aldizkari askotara be bialdu zituan bere idatzi laburrak. *Karmel* aldizkarian luzaroko emaitza dauka idatzirik, 1959-1994 bitartekoa; beste bilduma-liburu bat osotzeko aina lan. *Zeruko Argia*, *Egan*, *Redención*, *Zer* eta *Euskerazaintza* boletina dira Augustinen lanen beste agertoki batzuk.

Edozertariko gaiak astintzen ditu kronika laburrotan idazleak, erara zein jatorkun. Arrantzaleen bizimoduaren ingurukoak asko dira; urte-egutegiaren egun seinaladuak (Gabonak), herri-kantu edo koplak ingurukoak; herri-ohiturak edo sinesteak; idazle edo liburu-ren baten gainekoa; euskal idazleak, euskal pertsonai ospetsuak, lehenagoko zein oraintsuagokoak; histori apunteak, herriak, herri-jaiak eta abar luze bat.

Idatzi laburrotariko hainbat idazlearen garaia, ingurunea, eza-gutu zituan pertsona ezagun asko, beraren cretxi eta usteak ezagutu edo jakiteko balio handikoak dira. Autobiografikoak be badira batzuk. Denporea igaro ahala eta aldian aldiko jazoeren gomuta ahuldu ahala, holako idatzien balioa gorantz joaten da. Halan gertatzen dala deritxat Augustinen kronika laburrokin be.

Gure cretxi apalean, Zubikarai idazlearen alderdirik benetakoe-na agiri da bere kronika, zutabe edo kazeta-lan laburrotan. Eta kaze-taritza genero honegaz zerikusi estua dabe, gaiaren eta estiloaren aldetik, sarrera honen jarraian aurkezten dogun *Txingor eta Euri* izenburupeko gudate gomuta diralakoek.

Ipuina eta kontaera laburra

Ipuin-idazten hirurogetaka urteetan hasi zan eta sariak be iraba-zi zituan eurerariko batzukaz. Umeentzako ipuinak edo bildumak dira hainbat, helduentzakoak beste batzuk.

1978an “Resurrección M^a Azkue” Saria irabazi eban *Esan eta esango* ipuin txortea da nagustuentzako narratze-bildumetan esan-guratsuen. Kontakizun laburrekin batera, badira luze batzuk be liburuari halako trinkotasuna autortzen deutesnak: *Kanalako ikara-gariak*, Juan de Irigoien-en *Los tremendos de Kanala* (1958) elebe-rrian oinarritua; *Peru Diru* itsas lapurrarena edo *Saliña maixua*, bertsoz eta herri koplaz apainduriko kontaera.

1985ean argitara emon eban Zubikaraik berak sortu edo idatzi-riko ederrentzat eukazan ipuinekin bere bizitzako bilduma, *Peru eta Mari gureak* izenburuaz. Batzuk ume-ipuinak, beste batzuk ez. Hain-bat lehiaketatar aurkeztu zituan bere ipuin-kontakizunak Augusti-nek eta sariak irabazi. Bilduma honetako ipuin-kontakizunak, sari-tuetarikoak dira asko; beste batzuk ez. Zaharrenak, 60ko hamar urtekoak, Donostian eta Ondarroan sarituak dira: “Gantzeruak izan dira!” (1962), “Gogorra gertatu da zuen errian” (1964) eta “Amon-atxo zaarrak eta ur-txakurrak” (1964) aitatu leitekez lehen aldika-dakoen artean. Bigarren aldian, 80ko hamar urtekoan, Bermeon eta Bilbon sarituriko lanak dira: “Bilbo eta jentillak” (1980), “Itsas lapu-rrak” (1982), “Izaro inguruan” (1982), “Zimarroi zarra” (1983) eta “Dorrondu” (1984), kasurako. Liburuari izena emon deutsan ipuina Ondarroako jaioterriari eskeinia da, “Peru eta Mari ondarroarrak”, bildumari izena emon deutsana, bestetik.

Historiako kronikak, mitologia, herri-ohiturak, bertso-koplak, errefrau-esaerak... danetarik batzen dau idazleak bere narrazioetara, halako herrikotasun sundea erantsi gurarik. Ez da zertan aitatu, beste generoetan lez, itsas herriak, itsas jentea eta itsas mundua dala ia kontaera guztiak girotzen dituen barrutia.

Ipuin generoa itzulpen bidez be landu dau idazleak. Ildo horri jarraituz cuskeratu zituan *Lugoko ipuin errikoiak* (1986), galegotik zuzenean, idazleak dirauskunez. Ipuin "herrikoi" izaera hori pedagogiaz eta umeei zuzendua izateagaz lotuta dago. Bestalde, liburu hau-xe da itzulpena obra literario baten zuzenean lantzen dauen bakarra. Bestelako itzulpenak, historiako eta administrazio testuekin lotuta dagoz gehienbat.

Barre ta irri (1988) izeneko Ondarroako Kultur Etxearen argitalpen baten argitaratu zituan, urte horretan saritutako lanen atze partean, Augustinek berak erredaktaturiko "Ogei ipuin", pasadizu edo antzeko kontu labur-laburrak, Ondarroan bertan jazotakoak edo lekukotuak, herri-pertsonaia batzuen inguruan. Diran laburrean, bikainak eta naturalak dira idatzi laburrok, geure ustez, Augustinen ipuinen antologian sartu beharrekoak.

Monografiak

Zubikarai monografiak cuskeraz idazten eginiko ahalegina ez zan izan txantxetakoak. Kazetari lana, sakonean. Bere izateari berez joakona. Artibai ibarreko herriak, batetik: *Ondarroa baserri giroan* (1985) ea *Ondarroa, kondaira 1900 arte* (1993), *Berriatua, Etxebarria, Markina-Xemein I eta II*. Lea ibarrekoak, bestetik: *Munitibar: Arbatzegi-Gerrikaitz, Amoroto eta Gizaburuaga, Ipazter, Mendexa, Aulesti*. Monografiarik goiztiarrena, gaztelaniaz, *Motrico* dalakoa (1969), hain zuzen be idazleak, ezkondu ezker eta zaharsaridun egin arte berrogei bat urtez lan egin izan eban herriarena, auzo-herria, bestalde. Lea ibarraz sartalderago, *Ea. Natxitua-Bedarona*, bere emaztearen herria, hatan be. Erreportai-egile baten tankeran

onduak dira. Deskribatze geografikoa, biztanleak, historia alderdi adierazgarrienak, bertako pertsonai historikoak, arkitektura balioko ondarea, etnografia ondareko lanabes eta osagarriak... Auzoei eta baserri-etxeei jarten deutse arreta berezia, argazki benetan egokiakin hornidurik.

Kronikari gisa labur emoten ditu albisteak, baina argazkien hornidura ugariak eta argibide-ohar interesgarriakaz aberasten ditu bere herri-monografiok. Herrikoentzako ezeze, kanpoko bidaiarientzako gidaliburu betea eskintzen deusku monografia bakotxean.

Literatura eta herri literatura aztertzaile

Literatura sorkuntza osoari dario herri-literatura eta herri-jakintza osagarria, edozein genero lantzen dauela be. Herri-literatura gaiak barrutik maite zituan eta, zuzen ez bada zeharka, sorkuntzalanetan hor-hemen tartekatzen ditu idazleak, behin pertsonai baten ahotan, behin kontaeran bertan edo erara jatorkon lekuan.

Adibide bat. Manuel Lekuonak *Literatura Oral Euskérica* (1935) obran jasorik dakarren *Ana Juanixe* baladaren bertsino luzea, zeinen ituri garbirik ez dakigun, Ondarroan batua dalakoa, behinola Augustin Zubikarai autortu euskunez, berak bialdu ei eutsan Don Manueli Gasteizko Seminaria, honek han zuzentzen eban herri-literatura mintegira. Nori jaso dan balada hori esaten ez euskun jakin, ostera, Augustinek. Ondarroan baturikotzat agiri da beti. Eta itsasertz horretan jaso dan zalantzarik ez dogu zertan euki, ze ezagutzen diran gainerako bertsinoak be kostaldekoak dira, Bermeokoak, besteak beste.

Euskal antzerkiaz edo antzerki generoaz idatziak dituan monografia edo artikuluak ez dira banan-banan zertan aitatu, baina luze samarra dan bat bai: *Euskal antzerkia Bizkaian* izenpean ondu eta argitaratu eban 1991an, *Antzerki* sailean (Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila), berak emondako berbaldi bat oinarri hartuta.

Herri literatura genero txikien baliatzaile dogu gehiago Zubikarai, curon aztertzaile baino. Beti be hurrekoa, Ondarroa aldekoa, behinago eta ugariago dala.

Batzuetan iterantzun finkatuak dira dialogoan darabilzanak: “-Zera, ertzeta. -Zeuen amari begiratu kortzeta” (*Esan*, 9 or.).

Mitologi giroko pertsonaiak sarri ditu aipu. Halan Ondarroan hain bertako diran diran *Kortzeleko mamu* bildurgarriak, *Marixe* eta *Leokadi*, batez be ume ipuinetan.

Etnografiaren ertzean

Herri jakintza arloko lan adierazgarritzat aitatu daiteke *Boga ta zixe* (1976), *Kardala* bildumatxoa lez, idazleak bere kabuz argitaratua. Biak urte berean. Autoedizinoa izan da Augustinen belaunaldiko idazle askoren ezaugarria. Idaztea nekea bazan, argitaratzailea bilatzea zan hurrengo behaztopoa, eta lanak zenbat eta tokikoagoak izan, areago. Meritu hori ezin jako gure idazleari be ukatu.

Boga ta zixe (1976) bilduma da, azpitolulutzat *Ondarroarkeriak / Temas de Ondarroa* dauen halako sasi-naski antzekoa, zinetan gai historikoakaz batera, ondarroarren berba berezi, figuratibo mordoa, errefrau eta esaerak bildurik dakarzan. Etnografia balioko alderdi interesgarriak be jorratzen ditu: ume-jokoak, Gabon eta Erregen ohiturak, eta ondarroarren bertso sorta batzuk.

Narrazioetan zehar txertaturik hainbat etnografia gai dira. Berbarako, ume-jolasak. Honako zerrendea garantzen deusku obretariko baten, mutikoen jolasen izenak emonaz: *asto-astoka*, *itsu-itsuka*, *auzkaka*, *bilin-bolonka*, *ikusi-makusika*, *don-don kandelka*, *eutsi artoka*, *kurikan*, *huts ala beteka* (*Laiño* 7 or.).

Herri-berba eta esaera biltzaile

Lexikografo lana, beste esparru batzuetan lez, itsas eremura zuzentzen dau: arrantza eta itsasketagaz zerikusia dauen guztira, berariaz.

Bere ekarriagaz erakutsi gura eban, Azkue lekeitiarraren hiztegi erraldoiaz, *Diccionario Vasco-Español-Frances* (1905) dalakoaz ez zala amaitu, ez agortu herri-hizkerako berba-batze lana. Ezta haren

ostean etorri ziranakaz be. Augustinentzat, bere belaunaldiko beste askorentzat legetxe, Azkue zan euskal hiztegegintzaren ardatz nagusia, Lino Akesolorentzat *Diccionario Retana de Autoridades en Euskera* (1976-1989) egiteari ekin cutsanean izan zan legetxe. Azkueren hiztegia erreferentzia gisa hartuta, han agiri ez ziranak edo hutsunea susmatzen ebana hornitzen ahalegindu zan, Ondarroako erreperorioaz osotuz; han agiri ez ziran berbak edo adierak baturik: 17 orrialdetan 200 berba inguruko zerrendea atondu eban eta “Azkueri jarraitzen” izenburupean *Euskera* aldizkarian argitaratu (26. znb., 1981, 221-238 or.).

Lehenengo zerrenda horretan oinarrituz, hasikin hori hornitzen eta ugaritzen ekin cutsan ondoko urteetan, eta harik zortzi bat urtera, Ondarroako hizkeraren eduki osotuagoaz liburutxo luzenga bat atera eban, aurreko: *Itxas-aize. Esaldi eta iztegi antzerakoa* (Bilbao, 1989). Izenburuan bertan agiri dauenez, semantika-esparrua hemen be itsas eta arrantza girokoa da. Gai eremu horren barruan kategoria eta genero diferenteetako edukiak dagoz barruturik: hitzak, hitz-segidak, esamoduak, errefrauk, errezitaduak, ume-kantak eta apur bat danetarik. “Hemen agertzen diran esaera, hitz-joko, hitz-egitura, pentsakera eta abar, gaur itsas herrietan bizi doguzan azalpen batzuk baino ez dira” (6 or.). Metodologiaren aldetik bildumak dituen ahultasumak apalkiro autortzen ditu: “Ez naz gramatikari” arrazoitzat emonez. Baina etnografia aldetik eta hitz-esaeren esangura, argibide eta kontestualizazioaren aldetik balio handiko materiala da; ez hazur hutsa, ez hitz zerrenda soila, maminez ondo hornidua baino. Horretan Andoni Basterretxea abade eta etnografoaren laguntza izan dauela be autor dau. Bide batez esan daigun, ikertzaile zehatza eta zorrotza genduala bigarren hau, Bizkaiko Etniker taldeko kolaboratzailea, bestetik.

Hitz-bilduma bietan meritugarri da esangurak argi eta zehatz azaltzeko modua; euskeraz eta gaztelaniaz lehenengoan; euskeraz bigarrenean. Halanda be, kontestu-adibideen hutsunea edo gabezia igarten da.

Baina aurreko bilduma biez ostean, aparte neurtu beharrekoa da, Zubikarai idazleak literatura bidez euskal lexikografiari eta hiz-

kera idatziari egin deutsan ekarri oparoa. Beti esan ohi da, erraz, esaldi laburrez eta irudimen bizkorrez idazten dakiala. Baina erraz idazte horrek ez deutso galerazoten, Ondarroa eta itsasalde zabaleko hainbat eta hainbat erregistro sartzen egin dauen ahalegina: hitz, esapide, berba-joko, ateraldi eta osterantzeko literaturan josi eta mendatu ditu bere testu literarioetan. Dialogoak, antzerkietan ezeze, narratiban be hartzen dauen pisuagaitik, hiztumen ahotan bizi-bizi txertaturik datoz sarri hizkuntz erregistro bitxiok. Adibide gisa, bere azken eleberrian, *Zaldupeko txikiena*, gitxi arakatuta agiri diran batzuk: *Bakoitzak bere sartainari emoten dautsa sua* (51 or.), *Prakan prakan ez dago gizona* (52 or.), *Eta ez inori errurik ezarri* (54 or.), *Eta nik urtearen azkena: san Txilibristo, besigu ezpanetik dindilizka* (54). Lokuzino ugari jo leitekez idatzietan barrena: Ondarroan hain bertakoa dan *bere/euren bostean* (*Esan*, 39, 44 or.). Zubikarairen berbategia erraza eta ulergarria da ia osoan, baina badaki hitz bitxi samarrak tarteka sartzen be, Erkiagaren ugaritasunera inondik be ailegau barik, jakina. Ez da hori idazle honen helburua, inondik be. Halanda be, badira bat edo batzuk. Adibidez: *mendiaren abaroan* (*Esan*, 41 or.). Berbategi corpusean, Ondarroa eta itsas herrietakoe-tara dau jokera nagusia, bestelako kontuetan legetxe. Ezizen edo goitzenak be behin baino sarriago ditu berbakizun, Domingo Agirrek *Kresala*-n egiten dauen antzera. Argibide bikainak damaiguz *Peru Diru* ipuinean, esaterako (*Esan*, 47-48 or.).

Orohar, alkarrizketetako berbaldi guztietan darabilen berbakera natural hori berebiziko lekukotasuna dogu, aldi bateko belaumaldia-ren hizkuntza estiloarena. Berbeta modu ziurra eta berezkoa darie Augustinen pertsonaici. Hor ez dago erdal kutsuko esaldirik; euskaldun bati berez-berez urteten deutesnak baino.

Lexikografia lanetara bihurturik, Zubikarairen lanak badau, halanda be, autortu beharreko hutsune bat, metodologiaren aldetik garrantzia daukana: iturririk nekez argitzen deusku. Ezinbestean biltzailea bera jo behar da iturritzat.

Poesia

Poesia, olerkia da Zubikarairen sorkuntzaren beste alderdi bat, aparte aitatzekoa. *Oleri* aldizkarian eta bestetan sakabanaturik dago bere emaitza. Sariketa batzuetan be parte hartu eban eta saridun gertatu. Halan Zangozako Lore Jokoetan, 1967 eta 1968an; Zornotza-koetan eta Laukizkoetan, be bai. Augustinen poesia lana bildumaliburu baten eske dago.

Txingor eta euri

Memoriak, oroimenak edo gomutak dira *Txingor eta euri* izenpeko eguneroko antzeko honetan kontetan diranak. Gerrate denporakoak eta ostekoak. Augustinen gudate oroimenok idazketa bi eta izenburu bi ezagutu ditue. Azkenengo idazketa idazleak berak argitarara emon eban *Makillen egunak* izenburuaz (1983). Lehenengo idazketa dalakoa daukagu, titulu eta guzti, hemen argitaratzen doguna, idazlearen jaiotzaren ehun urte garrenean beraren omengarri. Jatorrizko testuaren kopia bat, makinaz idatzia, Labayru Ikastegia-ren Derioko Euskal Bibliotekan datza. Kopia hori erabili dogu oinarritzat, eta familiaren baimenaz gaurko bizkaiera arautura ekaririk, argitaratzeko atondu.

Augustinen izaera, patxada, sentierak bere-berezko naturaltasunaz islatzen dira hor. Idazlea eta gizona bat dira liburu honetan. Gauzak kontatzeko modua be berez dariona da, tolestura bakoa. Berau irakurtea da idazleari egin leion gorazarrerik zintzoena.

Sarrera honetan aitaturiko bibliografia apurra

Etxenagusia, Karmelo (1965), *Euskal-idazleen Lorategia. Antologia de prosistas vizcainos*, Serminario de Derio.

Etxenagusia, Karmelo; Kortazar, Jon; Etxebarria, Aitor (1980), *Euskal Idazleak Bizkaieraz. Antologia, testu azterketak, ariketak*. Labayru Ikastegia, Bilbo.

Euskerazaleak webgunea, idazleak, Zubikarai:

<http://www.euskerazaleak.biz>

Lete, Xabier (1970), "Sarrera", in "Bizi garratza", "Mendu zahar-
rak", Irakur Sail, Donostia.

Urkiza, Ana (2009), *Augustin Zubikarai*, Elkar, Donostia.

Villasante, Luis (1961), *Historia de la literatura vasca*, Sendoa, Bil-
bao. 2gn argitaraldi, berrikusi eta gehitua: Editorial Aranzazu,
1979.

Idazlearen beraren lan aipatu batzuen laburdurak

Esan: Esan eta esango (1979).

Laiño: Laiñoak Mundakan (1979).

Adolfo Arejita

2014. zemendiak 3

EURI ETA TXINGOR

GERRATEKO OROIMENAK

SARRERAKO

Silvio Pellicoren liburu batekin oroituta, *nire gilzpekoak* idazten hasi nintzan. Probetxu gabeko lan neketsu eta baldarretan genbilzan, orduan, euskaldunok, Gaztelako lur zokil eta egarritsuetan. Geroago, ez dakit zein kartzelatan, galdu egin neban erdi ezkutuan erabilten neban koadernutxua.

Ikusi ahala giro-giroan hartuak ziran nire oroipenak. Bizi ahala idatzi eta gordeak. Ia-ia egumeroko zertzeladak. Garratz, gordin, bihurri eta sinisteko gatak batzuetan. Txiki, huts, arin eta azaleko besteeetan. Beti be bihozkadak. Nire izateari eta nire gogoari zotin eragiten ekienak.

Gaur beharbada, hotz-hotzean, beste egoera baten, huskeria iruditu arren, bere egun eta bere giroan, batez be gure egoera berezian, ohargarrien bat cuki ebenak.

Mina eta negarra sarri erabili ditut nire bideetan. Egiaz eta pozik esan nei, eta niretzako kontzientziaren bakea da hori, gorrotorik ez nebala haizetu eta sutu nigan; bat-bateko irakin eta haserreen bras-tada eta berotasun ez nebala nigan ezagutu eta igarri esango banau, horretan guzurra esango neukenik be ezin ukatu.

Konformista agertzea zala hori, esan eusten inoiz. Nik bakarrik dakit non hasi eta non amaitzen dan nigan izaera edo egoera hori.

Nire egumeroko ha gogoratzean, ezin jokatu lehengo antzera. Beste bide batetik ekingo dot. Halaz eta be, egumeroko hori zelan hasten zan badakit.

1936 urteko udabarriari azken emoten, honelaxe sartzen nintzan nire esanetara:

Ohi ez lako zikin

etozan urak

erreketatik.

Gure zirimirik

dana lagaten dau

basa eta likin.

Basa eta likin, larri eta zikin, danontzat igaro zan udabarri ha gordin eta arin.

EGUN LARRIAK

1936 urteko udaldia zan. Udazkenaren sarreran.

Nire jaioterrian bizi nintzan, ikusi orduko maitatzen ikasi neban Ondarroan, itsas urdin eta hondar gorri, kresal arnas eta atun gose, uda bero, batez be uda larri.

Egunak aurrera eta gero eta larriago. Gerra mina gero eta kexati, odoltsu eta zabalago.

Entzuten ziran jazoerek, tatarrezka etozanen estutasunek, familia askoren etxe eta herri aldaketek, bateko eta besteko heriotza eta erailte eta gertaera odoltsu eta negargarrien soinu eta hotsek... giro larri eta likina ekarri, erakutsi eta zabaltzen eben.

Egumen baten akatsez, irailaren 20 zala eta nago, gaurko kon-tuetan esateko nagoana. Egun bero eta errea izango zan segurutik. Gure etxean, bero egunetan ezik, sukaldean afaltzen zalako. Eta egun horretan Artibai ibaiaren hegaleria begira egoan etxeko jantokian gengoan. Danok. Aita, ama eta zortzi neba-arreba.

Gaueko hamarrak inguru. Atean deika. Neuk urten neban, hain zuzen, deiari crantzutera. Adiskide bat. Nigaz kezkatu eta arduraz ebilen adiskide on bat. Egunetako gorabeherekin larrituta igarten neban bat. Ikusi orduko esan eustan:

-Iges egitea komeni dala esaten nator.

-Nora?

-Egun batzuetarako, ahal dan tokira. Gero ikusiko da hobeto, baina oraingoz egokien danera.

-Nora baina? Nik ez dot ezer pentsau.

–Tatarrez dator jentea, ikusten dozu, negargarri da hau. Inork ez daki zer gertatuko dan, zer jazoko dan. Ahal dan eran, itsumustuan, jenteak urten eta iges egiten dau herrietatik, auzoetatik, baserrietatik.

–Urtenda be zer?

–Gelditzen diranen barri eta kontuak ez dira argiak. Era honetan...

–Oraindik egun batzuetan zerbait ikusi nahi litzateke.

–Gerrako ondoren eta urratsak gure herrira hurreratu ahala, zuzendu ez da egingo, okertu baino egoera hau.

–Ez dakigu hemendik igaroko diran be. Beharbada itsasertzetik orde, barrutik errazago joango dira Bilbo aldera.

–Billora joateko bide guztiak hartu nahi izango ditue.

–Ni oraindik zerbait pentsetako nago...

Egia da. Hoge bat urte neukazan eta ez neban okerrik pentsetan. Herrietan bizi garenon birtutea izan lei hori, akats askoren orde. Askotan atzeratu agertzen gara lehenengo orduko gorabeherekin, eta gehienetan uriburuen bideetatik jokatzen dogu.

Adiskidea kexu egoan.

–Ez da egun askorako izango, baina komeniko da lehenengo egunetako itsukerietatik urruntzea edo ezkutatzea behintzat. Gauzak baretsuago ikusi arte, behinik behin.

Alkarri begira geratu ginan. Berak jarraitu eban, bidea argituz:

–Gaur, gauerd inguruan, jentea lotaritzen danean, gure osabaren itsasontzia, bapora, Baiona alderako asmotan urtengo da. Zuretzat tokia badagoala esatera bialdu nabe. Horretara etorri naz. Etxekoak eta adiskide batzuk joango gara eta egun batzuk barru ikusiko dogu hemengo gorabehera hau zertan gelditzen dan, danek dinoenez hau laster garbituko dalako. Etorriko zara, ez?

Barrutik, zein ete zan igarrita edo, deiezka euki genduzan, barrura sartzeko-ta. Sartu ginan. Agertu genduan gure lehengo jarduna gurasoen aurrean. Eretxia eskatu, baimena edo abegi ona arduratu.

Aitak..., barruko arrada ito ondoren, zeuk ikusi, zuek ikusi, esan eban nekez eta mintsu. Amak bestelako erreparoak ipini zituan. Amenak. Jantziak gertuteko, dirurik eza, non eta zelan biziko eta abar. Baina egunetako gorabehera izango zala-ta... halan nahi bagenduan urtetekotan geratu ginan.

Adiskidea honetan joan zan. Gure mahaikoa bertan behera amaitu zan. Batzuk minez, hitzik egiteko adore barik. Malko lodi eta garratzetan besteak. Gure etxean gerraren txirristada zuzena, nigan-dik sartu zan.

AGUR ONDARROAKO ITSASO BAZTERRA!

Gaueko hamabi eta erdiak inguruan, barra txikiko muturrean, txikot mehe eta soil baten mende, han egoan gure ontzia.

Moilatik zehar ginoiazala, igarri genduan ibaian beheara, batel txiki bat, tostarteko lodikote batek erramutan eroiala. Inori begitazinorik ez eragitearren, gu esku-hutsik ginoiazan, baina batel haretan, edozein marinelen jantzi eta jakiak baziran lez, gure jantzi-fardelak eroiazan.

Gu, bana-banaka, moila puntara hurreratzen ginan eta heldu ahala barrura arin sartu eta ezkutatzeko agintzen euskuen. Inguruan ebilen karabineru bakarrak, zerbait esanda egoalako, edo ezer ikusi nahi ez ebalako, ez eban guban arretarik hartu. Izan be, ez zan lehe-na gure lakoen iges egitea inguru honeetatik.

Gero nasaituko ginala-ta, lehenengotan tostapean ahal zan tokian gure buruak sartzen ahalegindu ginan, barrero inork hori esan orduko.

Zirika ibiltzen ginan non zer ikusiko. Banaka batzuk igarten ziran ilunean, portu ondoko bidean, eta guk, holakoetan sarri gertatu ohi dan lez, gure ibilerak zaintzen ziharduela pentsau be bai.

Dana dala, ez genduan denpora asko igaro danok batzen eta laster, txikota askatu edo eten, geldi-geldi urtetan hasi, barra muturra igaro eta Santa Clara azpira heldu ginanean, Paulo lemazain edo patrioiaren ahots garbia entzun genduan, gauerdiko haizearen gozotasuna hartu nahi ebanak urten eikeala-ta.

Hasi zan norbait “Boga-boga” abestu nahian, baina Paulok, zentzun onez, isildu eragin cutsan, itsas zabalean, argi barik, ontziren bat zelatari ibili eitekeala-ta, inguruetako ibilera eta harantz-honakoak zaintzen.

Ikasibbarri neban erromantze polit bat etorkidan, nahi ezta be, burura: “Txalopatxu bat, txalopatxu bi, Santa Klararen parian... Barriak onak diradez, baina jazo da kalte sobria...”.

Hantxe, Santa Klararen ermita zaharrari begira, Antiguako Amari salbea errezau eragin euskun Paulok.

Kosterrez ginoiazan. Barru-barrutik. Seguruago joateagaitik. Ondarroatik Baionaraino, Iger muturra hartzea da zuzenen. Ezin ukatu. Baina gu beste alderantz hasi ginan. Irabaltza, Atxaspi, Saostan, Lekeitioko Santa Katalina, Otoio, Eako Kaiarri eta Lapatzak, Ogoño, Izaro eta Matzaku, agertu eta igaro ahala izentetan euskuzan Paulok, zein ziran eta non ginoiazan agertu nahirik.

–Bilbora al goaz?

–Ez estutu. Matzakutik gora joko dogu, itsas zabalera, iparraldera. Donostia inguruan ibili leikezan bou eta ontzi zaindariei igeska.

Halantxe egin be. Hiru orduko bidea hamarrez bidertu eta luzatu genduan.

Eguna argitu orduko arrantzan hasi ginan eta hegaluze batzuk hartu be bai. Mesede ederra egingo eben geroago atun horreek. Urrungatxa ahazteko, kantuz be ekin geuntsan, euskal abesti gozo eta minberatsuetan. Itsasoan ginoiazala, egia da, ez genduan gure igesaldi edo erbesteratzearen kontzientziarik hartu.

Hurrengo gaulehenean, argi batzuk kinuka ebilzan aurrez aurre.

–Ez estutu mutilak, nasai egon, ziur gagoz-eta –esan euskun Paulok–. Ez bildurtu. Donibane aurrean gagoz. Bai, haretan egoten diran gerrako ontziren baten argiak izango dira horreek, itsasoa tarterik tarte arakatzen. Aurrean dogun herri hori da Donibane. Hegalekoa Sokoa. Bien artean Ziburu. Hurreratuko gara zerbait eta gelditu, gaua egiten. Ahal dan tokian egin lo pizka bat, eguna zabaldu arte ez gara sartuko-ta.

Halantxe, gaugiro ederraren atseginean, tosta gainean batzuk, karel gainean buruak makiurtuta, edo eta bela eta trein zokoetan etxunda, ahal zan biguntasuna eta eratasuna bilatu ondoren, egunari itxaroten geratu ginan.

Aldiz-aldizka, Donibaneko txalupak igarten genduzan gure albo-tik igaroten, eta gure belarriak hangoen cuskerari oraindik egin barik egozalako, erdiz-erdizkako hitzak entzun ahala hartzen geuntsezan. Beste batzuetan bretoiraz edo frantsesez ekiten eutsen, baina igarten genduan gure ontziari buruz zerbait esaten ziharduela.

Gehienok gainean, kubiertan, igaro nahi izan genduan gaua. Ez zan erraz be, gure giroan, ordu eta toki hareetan loak hartzea.

ERBESTETARREN LEHORRERATZEA

Mugak, anaien artean, ezaupidea galdu eragiten dabe eta maitasuna hotzitu.

Sartu orduko, moila gainean hanka ipini orduko, konturatu ginan. Gure lehorreratzea, gure desenbarkua, ez zan, hain zuzen, alaitasun eta pozez betea. Goizeko zortzirak inguruan, Donibaneko ibaian gora joan ginan, Ziburu herri politaren hegala ia jotzen.

Kai aldean, nasa edo moila ondoan geratu ginan. Norbaitek esan euskun bertan geldi egoteko agintariak edo zaindariak agertu arte.

Bitarte horretan gure arrain apurra saldu ete geinkean itandu genduan, baina ezezkoa hartu, ezbai barik. Hor eta horretan be baegoan muga.

Bederatziak inguruan, Donibaneko herri etxera eroan ginduezan danok, piloan, moltsoan, zaindarien ardurapean.

Lehenengo, herriko zaindariak hasi ziran dirurik ete genduan jakin nahirik, han biziten lagateko preminazko zalako hori, bestela beste nonbaitera bialduko ginduezala-ta. Alkarri baietz esateko kinu egiten geuntsan. Egia esateko, moila aldera agertu zan lagun on batek aurrez adierazo euskun zertzelada hori. Halantxe, nahi eta hogeit ogerlekotik gora euki ez, orduko ogerlekoak piloa egiten eben eskuan, eta erakutsi ahala, aurrera joaten lagaten euskuen, dirudun lez, izen eta nortasuneko agiri eta zertzeladen kontu hartu ondoren.

Horrelaxe, hogeit-hogeta bi ogerleko soil bakarrik nituala, dirudunen artean aurkitu nintzan. Hogeit urte behar dira horratik, erbestean hogeit ogerlekogaz bizi leiteken itxaropen eta amesetz kalera urteteko.

Honetan, guri hain harrigarri iruditzen jakun gaurko gazteen joera bardina erabili neban, nahita besterik ezean. Ni be gazte nintzala kontura eragiten deust gertaera honek.

Kalcan libre ikusi ginanean, buru, kopet, zentzun eta kaskarrak lancan ipini genduzan, zer egin edo nora jo.

Nik ez dakit zelako haizez, Belgikan neban osaba bategana joatea pentsau neban eta egunik eta dirurik galdu barik, geltokira joan nintzan, trencan sartu eta egun berean bertaratzeko asmotan. Baina hogei ogerlekorekin ez nintzan heltzen.

Kafeetxe baten aurrean eserita, abade ezagun bat ikusi neban, eta bat-batean, hotz-hotzean, behar neban ganerakoa berari eskatu, banekialako diruz ez egoala ni bezain urri. Ez zan asko, beste hirulau ogerleko, baina ezezko bete-betea hartu neban. Orduantxe ikasi neban inori diru eskatzea lotsagarri dala.

Komenturen baten ortulau gelditzeko aukera galdu neban, nire ustetan, une horretan. Itsasontzia eta bertako arrantzaleak Baionara eroan zituen, han egozan beste ontziekin batean alkartuta hobeto zaintzekotan.

Gu, lehenengo burutasunak baztertu ondoren, Ziburura hurreratu ginan, eta hantxe, Bidegain lekuko etxe baten sartu ginan. Alkarrantzako borondate onez hasi ginan eta zerbait bilatu arte, alkarri laguntzeko gogoz batu.

Arrantzale bat sukaldari eskini zan. Ni haren laguntzaile. Borondatez, plater bakarra gertatzea erabagi genduan jatordu eta matordu bakotxerako. Ez genduan danontzako oherik. Horregaitik zaharrei oheak lagata, besteok lurraren gainerako gertu agertu ginan.

Bigarren egunean, nire kontura egoan lapikoko patatak zaintzea. Gure txalupatik ateratako atun zatia genduan eta marmitakoa egiteko ginan. Gasaren neurri eta indarrik ezagutu ez eta ondoa jo eta erreta ez ziran igarri, ba, patatak? Meritu guztiak galdu nituan lagunaren aurrean eguerdi horretan. Zeregina aldatu behar.

Gure herrietako albistak hartzen hasi ginan. Baltz eta mingarri. Erbestean biribildu be errazago egiten dira eta batenak eta besteenak ez ziran beti batera etorten. Baina lehenengotatik hasi ginan gure egunak luzatuko ziran bildurrez.

EZ DIPLOMATIKO ETA EZ JANTXAKUR

Alper egunak ziran gureak Donibanen. Pozik lan egingo genduan nonbaiten. Horretarako gure ahaleginek oztopoa besterik ez eben bilatzen. Legeren bat egoan bitarte, lan egitea galarazoten.

Egunerokoak irakurri, kontuak esan, guzurrak biribildu, erdikakoak osotu, alkarri adarra jo eta horrelakotan igaroten genduzan orduak kalectako jarlekuetan. Trinketean be sartzen ginan. Kitu. Ezin geinkean besterik.

Gazte baten odola ezin lei horretara makurtu. Nik ez neukan neure burua besterik, arduetan behintzat, orduko arduetan. Ni baino kezkatuago ebilzan lagunak, euren zeregin, arazo eta ondasunen barri jakin ezinik. Lantegi eta ogibideko toki onak eukiezanak baegozan; bestelako ondasundumak be bai. Guraso ziranak be euren emazte eta umeen arduraz igarten ziran, larri.

Ni ikasle bat baino ez nintzan. Bestelako katerik ez neukan. Nire bizia aldatu eikien zeregin bi eskatu edo eskini custezan behin. Ez dakit zeinen zirikadaz, Mialet edo antzerako izendun militarraren etxera joateko eskatu eusten goiz baten. Ez dakit bost ala sei kantoi izeneko kalean bizi zan, edo hara deitu eusten, Baionara. Saltoki baten barruan han egozan nire zain hiru gizon, kezkaz eta arduraz joan nintzancerako.

Baionako ibaian, garai haretan, hainbat cuskaldun itsasontzi egozan, gure portuetatik iges eginak. Itsasontzi horreetako arrantzaleen arreta eta minez agertzen ziran hirurak. Euren alde zerbait egin behar zala esaten eusten, egoera haretan gizonak eteteko eran egoza-

la-ta. Preminazkoa zala eurei hitz egitea, euren tokietara bihurtzeko ardura sartzea. Gizon laguntzak eta kistar¹ legeak agintzen ebalu hori.

Lehenengotatik horretarako nire nortasun eza erakutsi neutsen eta nire bildurra. Batez be gerratean lehenengo egunetan igaro eite-keanaren bildurra, itsutasun, azpikeria eta ikusiezinen ondoren larri baten kezka bizia. Gizon hareek bakezale eta bizi-maitale ziralako iges eginda egozala agertu neutsen, euren herrietan benetako bildurra sartu eutselako bertakoen jokabide askok.

Lehenengotako itsukeria etena zala eta gehiago halako beste zer-bait ez igaroteko neurriak hartuak ziralata... biharamonean eureka-riko batekin Donostiara joango ete nintzan eskatu eusten, han hitz egin eta traturen baterako bidea hartzen.

Zurbildu nintzan. Banekian ni ez nintzala inor. Euskeraren mai-tasunez jokutzen hasia nintzan eta hortik hartuta neban izen pizka bat nire herritxuan. Inguruetan ez ninduen ezagutuko. Itxurak eta sentimenak; bestalde, ez nengoan inongo alderditan izena emonda. Ez neukan adinik be horretarako.

Biharamonerako laga genduan sakonago jardun eta erantzun bat emotea. Lagun batzuekin aurrez hitz egin nahi nebalu eta egun bat eskatu neutsen.

Biharamonean, goizean goiz, eureka-riko bat etorri jatan. Ez ego-la beste batzarririk egiteko preminarik, ez eta be inora joateko beharrik. Egoera hori egun bi-hiru barru bertan behera galduko zala, Ondarroan sartzea lortu ebelako nazionalak eta Bizkai aldeko itsasertz guztia men-deratzea egun bi-hiruko jokaera zalako.

Hortxe hasi eta amaitu zan diplomatiko agertzeko gertu eusten bidea.

Egun bi-hiru geroago beste erako eskabide bat hartu neban.

Hemengo euskaldunek aldizkariren bat atera nahi eben Parisen, eta bertan euskerazko sailen bat sartu. Bost egun barru hara joan beharko nintzala...

¹ Kistar: kristau.

Eskerrak emon neutsazan aukera hori ekarri eustan ordezkaria-ri, baina bete-betean esan be bai ez nintzala ni horretarako gai eta duin. Urteko gudari izanik, nire lagunak burrukan ebilzala ni Pari-sen nasai eta patxadaz lotzea ez zan nire giroko. Beste norbaitentza-ko zeregina zan hori eta ez soldadu batena.

Barru eskabidea egin eta nik be nirean jarraitu setatsu. Nigana etorri zanak errazoizko hartu eta ikusi eban nire jokabidea.

Hor galdu neban izen eta ospe apurren bat hartzeko aukera. Nire izaera edo karakter bildurriak horretara samurtu izan baninduan be, badakit laster damutuko nintzala. Dana dala, Pariseko atsegin eta egoera errazik ez neban maite izan, anaia arteko gerraren gordinean, nahita gero eta itoago gure buruak igarri *erbesteko* egotaldi honetan.

BARRIRO ITSASBIDEAN

Egoera larri, etengarri eta lotsatia eukien arrantzaleek Baionako ibaian, euren ontzi txikietan. Ezin luzatu bizimodu ha. Jan eta lo, bata nahi beste ez egoki eta oparo. Edan..., euren esaten ekien lez, ardaoa *ikus*i eta usaina hartu besterik ez. Orduko txalupak estu ziran egun luzetako bizimodua bertan eroan ahal izateko.

Irabazpiderik ez eukien, lotuta egotera behartzen zituelako. Eta barruko arrantzaleak gitxi zirala, nortasun barik ebilzan iges egindako asko hurreratzen jakezan aterpe eta ostatu nahirik, *tostarteko* izateko gertu, jan truke. Hain zuzen, eurak be nondik lortu ez ekien janaren truke.

Isil-misilean jakin neban, gu Donibanera eroan ginduzan itsasontzikoak aspertu eta nekatuta egozala geldi egon eta ezer egin ezinean, eta preminak estutu eta eraginda, Bilbo aldera iges egitekotan ebilzala.

Egoteko leku atseginago bat aukeratzeko atxakiaz, ibaian bertan aldara txiki bat egin eban ontziak egun batzuk aurretik. Barra edo sarrerako mutur puntarago hurreratuta eukien ontzia, zaindaria egoten ziran tokitik zer bait al denduta, asmoak erosoago beteteko.

Oraingo arriskua Ondarroakoa baino handiagoa zan, czkutuz urtetekotan. Eta isilean urten ezik bildur ziran ontzikoak hango begirale eta espian batzukaz.

Hango zaindaria, gure herrikoak baino ezezagunago ziran. Euren bildur be baziran, eta ondo pentsauta, mesede baino ez jaken egiten hango agintarici hainbat lasterren iges egitecagaz. Arrantza-

leek, bildurrak eraginda, beste era batera pentsetan eben eta bestelako arriskuak ikusi.

Hori horrela, urrilako gau ilun baten, ez naz gogoratzen zein egunetan, iges egitera *arriskatu* ziran. Ni be bai.

Banaka joateko esan euskuen, argiak itzalita, ilunpean egoan ontzi ondora. Egia esan, barruko arrantzaleetatik kanpora, bi edo hiru ginan bakarrik gure lurraldeetara bihurtu nahi genduanak. Lehen etorritako asko Lapurdiko urietan gelditu ziran, gerra edo nahasteen bildurrez.

Txikotak eten eta luze egin jakun ibaian beherako ibiltaldia. Bildurrak luzatu euskun, nahita gau egokia gertu ilunez, lainoz eta euri zirin edo euri lantzer. Nahitaez gogoratzen ginan, motel ikusten ziran urrunetako argiei begira, kantu ezagun eta maitetsuagaz: "Itsasoa laino dago, Baionako barraraino...". Halantxe, lainopean, hasi ginan itsas zabaleko haize bizi eta meheagoa arnasten.

Baretu eta nasaitu ginan. Itsasoan ez genduan lehengo ibiltaldian adina kantu eta soinu erabili. Ez eta lehengo umorerik. Isilik egin genduan osterea gauaren itzalean. Ez eukan Paulok egun luzerik itsasoan galtzeko asmorik, nahi-ta arrantzan egiteko eraren bat euki. Horregaitik barru-barrutik Bilbora hurreratzeko asmoa jakinazo euskun. Holan, Iger mutur gain edo aurea hartu ondoren, Matzakura jo eban zuzen, hori bai, beti be, argi edo zarataren bat entzuteko kezka.

Matzakutik kosterrez joan ginan Portugaletera, goizaldean herrietako argi banakak ikusi eta igarri nahirik.

Portugaleten, zubitik laster geratu ginan. Orduren bat galdu genduan itsas begiralea agertu orduko. Kezka orde, pozez ikusi eban gure ibiltaldia eta Bilbo ingurura hurreratzeko nahi genduan baime-na bagenduala esan eta hasi ginan ibaian gorako bidean.

Bilbon erraztasuna bilatu nahi izan genduan, bertan ibili behar bazan be, eta Arenal ondoan gelditu ginan.

Ez neban ezagutzen Bilborik ez bilbotarrik. Halanda be Donibanen baino baretsu eta egokiago igarri neban nire soina. Zer esanik ez gogo.

NAHIGABEAK AHAZTEKO AGURRA

Portugaleten sartu eta lehenengotik agertu eta argitu nahi izan eban Paulok bere burua. Lehenengotik *errola* akats barik laga.

Ez dakit komandantzian oztoporik ipini ete eutsien. Laster etorri zan. Han egozan soldaduek ez eutsiela kontu hartzeko gogo handirik erakutsi. Ohituta egozan, itxuraz, herri batetik edo bestetik bapor txikiak Bilbora joan eta sartzan ikusten, han gordeleku eratsu baten bila.

Segurutik inork pentsau be ez eban egingo sasoi haretan Bilbora joianik fede onez joango ez zanik be. Danak adiskide. Danak helburu baten jarraitzaile.

–Gauzak ez dagoz hemen hain garratz– esan eban, txalupara agertu eta batean.

Hori be itxaropen oneko agerbidea eitekean, edo bere pentsaeraren arnas bat.

Ibaian gora, goizaldeko lainotan, Sestao eta Barakaldo alde batera, Erandio bestera igarten genduzan. Bageunkan halako zerbait ze gertatzen ete zan jakiteko. Azaletik, itxura baten, berezitasunik ez zan igarten. Ibaian gora eta behera ebilzan erremolkadoreek be ez cuskuen eguneroko lan ohia besterik iruditu eragiten. Baketsu ete egozan herriok? Guk, gure kezketan, ez genduan bestelako agergarririk ohartzen.

Deustu igaro genduan. Gorago nahi. Laster hasi ginan toki egokien bat ikusi nahirik. Tarte bat igaro orduko norbaitek urtetan eban: baegoan ba hor aurrean amarretako, lotzeko toki egokia! Baina

batzuen eta besteen erispideak hartzen zituan Paulok: Areatzako (Arenal) moila hegalera joatea izango zan ziur eta egokien. Han agertuko da norbait, edo esango deuskue zer egin behar dan edo nora jo geinkean.

Halantxe, makina geldi-geldian, txikota eskuetan gertu, lotzeko hegal egokia begiztetan genbilzala, deadar lodi eta beteko bat entzun genduan moila burutik:

–Etorri! Goratxuago etorri!

–Ene! Han, brankan, izurde bat, esan eban Paulok, barruko pozez, herritar lodikote baina tximinoa lako gizon zatar ezagun bat ikusita.

–Haren zilbotari begiratuta gosez hiltan ez dago behintzat.

Berari agurka hasi ginan danok. Gauza hutsak etetan ditu askotan kezka eta ardurak.

–Zer pentsaten zenduen, ba, han beste aldean ogi zuria debalde bilatuko zenduela? –barrero hots egin euskun barre algaraka, txikot muturra hartzera geratzen zala.

–Zapo horrek kartetan hasi orduko bota deusku ordagoa, –tartetik esan eban batek. Gizon handia, baina kaka-lekua errezuan, betiko antzera, horrek.

Barre egin genduan. Barrero batek deitu, besteak be bai, berak be batari eta besteari erantzun nahi, baina alkarren gainean, alkarren ahotsa zapaltzen. Barruko pozak eragiten euskun. Bera be nasai ebilen. Eta ames egin bagenduan cran, etxean igarri ginan. Hain berezko eta eguneroko bilatu genduan gure herritar borondatetsuaren harrera jatorra.

Zelan jakin ete eban berak gu ordu honetan helduko ginala? Portugaletetik deituta? Edota oraindik beste zereginik ez eukalako, nor etorri eitekean egin ete eban agerraldi hori?

Dana dala, gure ondarrutarrak kezkarik ez eban agertzen. Bestera. Pozik ikusten zan.

–Hemengoak eginda dagoz. Cehienez be, aste bi orduko, barrero Ondarroara joateko gertu egon. Hemen mahatsak batuta dagoz. Iku-

siko dozue hemengo erapena. Armak eskuetara heltzen diranagaz batera, hemen jai dago. Ziur egon.

Konturatu orduko, txikotak emonda, gure ontzia Bilboko tokirik eratsuenean lotuta gelditu zan.

LEHENENGO ZEREGINA

Gerrateko gudari nintzan, 1935eko kintoa. Zori ona, suertea euki neban nire urtean. Gerraren bildurrez nintzan beti, soldadutzaren kezka be bai. Gaixo ibili nintzan nire hamasei-hamazortzi urtean, ondoez luzeak jota, makal. Bakarti nintzan nire izakeran, lagunartea falta.

Zorrotzegi nintzan nire amesetan. Estuegi. Nire ikastaroak aldatu beharrak be, hasita nenbilen abadegintzako ikastaroak aldatu edo laga beharrak be, estutzen ninduen, neuretik atera. Adiskide on bat, zuzendari arduratsu bat falta izan neban unerik garratzenetan, nire bake eta nasaitasuna lortzeko.

Horrelaxe heldu nintzan hogeitertara. Neure burua estutzen, urteak galtzen.

Urteko gudaritzatik, soldadutzatik libre geratu nintzanean, nasaitasun pizka bat hartzen hasi nintzan. 2.180 mutil ginan gure kintotzan, lehorretik, Bizkaian urte haretan. 1.956garren geratu nintzan. 1.506 izan ziran deituak. Besteok "Instrukzioko kuporako" geratu ginan. Gogoan daukat. Hain zuzen, Dimako Justo Arzabe zan joateko lehenena. A-tik Z-ra bagoan bitartea.

Gero be zori hobeagorik ezin euki betebehar horretan. Ez eusten deitu kuartelera, gerra sortuta gero be. Horrelaxe joan ziran egunak eta hilak, erbesteko osterea egin arte.

Herritar batzuk, nire kintotzakoak, hilda zirala banekian, lehenengo buruketan eta lehenengo egunetan egin ziran urteeretan.

Bilbon sartu orduko, goiz berean, nire egoera garbitu nahi izan neban. Gudari lez uste nintzan eta horrelaxe nire zeregin hori beteterra gertu.



Euskaltzaindiko batzarra. Bilbo, 1963-10-25.

Carlton jatetxe eta hotel ezagunaren beheetara joateko esan eusten.

Nire nortasuneko agiri eta ezaugarriakaz, fitxa bat bete ondoren, idazteko makina laga eta barrura sartu zan ardura hori eukana. Beharbada nora bialduko ete ninduen jakiten? Berehala adiskide on bat etorri jatan besarkatzen. Ni baino zahartxuago zan, baina maite ninduan. Ez nekian bera han egoanik. Hain zuzen, gerra sortu baino lehentxuago, ni Bilbora erroteko arduraz ebilen, bere ondoan lan egitera: Esteban Urkiaga, *Lauaxeta* idazle ezaguna zan.

Besarkatu ginan.

–Nire ondoan euki nahi zaitut.

–Badakizu urteko kintoa nazana.

–Zure gudaritza zeuri jagotzun zereginen beteko dozu.

Deitu eutsan Azkue arduradun nagusiari. Agurtu ginan. Biak batera etozan nik, nire gudaritza, iskilu orde, luma eta idazteko makinaz bete behar nebala. Bertan izentau eustan nire etxea: Eskolapioen ikastetxe handian egoan gudarosteen etxean, kuarteltzat hartuta egoan kolegio haretan biziko nintzan, gudari. Lana izparringietan, egunerokoren baten egingo neban, gudarien agindu, dei eta oharrak batu eta bereizten, hareentzako jakingarriak aukeratu eta agertzen. Eta euskal sailcan bereziki, egunerokoetan zerbait laguntzen. Irabazia kuarteletik hartuko neban.

Ezelako ahaleginik egin barik, adiskide hareek han egozanik be ez nekiala joan nintzan nire zeregina betetera. Kezka bat kendu neban eta poz barria hartu. Hori da egia. Une horretatik bide zuzenean gelditzen nintzan, egoera egoki eta legezkoan.

Egun batzuetako baimena gaindu eusten, lanean hasi aurretik, Bilbon eroan behar neban bizimodua aukeraz eratzeko.

ETXEKOEN BILA

Bilbon buruhauste garratza zan, problema gogorra zan, sasoi haretan herrietatik iges eginiko sendi edo familien egoera.

Hainbat eta hainbat gipuzkoar sartu ziran herriz herri senideen abaroan, ezagunen ardurapean, adiskideen laguntzapean. Gipuzkoa-rrekin batera Bizkaiko mugan geratzen diran hainbat bizkaitar herri txikietako andra-gizonak egoera bardintsuan gertatu ziran.

Bildur hak, giroak estutu eta indartzen dauen larritasunak eroan zituan asko, ahal zan eran, ahal zituen tresnak hartuta. Asko, bestalde, esku-huts, preminazkoenak bakarrik aldean zituela.

Gerraren minbera eta arrada sartuazoteko, iges egindako honeek lakorik ez egoan herrien burutasunean.

Etenbako neke eta lorra zan euren; etenbako itotasuna, kirio edo nerbioen zorabioa.

Egun baten toki baten geratu, biharamonean barriro aldatu behar. Askori gertatu jaken hori, batez be lehenengo egunetan. Gero, uriburura, Bilbora jotzen eben gehienek.

Gu Bilbora joan ginanerako, *muga* ipinia zan, *frente*a gelditua zan. Eta hain zuzen be, Ondarroako mendietan, Artibai ibai hegaleko mendietan hasten zan muga hori itsasondoan. Halan, itsasertzean Ondarroa, gero Markinatik zehar Eibar inguratuz, Bergara gainetik zehar Arabako Legutiano (Villarreal) inguruak arte.

Ez nekian etxekoen barririk. Ez neukan familiakoen albistarik. Bilbon oina ipini orduko hasi nintzan arduratzen.

Moila ganean ikusi genduan lehenengo arrantzaleak, ez ekian niretarren gauza garbirik.

Hain zuzen be, lehenengo egon nintzan idazkaritzan, gudarien erakuntzako idazkaritzan, esan eusten non egozan ondarrutar ugari.

Joan nintzan *Sordo-mudos* etxera. Han batzen zan *Itsasalde* gudaroste edo batailoia. Gehiena Artibai eta Lea ibai ondoetako eta Bermeo ingurutako mutil trapalotez osotua. "Boga-boga", "Matxia", "Matxitxako" eta "Telleria" zituen izentzat bere taldeek, bere konpainiek. Ondarroa erdia bertan.

Hantxe bilatu nituan anai bi. Bertan jakin neban beste bat Bilbo aldetik ebilela eta aita, ondarrutar batzukaz batean, Gaminiz, Plentziako zubi ondoko etxe baten bizi zala.

Hamar ginan etxean. Aita-amak eta zortzi anai-arreba. Aita eta lau mutil zaharrenok Bilbon, gorricken. Ama eta beste lau txikiagoak, neska bi eta mutil bi, Ondarroan zurien artean.

Bien bitartean, trintxeretako zuloak, malkoz eta odolez, izerdiz eta estutasunez, gorrotoz eta haserrez.

Sekula ez neban pentsau gorri nintzanik. Ez dot uste nire amak eta be zuri zirala pentsetan lorik galduko ebenik. Gure ustez siniste zindo eta jator ziranci eutsiak bai, bihotzez eta gogoz lotuak, eta besterik ez.

Baina mendietako zulo egin-arinak, itxurak erakusten ez eban adinako sakontasuna eukien. Gizona ozta-ozta ezkutetan zan trintxera-azalek, bestelako ondo bat eukien: herri ber-bertan, familia ber-bertan muga ipinteko adinako sakontasun itzala; aita-amak edo ama-semek, gurasoak eta anaia sakabanatzen eta erdibitzen zituan sakontasun negargarria.

Gero eta mintsuago etorren niregan, nire izakeran eta jokabidean, nahita ordura arte bildurrez, bigunkeriaz edota giroaren indarrez hainbeste gorrotau neban gerraren zotina.

GERRATEKO OSTATUA

Cudari nintzala, soldadu nintzala, kuartelean sartu behar. Legea edo itxurak bete behar.

Itsasalde geratzen zan tokian eskini eusten ostatu, herritarrekin biziteko. Eskertzeko zan eta eskertu neban borondatea. Baina egokia-go eta crosoago egotearren, eskolapioen ikastetxera bialdu ninduen, nire gogoan halan bazan. Honetan ez neban inoiz gogortasunik ezagutu. Bestalde, biguntasun eta adiskidetasun laguntza luzea igarri neban.

Eskolapioen ikastetxea toki oncan egoan. Beharbada Bilbon biziteko aukeratu neikean tokirik egokiena.

Lehenengotan, ni sartu nintzanean, lekeitiarrak egozan agintari. Lekeitiar gudariak. Ondo egon nintzan eurekin. Egia esanda, bestelakorik ezagutzeko denporarik be ez neban euki, ni han sartu eta laster aldatu zituelako.

Lekeitiar hareek -gerrateko gertaerak- beste zeregin egokiago batzuetara bialdu zituen eta, hain zuzen be, ondarrutar bi sartu ziran bertako nagusi. Betikoa: arotzaren etxean untzerik ez, edo norbere etxean eskaleak seme eta semeak eskale.

Hori gertatu jatan niri. Halanda be, gerra denpora zan eta gerratean mendian baino giro hobeagoa egoten da kuarteletan, tiro gitxiago entzun, ziurrago eta beroago jan, nahita kuartelak bere atxakiak euki eta ez txikiak.

Bilbon sartu nintzaneetik berakatz-atala baino finago ibili nintzan. Ni eta ingurukoak. Honetan alkarren lotsa gordeten genduan eta horretan ahalegin egin.

Kuartelean jan eta lo. Ez beti nasai. Lanik ez lagatearren, hasitako zeregin bat burutzearren berandu joan ginanetan, bazkari edo afari gabe laga ginduezan, Gran Vian neskatilak samurtzen ibili bagina lez.

Kuarteltzako toki haretako hegal berezi baten egiten genduzan jatorduak, bertako agintari eta han gordeta egozan batzuekin. Jatekoa, ohea, holako giro baten atxakiarik ez eukiteko adinakoa. Baina gudarien jateko bardina. Edozeineri emoten jakon jatekoa. Hantxe batzen ginan euren biziak zaindu eta gordetearren batuta egozan edo eukiezan gizon batzuekin. Jakina, hareen pentsacra eta gurea ezbar-dinak ziran. Alkarregaz egon arren, ez genduan berba askorik egiten. Preminazkoak, ezaupidea zaintzekoak, eta kitu. Ez horretarako inork zeresanik egin edo emon euskulako. Berezko gauza zan. Eurak adinean aurrera etozanak ziran, urteetan eginak. Gu oraindik gaztetasunean sartzen hasiak. Barakaldo eta ingurukoak ziran gehienak. Ez ekien euskerarik. Gu euskaldun jator eta euskal tokikoak ginan. Ibaiaren handikoak eurak, Enkartazinoetakoak; besteakoak gu, sasoi bateko Bizkai jatorrekoak. Errespetuz eta lotsaz ikusten genduan eta agurtu alkar. Konturatzen ginan euren problema bereziagaz. Eurak esker onez begiratzen euskuen. Alkar maitetasuna errespetuz zaintzen genduan. Nik ez dakit gerra amaitu ondoren eurak zelan jokatu eben. Nik esan neikena hau da: gerra amaituta gero be, ikusiak ikusita be, beste horrelako egoera baten, horrelako aukerabide baten, bardin luzatuko neuskiola nire agurra eta nire eskua emon. Munduko pentsaerak baino gizonaren nortasuna handiago da niretzat. Niretzat be eskubide berbera eskatzen dodalako. Inoiz, eurekin gogoratzean, sarri damutu izan naz eurekin zabalago ez izateaz. Bestalde, eurei ezer gertatu ezkeror, norberagandik urteniko zerbaiten atxakiaz izan eitekeanaren ondorena izan eitekeala-ta, betiko damu izango ete neban bildurra be igarten dot nigan. Bata bestearen orde, bego bere tokian gure jokabidearen zintzotasuna.

Toki honetan, Eskolapioetan, zortzi hilebete egin nebazan. Bilbon igarotako denpora guztia. Lehenengo biak arinenak, lan arin eta garrantzi bakoetan. Soldadutzako esaeretan, entxufe on eta egoki bat

neukan. Gero... kanela-zotza baino tenteago eta argizai artean ezkuta-tauta egoten dan kandela-haria baino estuago. Gerokoa lan garratza zan, nahita norbere zaletasunez bigundua gertatu.

Bilbon sartu orduko gudari jantzia eta tabardo bat emon eustezan. Negu eta udabarri curekin ibili nintzan.

Pistola bat be emon eusten, inoiz preminarik baneban erabilteko. Zertarako? Egia esateko, kuarteleko iskilu maisuaren eskaintza gehiago izan zan, agintarien preminazko agindua baino.

Sekula ez neban aldean erabili pistola hori. Behin edo... atera neban hautsak kentzeko eta harrokeriaz. Bestela ez.

Lehenengo aldian, aldi nasaiagoan, igandectan jai eukiten genduan eta senideak ikustera joaten nintzan. Baita gaixotegietako lagunak ikertzen be.

Bigarren aldian, aldi estuagoan, Urtebarritik aurrerako igandectan, gudariak egozan tokietara joaten ginan inoiz, edo Bilbon bertan gelditu, lanen bat gertu edo aurreratzen.

Urteera banakak egiten genduzan sasoi haretan. Holako baten begiz jo neban gaurko nire emaztea. Barruko arrada. Halaz eta be, gerratean ez ginan gehiago ikusi.

Hori izan zan gure bizitza Bilbon. Lana, etenbako lana, osasuna makaldu eta galdu eragiteko adinako lana, neurtu gabeko lana. Ez aurrean, gudaritzako frentean. Egia da. Baina atzean egoten dira aurrekoak adinako estu eta larriak. Aurrekoen laguntza eta preminek atze bat behar izaten dabe. Arrantzaleen esaera da, ekatx asko bran-kaz barik, popaz eratsu eta zoriontsuago gaintitzen dirala.

Hori zan Bilboko gure joko eta egoera.

BITARTE SAKONA

Kuartelean sartu eta lehenengo iluntzean ustebako gertaera bat.

Kalea bitarte zala, Hena kalea bitarte, gure gelaren pare-parean, nire herrian udaldia igaroten eben neska batzuk egozan leihoan. Ez ziran bilbotarrak, baina, itxuraz, Gerediaga herri-alkarteko herri handi batetik alde eginda han bizi ziran senide batzuen etxean.

Fraile baten gela izango zan gurea, ez handi eta ez txiki, baina gure denporan hiru ohe sartu genduzan bertan beste hainbesterentzako, nahita kontuak esateko bost-sei ia egunero bertan batu.

Neskei begira egon nintzan nire leihotik une haretan. Eurak be bai, edo halan uste neban behintzat. Beharbada eurak be ustekabean ikusi ninduen han.

Begiratzeko esan neutsen lagunei.

–Ez egiozue seinarik egin.

–Zergaitik ez?

–Harro batzuk dira. Betozko. Egumetan egoten dira horrelaxe. Beste alderdiko dira.

–Zer dauka horrek zerikusirik alkar ezagutu eta agurtzeko?

–Ezagutzen zarie?

–Inoiz alkarregaz egonak gara.

–Ez dago itxurarik. Ez deutsue jaramonik egiten. Muturrak erakutsi horreek, hori bai.

–Ez dira konturatuko-ta!

–Konturatuta be ez deutsue egingo. Ziur egon.

–Zergaitik ez?

–Ez dakizu ba ta, ez deusugu esan bestekoak dirala?

Igarten da erbestean egon zarana. Zuk ez dozu bizi oraindik hemengo girorik. Lehenengotako egunik ez dozu hemen ezagutu. Horreek bestekoak dira eta gu gudariak. Jakin hori!

–Nor ez da gudari gure sasoiari?

–Beharbada ez dozu jakingo. Aita espetxean daukie, kartzelan. Baita senitarteko batzuk be. Konturatzen orain?

Lagunek berezko lez bilatzen eben euren jokabidea. Nik ez, zabalago nintzan. Ezaupidea agertzean ez eben etengo euren minik, baina sakondu be ez...

Leihoa itxi eben. Bardin guk. Konturatu ete ziran? Aurrerantzean be, inoiz leihoan egozala, gu agertzen baginan, igarri orduko berehala ezkutetan ziran. Eta gu ez ginan, hain zuzen, zurikerietako asmoz agertzen. Ez ziran geratzen kortina atzean be, zelataka.

Iribarre bat ez euskuen eskini, kalea bitarte, leihotik leihora begiratzen ginanean. Ezaupidearen ezaugarri bat bera ez.

Askotan mutilak, mendien zabalean tiro artean zabaldu eragiten eben bitartea baino handiago zan.

Hareen leiho eta gurearen bitarteko kalcaren zabala ez da hain zuzen be, askoren antzeko. Baina bihotzetan... Bihotzetan baegoan negar isila sortu eragiten eban min sakonen bat.

Egun batzuk geroago, gauerdi ondoren, leiho atzetik begiratu neban. Argiak itzalita, kristal ostean, kortina tartetan igarten ziran euren itzalak, kalera begira. Kezkaz? Arduraz? Norbaiteri itxaroten? Edota jakin-minez?

Ezkutuan bizi zirala igarteko aukera geroago be euki neban. Ezkutuan ez bazan be, euren buruak erakutsi nahi ezik.

Handik laster, goizaldean etxera ninoiala, bildurra sartu jatan euren atari aurrean. Kaleko nire oinotsak entzutean, bertan egoan batek oinkada luzetan iges egin eban, gauaren itzalean. Atea giltzez itxi eben barrutik. Gizona laster galdu zan, gauaren iluncan.

Argia ixitu barik nire gelan sartu nintzan eta nire aurreko etxera begiratzeko arreta hartu neban. Han egozan bi, eurak be ilunetan.

Egun batzuk geroago bardin gertatu jatan, baina hartu neutsan gizonari bere itxura eta tankera. Nik ezagutzen neban euren osaba bat zan. Segurutik bera be ezkutuan biziko zan eta etxekoan barriak edo senitarteko gorabeherak jakin nahirik ibiliko ziran.

Gehiago ez neban gizon ha ikusi gerrate guztian.

Behin, urteak igarota, gerraostean, beste batekin Bilbon neubilela, kalean tope egin eta beste horrek adiskidetasunez agurtu eban bera. Ni be aurkeztu ninduan. Hotz agurtu ginan, azaleko irribarrez, ezezagun lez. Halan erakutsi eban berak.

Gerrateko gau hareekin gogoratu nintzan. Eta familiak eta gizonak halan ibili beharrez ikusteak ordu batzuetako loak penaz eta kezkaz galdu eragin eustezala gogoratu neban.

INDAR ERAKUSKETA

Hazilak 14.

Giro ona nonahi, kuartelean, kalean, egunerokoan, lagun artean, etxeetan. Gaztediaren indar erakusketa, gudaroste edo batailoien desfilea egin da Bilbon. Txaloak eta barruko poz eta ikutuak eragiten daben negarra alkartuta igarri dodaz. Nire soinean be, goitik behe-rainoko hozkirria sentidu dot.

Jente ugari kalean. Ugari, milaka, gudarien ibileran, desfilean. Milaka ikusten eta txalotzen. Haize barri baten bolada igarri da Bilbon. Soinu baten notak aidean gelditu dira etenbako durundi sakon lez: *Euzko gudariak gara...*

Gazte adoretuak, jantzi barriekin. Arma barriak, tanke barriak, hegazkin batzuk, guretzat asko dirala sinistu erazoteko adina kalez kale edo aidean.

Denpora gure alde doala esaten igarri dot bat nire alboan. Bagoa-zala indartzen, alkartzen, gudarako nortasuna hartzen.

Aurrerago jo nahiko eban beste bat be egon da gure inguruan.

–Honeek gauzok –esaten izaten dau– hemen Bilbon ez, mendian, mendian egon behar leukie danok eta tatarrez garbitu Ebroren erri-berak arteko mendi arte eta lurralde guztia.

–Zertan zagoz zeu, hemen ikusten, tiroka mendian barik?

–Gaztedia, ezer erakutsi barik, arerioen jostailu jaurtitea nahi al dozu? –urten deutso albotik zoli eta zital emakume batek. –Semerik badaukazu zeuk?

Kalean, norbera zelako, halako giroa esanetan eta erantzunetan. Baina batera edo bestera, indarraren nasaitasuna hartzen igarri da jentea. Gobernu barria lanean ondo dabilela entzun izan dot baten baino gehiagotan.

Iluntzean, kuartelean, bateri entzun deusat:

–Guk zenbat eta indar gehiago eta goikoak bildur gehiago.

Goikoak, madrildarrakaitik esaten eban, gobernuko agintaria-kaitik.

–Laster lotuko deuskuez txikotak gure erara jokatu ez daigun.

–Indarra erakutsi? Indarra gorde egin behar da eta gehiago eskatzen jarraitu. Denpora izango da testigu, baina laster estutuko gaitue.

Dana dala, gaur, edonon, goratzen eta txalotzen, edota gure harrokeria ezkutetan jakin ez dogulako gaitzesten, hitz bat ibili da danen gain: indarra.

Norbere indarretan itxaropen barria igarri da, ezagutu da, irri-barreka, jentearen aurrean, askoren kezketan, indar horrek buruko min asko sortuta be.

Guk azala besterik ez dogu ezagutzen. Ikusten dana bakarrik. Hori lortzeko zenbat indar erakutsi beharrean egon ete dira agintariak?

Itxura baten, kalean, gure jaube sinistu gara. Irabazteko garra eta giharra hartzen hasi gara.

Afari orduan, Oruc, musikariaren maisu baldar eta totomotzari, kuarteleko mahaian, zenbat irri eta zenbat adar jote! Oin bat zuzen emon ezinda ikusi badogu, bereak eta bi entzun ditu. Baina berak, betaurrekoak ipini ala kenduz, kirioitsu, bihotzean ikutu eragin deuskuna badaki eta bitsetan, konpasa erabiliz, guztiori abestu eragin deusku: *Euzko gudariak gara...*

Ez da nahitaez gizona soinez dotore eta luze behar, maisu handi eta argi agertzeko. Jakituria ez dago dotoretasunean. Bengoetxeata-rren ikurdiko esaera gogoan: Behekoak goikoa benzi leidi asmoz eta jakitez.

Bat bi, bat bi... *Euz-ko gu-da-ri-ak ga-ra...* Esan ala jo, esan ala otu, esan ala bultz.

AFARIA GALDU

San Andreseko afaria, afari ohia da euskaldun askoren artean.

Orain mila urte baino gehiagoko gudaketa bat gogoratu nahi izaten da. Padurako zelaietan, harriak be gorrituta geratu arren, euskaldunak garaile geratu ziran auzo herrialde batzuetakoekin euki eben gudaketa baten.

Bilbon, indar crakusketa egin ondoren, zerbait igarten zan. Ezkutuko zalakoan agirian igarten zan. Isilean gorde nahi zan eta bolo-bolo ebilen. Egun hori, beste garaitza haregaz ospatu nahi zan.

Legutiano (Villarreal)ko torrean kanpaiak ez eben txilin-txilinik jotzen. Handik, torre haretatik urteten eben fusilen edo metrailadoreen balek soinu luzea eta bala-bala zarratua entzun eragiten eben aurreko pagadietan.

Legutiano Arabako ate da. Atzerago, handik laster, Gasteiz. Mapa asko ez da behar euskaldunok hori begien aurrean garbi ikusteko. Bilbon, egun hori hurreratu ahala, ames eta ames. Arabako landetan zer?

Sekula ez dot gudaketa batzuetarako orduantxe baino fede zintzo, betetasun oso, alaitasun eta itxaropentsuago herri bat ikusi. Gogo, garra, premia be bai, gauzak behin behingoz amaitzeko. Baina...

Behin hasi ziran esaten Otxandio odolez busti zala. Urkiolan behera etozan kotxeek Durangoko gaixotegia eta hango oheak beteta lagateko adina gudari ekarri zituela, Legutianoko kanpantorreko

metrailadoreek heriotzea zabaldu eta hil-kanpaia jo eragiten ebela... Aurrera joiazan gudariak pot egin ebela ibiltaldian...

Bat-bateko eta behin-behingo garaitzaren amesa galtzen igarri zan; iluntzen, galtzen. Osorik?

San Andres eguneko garaitza atzeratu zala behintzat. Indarrak indar gehiago eskatzen ebala. Baina ez gizonena bakarrik. Aidetatik behar zan indarra be bai.

Eta Arabako landetan, ustekabeen, mapetan agertzen eta marketan ez ziran ibai edo erreka bideak sortu ei ziran. Geroagoko urbanu edo enbalsearen asmatzaileak gertatu ete ziran han?

Udazken hondarretan, neguaren atarian, azpikeria eta saldukeriaren zurrumurru, kontu, esamesa eta sinisteak zabaldu eta ugaritu ziran. Lainoak jausi ziran, laino astun eta bustiak, pisutsuak, itxaropenaren argia lanbrotzen.

Gerra baten pentsetan hasi behar genduan. Gerrak ekarten dituan eskabide eta ondoren, eskaintza eta heriotza, gose, ahulkeria, gaixo eta nabarmenkerien mende.

Gure sarrerako ondarrutarra gogoratzen neban: hemen mahatsak batuta dagoz! Txo...! Eta oraindik negarrak, heriotzak, alarguntzak, erdibituak, betiko etenak batzen hasteko.

Herriak, zelan-halan, ikusi eban giroa. Igarri eban zer gertatzen zan. Eta croapenez txistu garratza iruntsi.

Harrokeria itsuegi gerabilen Ander deunaren egunerako. Eta euskaldunon egun horretarako afari ohiak, kalte egin euskun.

Bilbon arpegi luzeak eta zurbilak, baina burruketako bat bai. Geroago, piku eta palaz nembilela, gure sarjentutako bat han egona zan eta berak esaten ekian handik atzeratzeko une batetik bestera agindua etorriko jakelakoan egon zirala, noiz inguratuko bildurrez, azkenetan.

Zein izan ete zan besoak zabaldu eta Jainkoaren mesedez lurrak erdibitu eta errekarre bat zabaldu eban euskal Moises?

EGUNA

Gerratean ezik ez litzatekez gauza asko egingo. Egun eta urte luzeetako buruhauste, autu, kontu, ezbai eta asmakizun asko, gerrateetan zirt edo zart erabagiten dira egun berean edo denpora laburrean.

Niretzat guda edo gerrak ehunetik larogeta hamarretik gora oztopoak, akatsak ditu. On gitxi, tarteko bakarrak ezik, ondoren zuzen barik, albotik, ondorioz urtenak. Honeen artean bat, onerako nahi okerrerako, erabagiak luzabide eta atzerabide barik hartu beharra.

Gabon egunen inguruan, *Abeletxe* izenordeagaz ezagutzen dan Ziarsolotar Manuk, gizon alai eta jatorrak, etorri eta gordin-gordin hauxe esan eustan:

–Agintarien guraria da euskeraz, euskera huts-hutsez eguneroko bat ateratea.

–Guraria, nahia.

–Bai, halantxe.

–Gurari asko ito egin behar izaten dira.

–Ez hasi kakoak bilatzen.

–Kakoak ez. Akatsak. Eta ezinak.

–Txikotak ondo lotuta dagoz.

–Zeinek?

–Ez olgetan jardun. Egunik be galdu barik atera eta kalean zabaltzea nahi dabe.

–Ameslari gehiegi dabilz munduan.

–Gerrako amesak ez dira ames, egin beharrak baino.

–Gerratean be amesak beti ames. Gerratean be izan eta eginen artean, hutsunca, tartea, bidea. Luze edo laburra, baina bidea. Guraritik lortzera, ahalegina, ekina eta izerdia behar.

–Nik eskabide edo agindu hori entzun dodanean, barru-barrutik, bete-betetz baietz esan deuteset, pozaren pozez negarrez. Aukera euki eta ez ete dogu egingo?

–Nigaitik bada ez dot ukatuko nazanaren ahaleginik, jakinaren zatia besteak ipinten badabe. Baina... konturatzen zara zertan sartu nahi gaituen? Hor dihardue Donostiako *Argiak*oek urte luzetan asterokoa eguneroko bihurtu nahi eta ezinik. Eta bake denporetako erraztasunak ez dira gaurko bardinak.

–Dana dala, ez alperrik jardun. Gudaria ez zara? Ba agindua da.

–Aginduak be bere oinarria behar dau.

–Agintzen dabenean oinarri hori aztertuko eben.

–Bilbotar *erdeldunak* ez dira hori ahal dala uste dabena?

–Zergaitik *erdeldunak*?

–Erdeldunentzat alde erraza daukalako edozer erabagik. Konturatu lan erdia bandejan eskaintzen deutesela. Egina. Guk, izpar teknika kontuz, dan-dana egin behar. Aidean hartu eta eratu, taiutu behar. Besterik ezean euskeratu behar.

–Dana dala, agindua da.

Ez eban hortik urtetan *Abeletxe*k. Agindua da. Bere zirrikadak eta eztenkadak atseginak izango dira, baina guri sartu euskun akuluak untze zorrotza eukan.

–Agindua bada, ahal bestean beteko da. Baina lehenagotik gure eretxia eskatzea ezinezko izan al da?

–Korapilorik ez nahastu eta ekin.

–Noiz aterateko?

–Urte barritik hainbat arinen. Urtebarri egunean bertan lehenengo zenbakia gura leukie.

–Inuzente egunaren bezperetan gagoz, ihardetsi neutsan.

–Inuzentekeriarik handiena, inork sinistuko ez dabena, geuk

egin beharko dogu, esan eustan irribarretsu. Bai gizona, geuk! Eta esan barriro, poza igarten jakola bere ezpan bustietan.

Makurtu nintzan. Ez poz handiz, egia da. Etxe beteko egurra ikusten neban lepoan.



Eusebio Erkiaga, Jose Mari Arizmendi, Augustin Zubikarai. Arantzazuko bidean, 1950 inguruan.

—Nortzuk izango gara lankide?

—Ni (*Abeletxe* bera) zuzendari. Zu (ni) ordeko. Eta Erkiaga, Arizmendi eta Mendizabal, oraingo, idazkari, erredaktore.

Excelsius gerra aurrean ateraten zan kirol edo deportetako egunerokoaren lantokia izentau euskuen guretzako, Correo kalean, *Euzkadi* egunkariaren gainean; albistari horretako argazki, fitxa eta artxiboa nahi bestean erabilteko eskubidez.

Horrelaxe, gudari lez, militarri, atera genduan lehenengo zenbakia, eskatuta lez, Urtebarri egunean; nahi eta Gabonzahar eguna egozia izan ez egunkarietako langileentzat, batez be linotipietakoentzat,

ohitura dalako arratsalde erdirako lanak amaitzea, beste egunetan baino ordu batzuk lehenago, Gabonzahar egun hori etxetan igaro ahal izateko.

Guk ez genduan erabagi izenik. *Eguma* deitzezko esan eben goitik. Horretan ez genduan denporarik galdu ez berbalekurik euki.

Gure gainetik kontseju zaindari, aholkulari edo begirale lako bat egongo zala esan euskuen. Badakit tartean, beharbada buru, Andres Arzelus, *Luzear* izenordeagaz ezagun zan euskal idazle jatorra egoana. Gizon isil eta ona benetan, eta langilea. Bi-hirutan egon nintzan beragaz egunkari honeri buruz inoiz jokabideren bat hartzeko. Bestela, kontseju honeguz ez genduan hartu-emonik euki, eta hortik zeintzuk ziran be ez jakitea. Beharbada zintzo jokatu ez bagendu, ezagutuko ginan.

Buruko min gehiago euki genduan diruzainagaz. Gizon ona, baina diruari asko begirutzen ohitua. Merkatarri begiratu. Ez dinot hure irabaziei buruz. Honetan sekula ez genduan ezer eskatu. Bai, ordea, lanerako behar zan laguntzagaz, batez be egunkaria dotoretu eta zabaldu edo handitu nahirik agertzen genduzan eskarrietan.

Gu be, pizka bat kaskondu ginanean, hasi ginan egunkariaren mesedean preminak agertzen. Baina artazi erabiltzaile bizkorra zan. Beti ebagiten, mozten. Hori goietakoak gure alde egozala ikusten ebal. Bere zeregina ondasunak ondo zaintzea zala esaten ekian, eta gerra denporetan gengozala.

Gerran halan zala, bere gizontasun on eta jatorra eta zentzun handikoa alboan lagata, zelakoa izango ete zan bake-denporetan, estutasun-denporetan eta kompetentzi aldietan?

AGINDUA BARRIZTETAN

Urtebarri biharamonean agintarietako bat etorri zan ni ikustera. Ez ginan ezagutzen. Eta bera be beste bategana ni eroateko asmoz.

Ajuriagerraren entzutea zabal ebilen garai haretan. Bere zintzotasuna, fintasuna eta ugaritasuna aitatzen zituen behintzat bilbotarrek. Eta *Dollfus* deitzen eutsana be ezagutu neban, Austriako kantziler haren itxura eukala-ta.

Ez ginan zain egon. Heldu eta berehala atea zabaldu eta ekin custan:

–Zu zara Zubikarai? –igarri neban harek be, beste bilbotar askoren antzera zaharragotzat neunkala.

–Bat ni naz.

–Zu zara idazlea?

–Bat bai.

–Kolare zuri mirrin horrekin ez dirudizu itsasaldekoa. Aurtengo udan ez dogu eguzki asko hartu.

–Ez aurten eta ez bestetan.

–Ez dakit zergaitik, baina gizon mardul bat bilatuko nebalakotan nentorren. Kostaldeko izurde lodikote bat.

–Izurde baino mutxarri gehiago naz. Edo nahi badozu kolaio argal bat. Nazana hemen nago.

–Zorionak *Egunagaitik*.

–Ahaleginagaitik bada, eskerrak.

–Badakit ezbaian ibili zinala. Eta zer? Atera lei edo ez?

–Atzo agertu zan eta bihar be bai seguru.

–Atzo ahal zana eta bihar ahal leitekena, aurrerantzean be izan daitela.

–Ikusiko da.

–Agindua da. Entzun? A-gin-du-a da.

Baeukan horretan Ajuriagerrak gizon beretar eta berba gitxikoaren izena. Baina egin askoko zala be banekian. Ezkutuko lehendakaria, askorentzat.

–Agindu guztiek neurri bat dabe, –esan neutsan– gizonaren neurria.

–Gerratean aginduak gizonaren ahal izaterik ez dabe ezagutzen, preminaren neurria baino. Gerratean, gizonaren gain, herria dago.

–*Eguna* dala-ta problemarik?

–Hasi orduko besterik ez.

–Agertu. Ez lotsatu.

–Bat, ez txikia. Linotipista bakarra dago euskeraz dakiana irakolan, inprentan. Berak besteen erdi ateraten dau. Ez dauka besteen esku bizkorrik.

–Zirikatzen ikasi. Sartu piperra.

–Besterik ez?

–Barri eta albista guztiak erderaz datoz takigrafo, telegrafo, tele-tipo eta agentzietatik. Euskeratzen lan handia batzen da. Sail asko erabiltekotan lagunak behar doguz besterik ezcan horretarako, euskeratzeko.

–Gerran gagoz eta ahaleginak bidertu behar dira.

–Gchiago?

–Zorioneko gerra!

–Zorioneko ez. Zuretzat eta danontzat, zoritxarreko. Baina eutsi egin behar da. Guk ez dogu bilatu. Lepora etorri jakuz egurrak. Herria osatu eta sendotu behar dogu. Bizi-bizi agertu behar gara munduaren aurrean. Ekin aspertu barik. Geure berbetaz agertu gaitzean munduaren aurrean. Ekin, ekin gogor *Egunatik*.

Esaera laburretan, zehatz, artez eta zorrotz erakusten dau nahi dauena lehendakariak, alderdiko lehendakariak.

Prisaz igarten da.

-Ia beste baten eratsuago jarduteko aukera bilatzen dogun. Ekin, ekin...

Eta eskua estutu eta joan zan, lankide lez, gero arte esaten.
Cehiago ez neban ikusi aurrez aurre.

EGUN LARRI BAT

Correo kaleko etxe zaharretan bizi edo lan egiten ebenak bildurrak jota bizi ziran.

Hegazkinak etozala turuten edo sirenen bidez zabaltzen hasi orduko, hango jenteak tatarrez urteten eban euretatik, itsu-mustuan, tuneletara, etxe lodiagoen azpietara, etxe zaharren artean zakuz eta hondarrez gertuta egozan aterpeetara. Errefugioetara, hori zan sasoi-ko deitura. Ahal zan lekura. Fede oneko gerra haretan, fede txarreko iskilu eta armarik ez baegoan lez.

Nik, Mallonako eskilaretan gora, binan-binan, Begoña inguruko sagastietara jotzen neban. Ez dakit zergaitik, baina banakaren batek eukan harako joera. Hantxe, munaren baten etxunda edo zuloren baten sartuta, niretzako toki egoki eta ziurra bilatzen neban.

Urte barriko laugarren eguna zan. Eguerdi ostea. Besteetan lez haraxe joan nintzan. Heldu eta laster, han ikusten nituan gainean, bildur barik, baldar eta nasai, zazpi lehergarri-eroale, bonbarderu. Eraz eabilzan. Euren inguruan, gora eta behera, kazako bakarren bat. Horrelaxe ordu erdiren baten. Hango txistu eta bonba hotsek izerditan lagaten eben bat, bildurrez.

Amaitu eta barrero lanera joan nintzanean, hango eta hemengo barriak hartzen hasi ginan. Bai eta jentearen haserre bizi, itsu eta amorratua igarten be.

Barri ilun eta nahastuak, baina beti be kartzelak tokiko zirala. Zabaldu ahala, kartzela batzuetan heriotzak egin zirala jakin genduan, hegazkinak hildako errugabeak beste errugabe batzuen odolaz

aihurtu nahirik. Bidezko zan kalera urtetea, zerbait batu edo jakiten.

Jaurlearitzako zaingo edo gobernazinoen zaingoaren aurrean, balkoian ikusi neban bertako arduraduna, Monzon jauna, deadarka eta orroaka han batuta egoan herri-talde bateri hitz egiten. Bero, itsu, zital eta haserre ebilen jentea. Behin-behingoz horrelako gauzak amaitzeko neurriak hartu behar zituala herriak berak, ez beste inork, eskarmentu bat egiten ez bazan, barrero be gertatuko zirala-ta. Bildurgarria benetan giro ha.

Barrero lanera. Gero eta barrero itzalagoak, zabaldu ahala, heltzen ziran gure idazkaritzara. Afaritarako ordua eta besteak, igarri barik, aritu ezin genduan lanean joan jakuzan. Ez genkian zer esan eta zer adierazo.

Lau egun egunkaria agertzen hasi ginala; esate baterako, ez genkian eguneko barriak non batu be sustrai onez; oraindik ez geunkan inor izentauta kalerako hatako lagunik. Batari deitu edo besteari. Behean, *Euzkadin* be, agiri zabal eta ziur baten zain egozan. Nonbaitetik deitu eben, zuhur ibilteko esarekin.

Gau haretan, negu gordinen, ez zan igarten kaleko hotzik. Goizaldeko hirurak inguruan joan nintzan nire kuartelera, Eskolapioetara, lotarako asmotan. Ateak itxita. Deitu eta erantzun ez. Deitu barrero eta kontraseina eskatu barrutik. Sekula ez nintzan arduratu hola-ko gauzeekin. Jakin be ez nekian horrelakorik egoten zanik. Etxeko lez sartzen nintzan besteetan, edozein ordutan.

Jakinazo neutsen nor nintzan, nondik nentorren. Halako baten be atea zabaldu eben. Sekula ez eta, patioan, gudariak tinko, zutik, isil eta zurbil. Isiltasun horrek itzaldu egiten eban gehiago gaueko giroa.

Itandu neban zer gertatzen zan. Erantzun onik emoteko gogorik ez neban igarri. Larritasunak gainduta egozan.

Malatesta gudarosteko batzuk, herritar batzuekin batean, euren itsukeria eta indarrez neurriak hartzean, egoera txar eta lotsagarrian laga eben gobernuaren aginpidea eta ordura arteko gerra eroateko era eta jokabidea basatu eta kakaztu. Kartzela eta espetxe lez gertu-

tako komentuetan hilak kontetan ziharduen oraindik. Kaleetan be, ezin ukatu, hegazkinen ondorenak irakiten egozan. Etxe barruan beste burrukaren bat sortuko ete zan gertacra honeek bide?

Hurrengo egunean, eta bestean, eta gerokoetan be, gauza garbirik ez zan jakin.

Gobernuak laster hartu zituan erabagi barri eta zehatzak. Lehenengoz behintzat konfiantzazko zaintzaileekin ziurtatu nahi izan eban gilypetako zaindaritza.

Ahalegin eta borondate ona lehenengotatik ikusi zan. Baina gertaerak baltz eta laidozko ziran. Aidean igarri eta entzuten zan hori. Edonon. Bildur ziran danak erbestean gure kaltean haizetutako eguna izango zala egun hau.

Gero eta bildur handiagoa hartzen hasi nintzan hegazkinen etorrera eta agerbideei. Posporo askorik ez zan behar dana sutan lagateko. Halanda be, oraindik be, Begoña azpiko sagastian bakartadea bilatzen neban.

Egun honen ondoren, min berezi bat geratu jatan. Egunkari baten egon eta izparkari lez zehatzago agertzen ez jakitea. Bat-batean eta zazpiki lez jaiotako umearen antzera genbilzan, gurera etorri ezinik. Oraindik, esateko, ez genkian begiak zelan zabaldu be, argirik ikusiezinez. *Eguna* atera bai, egiten genduan, baina oraindik eratzeko, bihurri xamar, lanaren neurri eta erakunde onaren hutsunez. Hor bilatzen dot, izparkari lez, guretzako indulgentzia pizka bat.

BETIKO TXIKIKERIAK

Toki guztietan egoten dira akulariak. Euskal Herrian gehiago. Gure-gurea dogula esan lei akularitza.

Egunako zuzendaria, Abeletxe, bilbotar euskaltzaleen konfiantzazko gizona zan. Hobeto esateko, Alderdiko euskaltzaleena.

Ez zan agertzen egunez lanera. Bestelako lan bereziren batzuk, nonbait. Gerrako gauzak? Ez nintzan sekula arduratu eguna non botaten eban jakiten. Jakin ez eta, konpromisorik be ez.

Ia gauerdian agertzen zan *Egunan*, egunkaria amaitu edo osotu genduan jakin eta ikusten. *Euzko, Gudari* eta beste astekarietan lan egina zanez, irarkolakoak ezagun eta lagun zituan. Horrela, *regente*-agaz ondo konpontzen ginan orrien banaketak eta gertaerak egiteko.

Eguna hasi eta laster, gure idazkera zala-ta berotu eben adiskideren batzuk eta etorri zan alderdiko haserrea agertzen. Zorioneko idazkera! Guk ez genduan zehatz erooten Arana Goiriren idazteko erarik. Gehienez bai, baina ez bete-betea. Urteetan lan handia egin zan hortaz, baina herria alfabetatzeko egoala bagenkian. Eta erraztu nahi izan genduan. Hori ez euskuen parkatzen sabindar batzuek. Hortik etozan akuladak.

Egun baten zuzendaria egunez etorri zan eta, hain zuzen, haserre hori jakinazoten. Bigunki, baina...

Horretan, idazle bakotxaren gain lagaten genduala ardurea erantzun neutsan. Ezin geinkeala jardun idazlan guztiak idazkeraz aldatzen, batetik, idazkerako aburu asko hizkuntza begiz ondo ikusi eta hartu behar zirala-ta; eta bestetik, irakurle asko ez egozala orain-

dik horretara gertuta, batez be gipuzkoarrak. Sabinen bizkaierazko jokabide asko, gipuzkoarrentzat ez etozala egoki. Herria, herririk gehiena, ikasi barik igarten genduala.

Berak goikoen ardura eukan. Goikoen esanen bildur zan, bere adiskide on ziranen arretaz ebilen. Honetan, nik sabindar idazkeraren aurka nirekiko ezer ez eukita be, eta sarri idazkera horretan idatzita be, neure eretxia neukan eta neure bildurra; batez be *Eguna* euskal eguneroko bakarra izatean, zabal-zabala izan behar zanaren eretxiko nintzalako, batez be azalean. Indarrez sartzea nahitaezko bazan, garai txarrean gengoza esan neutsan, batez be indarrez beste gauza asko konpondu ezinik genbilzan garai haretan.

Erabili genduan autu-mautu txiki bat gai honetaz. Corrina pizza bat. Baina berak be ez eukan indar handirik, eta besterik ezean itxurak zaindu eta beteten ahalegintzeko ardurea emon euskun.

Idazkera kontu hau larri izan da eta izango da euskaldunontzat. Kanposantuetan be baketan ez lagateko eran.

BARRUKO HONDARRAK

Egun bat bakarra galdu genduan *Eguna* argitara ateraten. Ez gure erruz. Guk osoa gertuta laga genduan. Irarkolan gertatu zan atzerapenen bat.

Bestela, zintzo atera, garaiz atera eta goizetik zabaltzen zan. Gudaroste gehienetara bialtzen zan. Borondatezko saltzaileak be euki genduzan, kalez kale deika ibiliz, eta egiaz esan behar da, saltzaile horreek betiko ohiak baino gehiago saltzen ebela.

Lau zoro ginan lanca. Horixe, zoroak.

Ez genduan izparkari teknikarik ez eskolarik. Borondate ona bai, gehiegi. Hortik begiratu behar da gure lana. Teknika errurik ez dogu guk, zeregin hori bat-batean, gertaera barik, eta ikasitako gizon berezi barik bertan sartu ginduezalako.

Bagenduzan bene-benetako adiskideak, *Egunagaz* ia egunero arduratu eta gogoratzen ziranak: *Basarri* orduan ertzain mardula, ez zan aspertzen lanak bialtzen. Era berean Enbeita, *Uribitarte'tar Ibon* izenordeagaz ezaguna. Libre eukazan orduak gure artean igaroten atsegin izaten eban. Ez zan idazle ugaria, bai zehatza eta arduratsua. Aita Nikolas, karmeldarra, han agertuko zan ahal ebanetan. Idazlan luzcak beti. Errimea horretan. Zirikatzen neban pizka bat, baina ez egoan inor haren pazientziarik etengo ebanik. Egia asko esateko beti, gure Aita Xalokin.

Azken denporetan gugaz benetan arduratuta ebilen beste bat: Engracio Arantzadi, *Kizkitza*, *Ingartzi*. Maite eban *Eguna* ez eban luzaro ezagutu. Otsailaren hamabian hil zan. Gaixo igarten eban bere



Augustin Zubikarai, Eusebio Erkiaga, Ignazio Eizmendi *Basarri*. Elorrio 1990. *Egunakoei* omenaldia.

burua eta, esan be bai, bere azken egunak euskerari omen egiten igarero nahi zituala. Halantxe, ziur dakit, bere azken idazlana *Egunarako* egin ebala.

Etxeko genduzan baita Pantzezka Belaustegigoitia, Ertzetar Erramun eta beste hainbat. Bilbotar bonbinduna be bai, *Sir Archibald*, Sotatar Alejandro. Euskeratu neutsan inoiz lanen bat.

Asko hasi ziran herrietatik idazten, lan asko barriren barri egin eta konpondu behar izaten baziran be. Askotan telefonoz deitu balebe, izparrak emoteko, errazago izango zan guretzat, zer esan edo agertu nahi eben garbiago jakingo gendualako. Alfabetatzearen premina ikaragarria igarten genduan herrietako idazleetan.

Gerratean baegoan Bilbon barrientzako, albistentzako *censura*. Hain zuzen be, niri ezarri nahi izan eusten ardura hori. Gogoan daukat. Bilbora heldu eta laster, *Euzkadi* egunkarian *Guda otsak* saila

nire ardurapean hartu eta laster, hango zuzendari ordeko zan Bitor Ruiz Añibarrok deitu eta esan eustan:

—Kontxo! Zu zara Zubikarai? Badaukagu ba zuretzat zeregin bat gordeta.

Zer ete zan eta... zentsurako arduradun. Ha be adin aurreratu-ko bat nintzalakoan egoana zan. Bat-batean erantzun neutsan nik ez nekiala zentsura bateko arduradun izateko adina eta ez neukala nor-tasunik be, oraindik bizarra urten barri bat nintzalako, inogaz ziri eta kendu ibiltako.

Bitor, *La tragedia mínima*ko eguneroko idazle alaiak, okotzari eutsita esan be bai: Beste norbaitek idazten deutsuz zure lan *seri-xuak*?

Erderaz zentsurak lagaten ez zituan barri batzuk, guk jaramonik egin barik sartzen genduzan. Honetan manga zabala zan benetan nire orde zientau eben Abaitua itsas kapitai. Honetan *Euzkadiko* zuzendaria minduta gelditzen zan zentsurak zerbait etetean, eta deitu eta osorik emoten eustazan lanak, euskeraz osorik agertzeko-ta. Harek behintzat baeukan fedea gure egunkaria irakurten zanarena.

Beste trabak? Politika aldetik, batez be. Politikoak atera eta zabaltzea nahi eben.

Diru aldetik... Lehen be esana naz, bagenduzala oztupoak. Ez aurrez aurre. Baina irarkolan linotipistaren bat kentzen baoben, *Euzkadiren* mesedean, guregana etozan kalteak. Hortik estutzen hasi ginan. Horregaitik *Euzkadiren* irarkolatik urtetea lortu genduan eta *La Gaceta del Nortera* bialtzea. Han nasai eta crotsuago lan egiten zan, nahita bertan atera *Lan Deia* cuzko langileen egunkaria be. Eta Correo kaletik Gran Viara aldatu genduan idazkaritza, han, Indatzu etxe handi eta atseginean toki argitsu eta haizetsuago baten lan egitera.

Laguntzaile barri bat ekarri euskuen. Baina hamar egun barru aspertu zan, lan astuna zala eta bere ikastaroetan kalte asko cukiko ebala jarraitzekotan esanez. Abade ikasle zan Begoñan.

Horra, toki eta irarkolak aldatuta be, lanean itota gu. Egunen baten benetan bildurtu be egin ginan osotzera helduko ez ginalako-

an. Eta Erkiaga eta ni, biok, alkarregaz haserratuta, haretara lanik ezin egin eitekeala-ta, burua makur joan ginan afaritara, kuartelera. Eta gure garrazkeriak gogortzeko ez euskuen afaririk emon.

Bilbon, neskatilak, gerratean behintzat, Gran Via kalean hamarrak ingurura arte kale bete-betean ibiltzen ziran eta kanpaia jota lez, hamarrak igarri edo entzutean, danak batera etxeratzen ziran, kalea zabal eta huts laga ondoren.

Gu, neskatilei lagunduta lez, hamar eta erdietan joan ginan kuartelera, afaltzeko ordua zalakoan. Itxura guztiak gure aurka genduzan. Guk bakarrik genkian gure barrukoa, gure artekoa. Alperrik ahalegindu, eta esanak esan, ez genduan zuritu sukaldariaren laguntzailea afaria emotera. Bata eta bestea ondarrutarrak ziran. Zeinek sinistu eragin hareei, lanak gainduta, lanez itota, ordua zaintzeko ezaupiderik be ez genduala hartu?

Beste egunetan lez hamaiketan lanean gengoan barriro, gosca eta nekea lagun genduzala, alkarri hitzik egin barik. Hamabiak aldean zuzendaria etorri zanean, eta dana gertu egoan itandu, gure baiezkoagaz batera garrazkeria be ezagutuko eban. Urteera ikusi arte ez ginan nasai gelditu.

Egun haretan, Erkiagak eta biok, ez genduan adore askorik lotarra eroan.

ERREPORTAJEAK EGITEN IKASTEN

Igandeak kenduta, eta eurretan be ez egun osoz, ez genduan betarik eta tarterik une batzuk gure kontura hartzeko. Barrero be esan behar dot lanak etenda, itota genbilzala.

Mendietan zeregin handiagoetan ebilzan gudarien eskaintza alde batera lagata, guk be ahalegin egiten genduan gure zereginetan, eta bakezko denporetan egingo ez genduan bestean egin be.

Inork jakin barik, mesedez hasi eta mesedez amaitu, behingo izango zalakoan, bost hilebeteko igande guztietan, behartasunik ez neukala, nire gain hartu neban astelehenetako egunkari bakarrean, *La hoja del lunesen*, gerrako kronika egitea.

Hori egin behar ebanak Bedian cukan bere sendia. *Euzkadin* lan egiten eban astean. Ni bakarrik nengoan Bilbon. Berak emazte eta etxeokak ikusteko premina eta garra agertzen eban. Konplejoren bat eukan, eta gaintzeko, espiritu barrien egarriz ibiltzen zan bere kaltean.

Behin, ez dakit zer eukala-ta, mesedea eskatu, hurrengoan barriztu eta gero behartasun lez nire gainera leporatu neban zeregin hori. Eskerra? Badakit beste munduan esker isileko lagun on bat daukadala.

Ohituraz ez neban Bilbotik urteten. Honetan sator agertu nintzan. Gerrako idazkaritza nagusian neukan lagun batek, ha be nire antzera ames asko barik, igande arratsalde guztietan eukiten eban han gelditu beharra. Eta beragaz kontuak esatera joan, arratsaldea igarotera joan... eta bera konturatu barik hartzen nituan hainbat

gorabeheraren azterren eta zertzeladak. Ez ekian berak nik asteleheneko egunkarian ezer egiten nebanik. Horrela, gudarosteetako eta mendi eta guda lekuetako agiriak hartu ahala, nire aurrean biok jakiteko eran irakurten zituan. Horrela edozenbat zertzelada jakin ahal izaten nituan; mendiz mendi eta ingururik inguru ibilita baino zehatzago jakin eguneko gorabeherak.

Kronika idatzi eta izparringiaren ateko buzoian lagaten neban nire lantxua.

Astelehenetan, egunkari horretako zuzendariagaz batzen nintzan, agintarien idazkaritzaatik igarotetan eguneko barriak batzen, eta behin baino sarriagotan aitatzen eustan kronika horren barri, bera igarrita egoalako ez zala Orueta bere egilea. Nik ez neban lagunik salatu nahi izan eta berari baketan laga eta igandea etxean igaroten lagatearren, buzoira jaurtitzen jarraitu neban nire lan hori.

Niretzat erraza izaten zan hori. Eta astegunetan, etxeok minez eta batzuetan oker samar ikusten neban gizonari etxeok bake eta garbitasuna eskintzen neutsazalakoan, pozik egin neban hori.

Ez dakit bera non azkendu zan, Gerra amaitu orduko etsipenaren mende jausita ikusten neban. Eta Bilboko ardaoa, nahita gerrateko mirari lez sekula falta ez, ez zan hain zuzen be gizonari espiritua barriztu eta josteko adinako.

Egunako erreportajeak, gehienetan, beste egunerokoetako lagunek esan eta kontuak izaten ziran. Ez norberak ikusiak, entzunak. Besteakandik jakin eta hartuak.

Garretan gengoan akats hori zuzentzeko, ikusi ahala, bizi ahala guk geuk ikusitako barriak agertzeko. Igarten genduan irakurleak erreportaje zale zirala, jakin-min biziz. Igarten genduan irakurleak, agentzietako barri hotzak barik, geure artean sortu, hazi, biribildu eta landutako irakurgaiak nahi zituala. Baina ezin genduan, ezin ginan horretara heldu. Nahiko egin genduan bost lagunek, gehienetan laurek eta behin baino sarriagotan hirurek bakarrik hango gorabehera guztia egitea.

ZIRIKALARIAK

Jose Mari Cazaña benetan mutil jatorra zan, argia, bizkorra, lagun arterako gitxi lakoa. Orduko aldizkari abertzale guztietan sartuta ebilen. Horretarako gaitasun ona cukan. Jakina, berez etorkon.

Behin ezagutu neban haserre, baina haserre eta guzti be barre egiten eban. Ez ekian euskerarik. Aldizkari baten sartu eban *entrefilet* luze bat, Alderdiko agintarien gogoko izan ez zana. Bere esanetan, puritanoen ortodoxia horitu ebana. Guk santuei mun egiten deutesgun antzera, premina egon ezkeru kosk egiten be ez ginateteke atzean geldituko, edo antzerako zerbaite ipini eban, hitz gogorrekin, ezkertar batzuei nortasun bat eta izate berezi bat genduzala adierazoteko.

Gauetako kontu laguna genduan. Sarri etorten zan gure idazkarrizara, *Egunara*, gugaz arduratzen eta denpora pasetan.

Etorri orduko telefonoa hartu eta...

–*Begoñako Ama Birjina* da? (Izen horretako organu-etxe bat egoan garai haretan).

–Joan zaitetz deabruekin! –erantzuten eutsen garratz.

Eta Joxe Marik, bigun eta leun:

–San Josegaz haserratu zara gaur, ala?

Hori zan bere hobby. Umore txarrez kalcen ikusi ebanen bateri, sua emon, zirikatu, haren erantzuna hartu eta bere kautan barrezka eta adurretan ibilteko, hurrengo egun hobeagoan besteari adar gehiago jo ahal izateko.

Cauero eukiten eban norbait aukeratuta horretarako. Ezin izaten zan lotaratu horrelako atsedenaldirik hartu barik.

Inoiz etorten zan. Telefonoa hartu... eta ez, ez. Oraindik goiz da. Cerotxuago. Eta goizaldean une egokiago bat aukeratzen eban. Min gehiago edo haserrealdi gehiago sortu eragiteko eran, nahita jolasez.

Horrelaxe goizeko ordu bat, edo ordu bietan edo aurrerago.

–Gaur Perikok daukan erreka-haizeagaz, zelako erantzuna hartuko ete dot?

Eta azken minutuetan deitzen eban, bestea estuen ibiliko zan unean:

–*Euzkadi* egunkaria?

–Bai. Zer?

–Eskela bat.

–Ordu onean! Lehenago ezin?

–Ia ba, gizona oraintxe hil da-ta...

–Arin ba, arin, bizkor.

Eta Joxe Mari hasten zan lau izen eta abizen luze-luzeak eta gaxak emoten.

–Egon citekean bihar arte, egunez hiltzeko.

–Danok be nahiago izango genduan.

–Ordua da ba, jope!

Joxe Mari berean. Abizen ondoren, bere handiki izenak eta ogibide deiturak. Hango eta besteko injinerua, ikastetxe bateko irakasle, industri batzuetako aholkulari, hango jaun eta hemengo ardura-dun, halako eta bestelako kofradiako lagun eta dominadun...

Periko, segurutik, izarrak ikusten.

Gero, elcizako onespen eta laguntzak, hango eta hemengo Ama Birjinaren kapape edo mantupean hila, santuen croapen eta birtutez.

Periko haserritzen:

–Ordua igaro da eta nik ezin nei eskela hau hartu.

–Hartzen hasi ez zara ba? Esan *regenteari* eskela bat daukazula eta tokia gordeteko. Mesedez, hiletak gaur egingo dira-ta.

Ondoren, emaztea, hamar-hamabi seme-alaba, beste hainbeste anai-arreba, danak ezkonduak; ezkontideen izenak, senideenak, batzuk titulu eta guzti.

–Ezin lei, ezin lei, zarratu egin behar da egunerokoaren konponketa. Ezin lei.

–Baina gizon... mesede hori ezin zinei ukatu. Lehenago esan bazendu, beste egunkariren bat bilatuko neban. Orain berandu da harako. Ordaindu barik balitz be!

Eta ekin barriro, parroki bateko mezak eta besteko eleizkizunak aitatzen, beste sei-zortzi komentuen erreskada luze bat izentauaz, ordu ezbardineko mezakin.

Perikok gero eta haserreago:

–Infernuan bizarrak erreta daukazanik esaterik ez dozu nahi, behin horretara ezkerro?

–Gizon, mesedez, hildako bategaitik ezin zinei horretara jardun. Non ikusten da hori egunkari katoliku baten? Non da edozeinek be gordeten dakian lotsa? Zuzendariak jakingo dau hori. Ez dago bera hor? Jarteko, mesedez.

Joxe Marik ez eutsan Perikori hitz bakar bat egiten lagaten. Igarten eban ha gero eta makal eta bigunago.

–Benetan be, orduak aurrera doaz eta batek ez daki zer esaten daben be. Parkatu.

Baekian Joxe Marik Perikori zuzendariagana joatea aitatu ezkerro, tantu asko irabazita gelditzen zala. Orduan, bestea mendean eukalako, luzeago jarraitzen eban.

Eta azkenean, bateko eta besteko gotzainen onespén eta parkamenak aiatatu ondoren, amaitutzat igarten ebanean, Perikoren arnasea be hartu egiten zan telefonotik, *Goian bego* bat zizpuru lez entzuten zala.

–Irakurri zinei, mesedez, inor laga ete dogun?

Perikok marmarka lez irakurten eutsan eskela guztia, inork be ez ulertzeko eran.

Amaituta gero, Joxe Marik:

–Egon, ohar bat falta da.

–Oraindik be?

–Bai, garrantzi handiko da-ta. Jarri: Oharra: hobiratzea, enterroa, zibila izango da.

Hori esan orduko, telefonoa laga eta eskilaretan behera arin joaten zan, beheko etxera, *Euzkadira*, Perikoren marmar, larrialdi, zere-

san, izerdi, buruhauste eta erretolikkak entzutera eta ezer ez baekian lez, gehiago sutu eta berotzera.

Jakina, azken ohar hori hartu ondoren Periko zuzendariarengana joaten zan eskela hartu eta azkenengoz esan eutsela ohar zibil hori.

Eta don Pantaleonek, igarrita, zoli-zoli, zaharraren errukiz eta pekatariaren usaina igarriz:

–Periko, badakizu hurrengoan holakoari zer esan? Hildakoari bizarrak erreko al jakoz eta zuri esneak antzutu, aker hori. Eta telefonoa eskegi zarata hotsean, akerraren adarraren zarata balitz legez.

Ezitan etorten zan barriro, Joxe Mari, eguneroko *relax* ha hartu ondoren, biharamonerako lanean arduratzen.

GERRATEKO ARRAUTZAK

Bilbon, estutu ahala, gerra luzatu ahala, janari premia gehiago igarten hasi ginan.

Ardaorik ez zan igarteko adina falta. Hori Bilboko miraria. Norbaitek ikasi eban ardaoaren hautsa sortzen. Ikusi behar zan zelako hauts-ondoa gelditzen zan basoetan. Baina ardaozeak, halan edo holan, konpontzen ziran.

Etxekoandren buruko minak bestelako ziran. Garbantzua eta arroza agertzen ziran. Beste zerbaitez aldatzeko kontuak. Pasaiake makailaoek be hainbat mesede egin eben. Baina gerra luzatzen eta janariak gixitzen etozan.

Guk, norabaitera urten edo joaten ginanetan, bageunkazan zerbaite emoten euskuen baserriak. Bezero ginan. Nire ardura arrautzak bilatzea izaten zan.

Certatzen ginan bakotxean dozena bat erosten genduan. Askotan, txitak aterateko epeltzen laga barik, egun berean jan. Gerrateko arrautzak!

Hamabost urte geroago, sor eta makal nenbilen aldi baten, Bilbon gertatu nintzan. Ez nenbilen alai, minei eutsi ezinik, eta mediku bategana joatea pentsau neban.

Garbi joatea nahi izaten da holakoetan, eta izerdi eta likin, atzeratu nintzan bat-batean pentsau neban ikustaldi hori egitetik. Gero txuago, begien ninietatik begiratzen daben mediku ospetsu baten etxe aurretik igaro nintzan ustekabeen, eta igarri nebanean, adoretu nintzan eta itu-itsuan bertan sartu.

Atea zabaldu orduko, eukaliptoaren lurrina igarten eta arnasten hasi nintzan. Hamaika ortuari jan beharko dot aurrerantzean, erdi barrezka lez esan neban neuretzako. Halanda be, barrizale nazalako, osagileak ikusi orduko, beraren erabagia emon orduko, horretara egin eta gertu nintzan.

Begietatik begira hasi jatanean, konfiantzaz jardun genduan, batek esan eta besteak erantzun. Medikua irribarre eta bigunkeriek nasaitasun haizea, arnas luzea emoten deutse gaixoari.

Bata esan eta bestea jakin nahi, baina beti begitik begira minutu batzuk igaro ondoren, bere erabagia edo eretxia agertzen hasi zan:

-Zuk, sasoi baten, arrautza larregi jan zenduan.

Lehenengotan ez nintzan gogoratzen.

-Bai, bai, agirian dago eta gogoratu behar zinateke...

-Kontxo, -esan neutsan- adiskide bat sarri ibiltzen jat adarra jotzen gai honezaz, baten Zornotzako Kortederran, eta beste baten Mungian ia dozena erdi arrautza jaten ikusi ninduala-ta. Gerrateko preminetan aukera hori cuki neban egun batzuetan. Danetara be zenbat egun izango ziran ba? Eta izanak izan, nire gerrateko pekatu hori oraindik garbitzeko ete dago ba?

Bizitako txikieria honek agertzen hasi nintzanean, eureka! Esan eban pozez, harro, nire minen eta nahigabeen iturria bilatu eban konfiantzaz.

-Holako gauzak sortu egiten dabe bat eta lortu. Gaztetan ez dira ondorenak igarten. Geroago pastilla eta botikekin arindu nahi izaten dira. Baina erremedio hori egunetarako bakarrik izaten da. Barruan gelditzen da agarra. Hegaletan gelditzen da zikina, zokilduta. Garbitu eta atera ezik, alperrik da.

Osabiderako bere aburua agertu eustan. Bederatzi egunetan, ohetik urten barik, bero-berotan, izerditan, izara eta oihalak busti ahala kendu eta aldatzen; gosearen bildur barik, buru galtze eta zorbioaren makaltasunez arduratu barik, gogo onez egon behar nintzala. Eta maminen sakonak garbitu ondoren, gantzak bigundu eta urtu eragin ondoren, bizi barria, gorputz arinduaren esnatze eta ernete barria hasteko asmotan, bildurtu barik, jarraitu behar nebala.

Egia esan, ez nintzan hasi be egin osabide hori beteten. Etxera etorri eta zerbait esaten ekin orduko, irri destainatsuak igarri nituan etxekoen artean. Orduan gogoratu nintzan, osagileak, bere aginduetan, baldintza hauxe ipinten ebalu: "Nire osabide hau hasi eta bete ahal izateko etxean haserre edo zeresanak sortuko badira, hobe ez hasi".

Gerrateko pekatutik ez bedi haserririk etorri eta infernurik sortu, esan neban niretzako. Bete bake amesetz eta egarriz ibili eta hain zuzen be, nekez amaitu genduan kaleko gerraren ondorenetik etxeko nahaste eta haserre baletoz... Etsi-etsian bertan behera laga neban dana.

Gaur be, segurutik, gerrateko arrautzen ondorenak barruan darabildaz.

Sei bat urte geroago, Santanderren nenbilela, hiru lagun genbilzan gure zereginetan. Merkadu inguruan bedar miragileen saltzaile bat ikusi genduan eta hain zuzen be, hirurok hasi ginan ikusmin eta jakin-minez. Bizitzako min, nahigabe eta sortasunak arindu nahirik. Horrela, odola mehetzeko bedarrak ikusi, kirioak baretzekoak aztertu, ur zikinak garbitzekoak eskuratu eta abar, olgeta-benetan genbilzala, hango sorgingo deiturako baten aitamenetan hasi jakun gizona, mirariak be egiten zituala erakutsi eta ziurtau nahirik. Arduratu ginan gu be. Zer dinoan ikusten joango?

Alkar berotu eta hain zuzen be hirurok joan ginan. Beteen bete eukan bere txaleteko egontokia. Goizeko seiretarako hara joanak be han ikusi genduzan. Inguru eta urrunetatik joanak, egunak aurretik txanda eskatu eta beste bertakoen batek hartuak. Nik ez dakit zelan, gure arteko batek lortu eban barrurako izenak hartu eragitea, betarik gertatzen bazan.

Eguerdiko hiruretan be han gengoan, goseak arrakalatuta, baina ikustaldi hori lortu eta egiteko garrez.

Gure txanda heldu zanean, batera sartu ginan gizezkoak. Hirugarrena emakumea zan.

Nire laguna hurreratu zan lehenengo. Han ez egoan ezer, mahai zuri bat besterik. Beste guztia, horma zuri eta terrazozko beheka, ez bera garbia.

Zerbait ikusi behar bazan, begietatik egiten zan. Halantxe, lagunari begiratu ondoren, esan eutsan:

-Zuk, azalaren azpia, bigarren azala, dirdiratsu daukazu. Itsasoa gasoila ur gainean, azalean gelditzen danean lakoxe koipe kolorez. Umoreaz, erreumakin sortu eta astuntzen jatzu eskumako belauna, baina zuk, noizbait, eta ez behin bakarrik, erabili izan dozu igurtzietarako halako sasi lilimenturen bat.

Lehenengotan ezezkoan ebilen nire laguna. Gero...

-Bai, halantxe da - urten eta esan eban- orain urte batzuk petrolioagaz igurzten neban belauna, ona zala esan eustelako.

Gero niri begira jarri zan. Hain zuzen be, zorioneko arrautzen ondorenak aitatu harek be!

Zer jaten ete eben oilandak gerratean, arrautzen ondorenak hainbeste urtetan euren zuringo eta gorringoen arrautzak galdu barik norbere gorputzean igarteko?

DURANGON HILOBIEN BARRUAN

Behin, adiskide on neban *Euzkadiko* reporter trebe eta jator zan Andima Oruetak, telefonoz deitu eustan:

–Nahi dozu Durangora joan?

–Zertan?

–Oraindik ez da zabaldu herrian, baina negargarri da gaur Durango. Esan, bazatoz? Ez unerik galdu. Lehenbailehen.

Ez nintzan ezbaietan galdu. Bete-betea crantzun neutsan:

–Goazen.

Kexu eta urduri urten ginan Bilbotik. Bidean, bestetan ez lako larritasuna igarten genduan. Zornotzatik aurrera, automobilen joan-etorri arinak, urduriak, nabarmenak. Egunero ohi ez diran ardurak eukiezala igarri genduan. Geratzen ginduezan. Begiratu. Gure agiriak erakutsi arren, batzuk ez eben nahi izaten eskubiderik hartu. Izpar-kari ginala... eta zer? Inori ez lagateko agindua eukiela. Eurei itandu arren, askok ez ekien zergaitik. Erdizkako barriak bakarrik. Txori handiak, arrano baltzak ibili zirala hegan goizean goiz Durango gainean eta bat-batean sua, triskantza, negarra, odola eta heriotza zabaldu ebela Durango eta inguruetan. Gauza garbirik ez ekien, baina hori bai. Zerbait negargarri gertatua zala.

Durangora hurreratuaz batera gero eta oztopo gehiago.

Heldu ginan nekez. Sartu ginanean jentea erdi zoro ebilen. Gatx baretzen dira odolak holakoetan eta edozelan be garratz igarten genduzan herritarrak, haserre eta larri gudariak eta gainerakoak.

Itzaltasuna, larritasuna, negarra ikusten zan edonon. Traba ugari kaleetan, goitik behera jausitako etxetako hondakinez. Arriskuan geratu ziranetako tresnak aldatzen igarten asko.

Gure zeregina, lehenengotatik, gaixotegietara sartzea izan zan, hango barriak jakin eta handik igarteko zenbatekoa zan goiz haretako triskantza.

Alkarren gainean ebilzan danak. Nahastuta. Erdi zoratuta. Uste bako gertacrak zurbildu zituen. Baegoan lanerako borondatea. Osa-gile eta laguntzaile, gudari eta neskatila, eta gogo oneko herritar ugari, erleak lez ikusten ziran lanean. Izenak hartzen ibili ginan. Gure paperak beteten.

Negargarriena ikusteko gengoan. Etxe jauste eta hondamendiak baino itzalagoa.

Herririk gehienetan lez, Durango bazter bateko gainetxuan dago kanposantua. Bertara zuzendu ginan. Biok bakarrik. Eguneko gorabeheren zinaldari, testigu mutuak han egozala jakin gendualako.

Nik ez dakit hara joatea lagaten eben edo ez. Han ez ebilen behintzat gaixotegi eta kaleetan adina jente. Hango zeregina egin zala esan eitekean, baina bertan, kanposantuan, han egozan hilak oraindik bero, bizi-bizi.

Lurraren gainean, erreskadan, oraindik hilen bake barik, bonben eta metraileen suak eta beroak eragindako bat-bateko igikada eurretan igarten zala, han egozan hainbeste gorputz, luze edo oker, putzituta asko, odolez beteta, haragiak etenda, zatiak dingilizka. Baegoan han erreportaje negargarri bat egiteko mamina.

Bertan gengoala, barrero turrinak hasi ziran inguru guztiak ikaratzen. Hegazkinak agertu ziran urrunetan, gero eta hurrerago. Gain-gainean. Goizeko gertaeraren ondoren, larri eta estuago eta itogarriago zan curak ikustea.

Zurbildu ginan hain hur gainean ikustean. Iges egiten hasi ginan, nora jo ez genkiala. Eta bat-batez, hantxe, hobi baten harria altzau, sepultura baten harri astuna zabaldu, eta nik ez dakit zein santu edo deabruren hazurren ondoan sartu nintzan ezkutau; eta barrutik, ahal

zan bestean, gaineko harria bere lekuan ipinten ahalegindu nintzan, ni barruan estalduta geldituz.

Nahitaez heriotzaren lagun egin nintzan iluntasun haretan, anaitasun haretan eta giro haretan.

Ni, bizirik, hilobi barruan nengoan. Besteak, hilda, lur gainean, azalean. Hori aldea, kontrastea!

Nire alboan hazurrak eta batek badaki zer. Zedenak janda edo harrak arrakalatuta, nire bultzada baten, jaka zahar bat haustu eta eten zan. Ez neban ezer ikusten, baina igarri bai.

Gainean, oraindik odola dariola, hilak.

Ordu lauren bat egin ondoren –orduaren minutu guztiak ez dira bardinak egoera guztietan–, arriskua aldendu ete zan begira urten nebanean, minez ikusi neban argia, begiak zabaldu ezinez.

Nik ez dakit bizitzan une bateko gertaerak, ustebako jazoerak, ze lokarri hartu edo emoten daben gerorako, norbere bizitzako beste ohi diran gauzekin, baina nire bostean sarri abesten neban geroago eta adiskideak irri egiten eusten horregaitik, erderazko abesti czagun bat: “Sepulturero no cantes, no cantes sepulturero...”.

Etxe askotan, egun honetan, ez eben egutegiko orririk aldatu. Epail, martiko 31garrena zan, eta egun gogoangarri lez betiko geratu.

ORDUKO GURE EGOERA

Durangotik baino lehenago, Asturiasetik jo ginduezan haize mintsuen bolada eta brastadek. Hango zotina igarri genduan, hango bultzadak zirikatu.

Celdi dagoan gudarosteak bere guda giroa galdu egiten dauela esaten da, bere *moral*a makaldu. Gerran sartu eta aurrea zulotu eta mugatuta gelditzen dan herria, ahaztu egiten dala gerra giroarekin. Era honetan gengoan Gabon aurretik.

Gure muga, gure frentea, hiru alderditan agertu eta bereiztu geinke:

Arabako muga: Aramaio, Mekoleta, Ubidea eta Gorbeia zehar.

Gipuzko-Bizkaiko muga: Ondarroan itsas ondoan hasi eta Eibar, Elgetatik zehar Aramaio ingurura.

Gaztelako muga: Balmaseda, Artziniega, Urduña eta Baranbio zehar.

Euretako agintarien tokiak: Ubidea, Amorebieta eta Amurrión; muga bakotxa izentau dogun eran.

Gudalburu nagusiak: Vidal koronela; Aizpuru teniente koronela eta Irazabal koronela, era bardinean.

Hiruron buru, Aranbarri komandantea. Honen kuartela, Arratian, Igorren. Gure aldetik, sasoi haretan, 68 batailoi batzen ziran, eta beste sei edo zazpi osotzen. Batailoi ohiak, infanterikoak. Bereziak besteak.

Batailoien izenek laster salatzen eben bakotxean ze pentsacra edo alderditako gazteak, gehienbat, curetan alkartu eta batzen ziran:

Abellaneda, Amaiur, Araba, Aralar, Arana Goiri, Ariztimuño, Bolibar, Gordexola, Ibaizabal, Itxarkundia, Itxasalde, Kirikiño, Larrazabal, Lenago il, Loiola, Martíartu, Mungia, Muñatones, Padura, Rebelión de la sal, San Andres, Saseta, Sukarrieta, Zabalbide.

Beste talde bat: ANV 1, 2 eta 3. (azken hau gertuten).

Euren alboan, eretxien babesean alkartuta batzuetan, toki eta lurraldetako laguntasunen ezaupidean bestetan, edota gudarosteak sortu ahala bertara sartuta edo inguruetako herrialdeetan sortu eta bertara bialduak: *Amategi, Asturias, Azaña Gipuzcoa* (gertuten), *Azaña Vizcaya, Baracaldo, Bakunin, Capitan Casero, CNT, Carro, Castilla, Cultura y Deporte, Disciplinario, Dragones, Durruti, Galan, Gonzalo Peña, Iglesias, Jaurés, Liebnect, Luxenburgo (Rosa), MAOC, Madrid, Malatesta, Marx, Mateos, Meabe 1 eta 2, Mexico, Montaña 1, 2 eta 3, Octubre, Perezagua, Prieto, Puente, Rusia, Torrijos, UGT, UNP, Salsamendi, Wanzetti.*

Gertuten izentau doguzanen gain, *Lenin* eta *Zergaitik* ez be sartu behar dira. Hemengo barealdian Asturiasera jo behar izan eben batzuk hangoei laguntzen, hangoak indartzen, Oviedo askatzen. Hara joan ziran *Amaiur, Euzko Indarra* eta *Ariztimuñoren* zati bat. Euskal batailoi bakotxa 750 lagunez osotzen zan.

Oroitza iluna, negarra zabaldu zan handik. Oviedok guretarren odola hartu eban. Han hil zan Saseta gudalburu edo komandante jatorra. Donostia galdu ezkeru euskaldun askorentzat hemengo gerra-mutilik ikasienetakoa.

Han hil zan Joxe Mari Korta, martiaren 17an, euskal kapilauen buru zana. Bilbon, kaleetan zehar egin zan hiletan, askok ez eben irunsten abade bat hainbestean zergaitik goratu behar zan. Baina euskal gobernuak baeukan munduz mundu bere erakunde jatorra zabaldu nahia eta beharra. Baeukan eleizaldeetan, hainbeste tokititik gaitzetsi eta ardi galdutzat errukitzen eben eleizaldeetan bere gogoaren zindotasuma erakutsi beharra. Baeukan euskal mutilak euren sinismenean ondo lagunduta ebilzan agiria emon beharra. Hogeta hamabi urte eukazan, hil zanean, bilbotar abade langile eta jakintsu honek.

Asturiasetik trenez etorri ziran gure mutilak. Hilaren 27an Bilbora heldu. Ordurako barri garratz eta zemai garratzak hartzen hasiak ginan, zurrumurru kezkatia. Mola jenerala deika ebilen. Iparaldeko gerra, gure lurraldekoa, bat-batean amaitzeko erabagia hartuta eukala. Heriotza edo erailketen errudun ez ziranekin eta bertan behera armak lagaten zituenekin, bihotz zabal izango zala, euren bizitzak eta ondasunak hainbestean eta osorik zaindu eta lagako ziralak. Baina berehala makurtu ezik Bizkai guztia erre eta zuzituko ebala, honetarako indarra baeukalako.

Geroago jakingo zan Franco berberak marti honetako 21ean hartu ebala herrialde honen aurkako joera onartzeko erabagia.

Gasteizetik iges eginda agertzen ziran banakak larri etozan: hegazkin ugari batu zala bertan. Hirurogetak zenbatu zituela bertan eta inguruetan be gehiago egozala. Ehun eta berrogei hegazkin inguru egongo zirala gure aurka jasoteko gertu, Gasteiz eta beste zelaie-tan.

Horrelako barriak hartu eta ohartzen genbilzala, martiaren 31ko Otxandio eta inguruetako eta Durangoko ekinaldia, ordura arte baketsu egozan gure gudarosteentzat odoletan bustitako eupada edo dei larria zan.

Durango hasiera zan.

GERNIKA

Ez neban nire begiekin ikusi Gernikako gertaerarik.

Durangorako deitu eustan lez, Andima Orueta berbera etorri jatan:

–Gertu arin. Dana lagata be goazen Gernikara. Hamar minutu barru etorriko da kotxea. Inoiz ikusi ez dozun lako hondamendi bat ikusteko prest egon zaitez.

Gertatu nintzan. Ordubete igaro eta laguna falta. Bere egunkari-tik esan eusten biontzako baimen berezi baten bila joan zala, bestela ezin joan ahal izango ginala-ta.

Berak be deitu eustan gerotxuago. Ez egoala baimenik, bete-betean ukatzen zirala horretara, baina joan behar ginala, baimen barik be, eta egunerokoaren gorabeherak behar lez crabagita lagateko, etorten ez baginan be.

–Etorri ez?

–Hango nahaste eta hondamendian galduta geratzea, kopatuta geratzea, ez ei litzateke harrigarri.

Honelako giroan gengoan.

Urteteko prest gengoazala, kotxea etorri zala deitu euskuenean, bere zuzendariak, don Pantaleonek, deitu eutsan eta Gernikara joatea galarazo. Haserratu zan. Ez egoan bera holako gertaera bat ikusi barik lagateko. Zuzendaria tinko berean. Inork ez daki han nondik ibili behar dan, inork ez daki muga non dagoan han, inork ez daki zein dan gure lurra eta arerioa non dagoan be. Zoratuta dabil jentea. Tatarrez. Etxeak sutan, bideak etenda. Jenteak urten nahi dau eta ez

daki zelan. Inork ez daki garbi be zer gertatu dan eta gaur bertan be, geroago, zer gertatu leiteken.

Berak hitz egin ahala, telefonoz be deitzen eutsien agintariek, lagunek eta horretarako eukazan ordezkariak, curak entzun edo jakiten ebena adierazoten.

–Gizon asko galdu dirala dinoe. Milak. Alkar arteko batasuna be galdu dabe gudarosteek. Kopo handien bat egin dabe. Gelditu zaitez eta agertuko da norbait eta zerbait jakin ahal izango dogu. Garriz be hara joana da... eta ez dakigu nondik dabilen. Bera eta beragaz joan diranak harrapau ete dituen be...

Gero eta barri bildurtiagoak. Hondamendi baten arrada dantat. Baten esanak handiak ziralakoan, bestea etorri eta haren bat eta erdi.

Cauerago eta ilunago.

–Gernika gorri-gorri sutan. Urrundik igarten da hango suaren argia. Ez dakigu zutik zer geratu dan... –barriro beste dei batek.

Hango barriak, gehienak, gorriak. Suzkoak. Bilbokoak gero eta baltzago hondamendi haren pisuan. Itotasuna. Gernikako gorabehera zala-ta idatzi genduana, batek edo besteak esandakoa zan.

Hurrengo goizean, eguna orduko, barriro hasi ginan harako asmotan. Gatz zan hara joatea. Ez genduan tarterik bilatu Zornotza aldetik. Igarten genduan bertan ziharduenei kalte egiten ginoiazala. Ezin ibili bideetan. Larrabetzura jo eta okerrago.

Bidean, batari itandu eta besteari entzun, danetara be hondamendi lorra bakarrik hartzen genduan. Gudari batek haserre erantzun euskun, hangoa ikusi eta plumea baino beste armarik ez ete genduan. Hobe genduala gobernuia lotsatu, hegazkinik bialtzen ez ebalako.

Beste askok, ezer itandu orduko, hitza be, berbea be, galdu egiten eben, eurak nahi ezta be, moteldu edo mututu, minez, bizi ebena agertu ezinez.

NORA ZOAZ AMONA, NORA?

Oraindik tranbiak ebilzan Bilbon Arcatzatik zehar Gran Viara. Tranbia zaratatsu, zikin eta zatarrak. Denporen otscinak. Ez ziran bestelako kotxe asko ikusten. *Errekisatuta* beste zereginetan ibili behar izaten eben. Horregaitik kaleak huts igarten ziran sarri, iluntzeko orductan izan ez ziren.

Jenteak bere zeregina eukan. Bizi beharrak kaskarra argitzen daki. Eta herrietatik etorrita egozanak be ez ziran kaleetan ugari agertzen. Gerra tokia, frentea zenbat eta hurrerago eta jente gitxiago ikusten zan kaleetan.

Nire gurasoen ibilpide penaza gogoan daukat. Aita Plentzian bizi zan beste lagun batzuekin, lehenengo gerraren geratu aldia itsas ondoan, Ondarroan hasi eta Eibar, Bergara, Legutiano inguruetatik zehar muga ipini zanean.

Geroago, behin, Lekcitoria joan nintzan. Asterrikatik hots egin eben, Anakabe inguruan, gure herritik bialduta, hainbat andra egozala euren umcekin, Bilbo aldean egozan senideakana joateko zain. Euren artean etorri zan nire ama be seme-alaba txikiekin. Ondoren, familia batu eta Zornotzara Kortederra inguruan bilatu eutseen etxea. Zehatzago esateko, Galdakaoko lurretan.

Elgetako muga apurtzean, barriro atzeraka, Santurtzi gaineko Necedaleko inguruetara joan behar izan eben. Egoera larri eta kezkatia, etxeko trastetxuak ezin zaindu eta ezin aldatuta, inoren mesedei begira.

Horregaitik baneukan etxe aldaketa honeen estutasun, iluntasun eta ezereztasuna ezagutzeko bidea. Nire aita-amak, berrogeta hamar urtetan ebilzan sasoi haretan.

Baina nireak baino zotin gehiago eragin eustan Bilboko kalean, Arenaleko zubian zehar, errubera biko burditxu baten jesarrita, ahal zituen tresna, otzara eta gauzen artean, txahaltxu zuri-baltz txiki batera sokatik oratuta, buruko zapi zuridun amonatxo zahar, igar, tximur eta argal bat ikusteak. Ia larogeta hamar urte eukazala esan eban norbaitek.

-Nora zoaz, amama, nora? -deitu neutsan negarrari cutsi ezinda, benetako errukiz.

Aurean, itzain lez, gizon mardul bat, bere semea. Ez dakit ezer ikusten ete eban be. Inori jaramonik egin barik, "Aida behia, aida, aidaaa!"-ka, asfaltoan txirristadaka behiak zuzendu ezinik, burdiaren ardatza siku, txirri-hots luze eta inkesadunaren mende, Gran Vian gora, segurutik Bilboko bidean labana eta koipea madarikatzen. Bere alboan, semea ala loba? Hamar urte inguruko mutiltxu bat, belaunean okertutako praka estuekin. Ha be lotsatuta lez, gaixoa!

Sentikorra naz. Laster beteten jataz begiak malkoz. Ha ikusi nebanean, etenda gelditu nintzan.

Egunara joan nintzan bizkor. Idazten hasi eta negarrez ezin geratu. Busti-busti egindako papera, apurtu. Barriro hasi, beste gorpil bat emon nahirik nire lanari, nire itotasuna eteteko be. Barriro bardin. Negarrez ezin geinkiola herriaren gogoari cutsi eta haria beste alderdi batetik eroaten hasi, eta bardin.

Ez dakit egun haretan, haren orde, zer idatzi neban. Badakit larri ibili ginala *Euzkadi* eta *Egunan*. Hain zuzen, Jesus Garriz, guda-ko kontulariaren zain egoten nintzan iluntze beranduan, beragandik albistaren bat jakin nahirik. Egun haretan ez zan agertu.

Deitu bateri eta besteari, beste egunerokoetako guda-izparkariei, ikusi ete eben edo zer ete ekien jakin nahirik. Ziurtasunik ez.

Egun haretako nahastetan, erdi galduta ikusi ebela Mungia aldean. Urdulizen ikusi ebala norbaitek... Butrongo gazteluan sartu zira-la batzuk hango su eta bonbei iges egin nahirik.

Hangoak barruan hartu zituela, kopatu zituela... Danon artean egin genduan izpar konponketaren bat.

Nora ginoiazan? Amonak igeska eta gazteak barruan...

Gauean be, kuartelean, irudi ha gogoratzen, gure etxe eta lurraren hondamendiaren pisuak lorik egiten ez eusten laga.

Non geratu ete zan, non, larogetak urtetako amamatxo ha? Gerrak, bere ondoren latz eta gordinetan, euki ete eban beretzako bere betiko lurraren zatitxo baten azken arnasa emoten lagatako erruki pizka batik?

GAZTEAK JOKATU ETA ZAHARRAK GALDU

Bilbon neguan bitartean, gerrate osoan, ez neban ezagutu ezkutu politika-rik, azal-azaletik izan ezik. Ez neukan betarik eta astirik be horretarako. Egongo zanik ez neuke ukatuko. Baina ni *egin* barik sartu nintzan Bilbon, oraindik biziten ikasi barik. Fede oneko eta, egia esateko, ten batean eutsiegi.

Gure laneko lagunetik kanpora, edo egunero ikasi behar nituan gizonetatik beste, ez neukan ezaupiderik ez adiskidetasunik. Hartzeko denporarik be ez. Benetan.

Gure eguneroko zereginak bideak zabalik lagaten eustazala? Ezin ukatu. Lehendakariari behin eskatu neutsan hitz egiteko tarte bat eta berehala, biharamonean, deitu eustan eta ordu erdi baten alkarregaz egon ginan, biok bakarrik, *Egunarako* kontu kontari.

Beste ministroekin sekula ez nintzan egon bakarreko autuan. Behin Madriletik ministro bat etorri zan esperantza onez. Iluntze baten Carltonera deitu euskun izparkari guztiei. Han egoan lehendakartzako etxean. Bertan batu ginan zortzi-hamarren bat. Haria luzatzen hasi zan bera bere jarduncan, esan dodana, itxaropen ona sartu nahirik. Nik, bat-batez, hegazkinak noiz etozan itandu neutsan. Zurbildu zan. Itanari erruak luzatzen hasi. Guadalajarako hegazkinak non egozan, zirikatu eban beste batek, nirea biribilduz. Larritu zan. Ez ekian erantzunik emoten. Han egin zana behin egin eikeala, baina arrisku gehiegi egozala horretarako. Bost-sei lekutan kanpoa

eukien hegazkinak batu ahal izan zirala han, uste gabean, sorpresan, baina eurak egozan tokiak salduta laga-ta. Euskal Herria urrunegi egiten zala horretarako. Hegazkinak bialduko zirala, baina...

Egunkarira joan eta ez neban ezer idatzi hortaz. Gauerdian *Euzkaditik* deitu eusten, non ete neukan eurenitzako egin behar neban lana, eurak be niri leporatu eustelako konpromisozko dei ha.

Garbi agertu neutsen nire eretxia. Ez eben sinisten. Ezin eikeala holakorik. Beste eguneroko batera deitu eben, hango arduradunagandik zehatzago jakin nahian. Han ni baino zuriago agertu ziran. Ez ni bezain ilun. Norbaitek egin eban zerbait. Konpromisoa bete. Beharbada hori izango zan egunkarikoan bildurra be, ministro bat etorri eta aintzat ez hartzeagaitik esan eikeana.

Biharamonean, egunerokoak hartu eta irakurtean, gurekin etxe-ko ez zan beste baten eretxia nire ikuspegi edo abegiko zala ikusi nebanean, mahai ganean laga neutsan zuzendariari lapiz gorritz inguratuta agerkai ha. Eta berak, don Pantaleonek, deitu ondoren, enbidoa hartuta, eskua luzatu eustan.

Hortik kanpora ez nintzan sartu sakon beste tokietan. Benetako ezaupidea falta.

Toki askotan sartzan nintzan. Sartu eta urten. Goizetan, hamai-kak inguruan, ordu izentaua genduan agintarien tokietara edo idazkaritzetara joateko.

Ni bakarrik joaten nintzan euskaldunik, euskeraz ekianik, edo euskeraz erantzun eta kontu emon behar ebanik. Besteak, batzuk, lehendik etozan izparkariak ziran. Hareek benetako sagutxuak ziran holako tokietan, ibiltan ikasiak. Gehienek ogibidez jokutzen eben. Gizonaren pentsamentuak oraindik ez ziran estutu ogibidetik kendu eta baztertzeko bestean. Igarten jaken batzuei ez zirala ibiltan gogo onez, ez ebela bete-betea eta atseginez zeregin hori beteten.

Sartu ahala igarten zan toki bakotxean zelako joera eta pentsamentuak ebilzan. Zelako giroko ziran. Hormetan igarten zan.

Nire ustez, zeregin honetan ikasi neban pizka bat zabalago jokatzan, nahita nirean zintzo ibili. Gizartearen anaitasuna, norberarenak norbere zaintzearren, hortxe ikasi neban.

Euskaldunik gehienok lez, fede onean bizi genduan gerra. Okerrean pentsau barik. Besterik ezean lez agertu jakun zeregintzat. Ez zan inoren gogoko. Cuk ez genduan horretarako maitasunik. Zerbaiteri eutsi beharrean bakarrik sartu ginan.

Zaharretan bai igarri neban kezka ugari.

Euren herrietatik erbestetuta egozan asko, osasunean indartu egin ziran, alaitu, taiutu; zillbotak mehetu eta dotoretuaz, gorputzeko min, neke eta lotualdi gitxiagoz ezagutzen ziran. Honeek bai ikusi nituan eta ezagutu kexu eta urduri.

Cuk, gure lanetan, ez genduan astirik eta denporarik buruhausteei leku emon eta eurak gainduta, euren menpean lotzeko.

Zaharrak ia egun osoa eben eta ez beti etxetako maitasunean, inoren menpean eta ardurapean baino, askotan. Lan barik, zeregin barik, minak, kezak, iluntasunak, bakartadeak, urrunggaitzak jo, makurtu eta itzaltzeko bizibiderik egokienean egozan.



Euskerazaintzako kideekin 1992ko omenaldian Ondarroan.

Guretzat, gerra, igarri barik joan zan denporetan. Beti itxaropen, esperantza onetan. Zaharrentzat neketsuago zan.

Guk bizi genduan gerra odolaren irakinean, soinareneketan, ibilera mintsuetan, arriskuen estutasunean, heriotzaren ardura barik askotan.

Zaharrak eten egiten zituan gerrak, barruko minaren iluntasunetan, kezka eta mingostasunen itotasunetan, bihotzaren etenbako negarren intziri isiletan.

Bilbon genbilzan artean, gazteek jokatu eta zaharrek galtzen ebela esan zeinkean. Esan eta izan.

HEGAZKINAK!

Hegazkinak!

Bilboren lorra eta Bilbori gorra.

Bilboren egarria eta Bilbori irria.

Bilboren itotasuna eta Bilbori makurtasuna.

Bilboren oihua eta Bilbori laidoa.

Bilboren zotina eta Bilbori iraina.

Bilboren negarra eta Bilbori adarra.

Zenbat horrelako hamabiko bilatu eta osotuko ete gendukez?

Hainbeste heriotza eta hilte gertatuko ete ziran Bilbon hegazkinak egon balira?

Hilko ete ziran Bilboko kartzeletan, beharbada zitalkeria baten orde, itsutasunez eta zorotasunez erail ziranak? Gertatuko ete holarik Bilbok bere hegazkinak euki izan balitu?

Guda aureak lagata, frenteak lagata, Durango, Gernika eta abar, abar asko, hondatuko ete ziran hondatu ziran lez, Bilbok beste hegazkinen bildurra eta lotsa sartu eta oztopoa ipiniko eutsen kezka edo arretarik egon balitz?

Bilbon bonbak jaurtiko ete zituen, biharamonean, esate baterako beste alderdiko edozein uritan erantzun bardina hartzeko susmorik hartu edo jakin balebe?

Nik dakidala Cabon hilean heldu ziran Bilbora hamabost Polikapov 1-15 kazako, euren gidari eta agintari eta guzti. Errazago zan guretzat *Curtis* deitzea. Jansen jenerala etorri zan eurekin. Agirre lehendakariaren lagun eta adiskide on izan ei zan bera. Eta zer?

Maiatzaren azkenetan, zenbat gelditzen ziran?

Jakina da ez zirala eurak beti Bilbon egon. Eroan zituela beste nonbaitera. Preminaren baten igarri zan hori.

Hamabost horreek eta zenbat gehiago? Hugh Tomasek, 1962 urtean Parisen Ruedo Ibérico sailean agertu eban liburu baten esaten eban, gehien be 25 hegazkin egon zirala, eta bere esanetan 'nahiko zaharrak'.

Horra gure herriaren ondasuna hegazkinetan.

Zertarako hegazkinak. Prietoren atxakiatan, ez bagenduan ez hegazkin zelairik, kanporik, ez eurentzako bonbarik?

Sondika eta Lamiako izentetan genduzan horretarako zelaitzat. Ameslari gu! Eurak eta Laudio, Amurrio eta Otxandio. Ezin amaituta hor ikusi genduan baita Somorrostro.

Lotsagarri zan gure egoera horretan. Nik ez dakit Prieto berberak sinisten ete eban hegazkinak bialtzeko aukera egongo zanik. Horregaitik bere esan ha: "*Katiuskak* bialdu eikezala Iparraldera, baina ez genduala eurentzako leku egokirik, ez bonba edo lehergailurik".

Bilboko erantzun barik ez zan gelditu: "Bagenkiala larogeta hamar kiloko bonbak egiten. Gernikan egiten genduzala".

Atxakiak? Igesaldiak? Nahi ez eta baietz ez esateko akiakulak?

Katu argalari zorriek gehiago egiten ei deutsie.

Portugaleten egon ziran luzaro destruktore bi, suntsi-ontzi bi, gerrarik ete egoan hemen jakin be nahi ez ebenak, egunik gehienetan moila hegalari lotuta.

Behin Bilbora hegazkinak etorri ziran. Urten eben gureek. Eta destruktore horretako batetik be hasi ziran hegazkinei tiroka. Hain zuzen be bestaldeko hegazkinei jaurti beharrean gure hegazkinetako bat ez eben ba eratsi eta bertako gizona hil?

Hiru-lau hegazkin euki, gidari jator eta entzutetsu bat euretako, Felipe del Rio, eta hain zuzen be *Jose Luis Diez*etik jaurtitako tiroekin bere hegazkina jo eta eratsi eta sutu eta hil ez eben ba?

Bizitzako gertaerak dira, baina gure herriak ez eban zori handirik lortu gai honetan.

Sinisten gatx hegazkinekin gure herriari gertatua.

ITSASOAN

Non dagoz gure gerrako ontziak? Askoren ardura zan hori; ia herri osoaren kezka. Bizkaiak ez daki itsasotik kanpo biziten. Hortaz, kontuan eukiteko da gerratean nahitaezko ebalatzeak erabilitea gerrarako iskilu eta tresnen erabileran, herriarentzako janari eta ahalik eta gauzak ekarri ahal izateko edota gerrako suen arriskuetatik atera behar ziran errugabeen alde.

Ez genduan ia gerraontzirik. Arrantzaleek erabilezan burdinazko txalupa batzuk gertu genduzan gerraontzi orde. Baina... Egun negargarri baten gure *Nabarra Canariasekin* burrukan, hondora joan zan. *Araba* okertuta, zaurituta gelditu. Alde bietatik goraz bete zituen gure itsasgizonak euren joera harrigarri eta bulartsua ezagutuz. Txurruka mutrikuarrari bardin gertatu jakon Trafalgarren. Euskal gizonek heriotzeari bildur barik jokutzen jakin dabe itsasoetan. Baina zilegi ete da halako ezbardintasunetan aurkitu beharra?

Vendabal be hondatu zan beste baten eta *Galerna* atxilotuta eron. Zer geratzen zan gerrarako eratutako arrantzontzi honeetatik? *Bizkaia*, *Gipuzkoa* eta *Donosti*. *Bou* horreetan geratzen zan gure itsas indarra.

Talde hori eta... moila hegalean lotuta egotea atseginago eben *Jose Luis Diez* eta *Ciscar* eta beste hiru itsaspeko narrak, *C* taldekoak, ustez *C2*, *C4* eta *C6*.

Ciscaren ontziburua kokaina hartzen zalea zala esaten eben. Itsaspeko edo submarino batekoa, egunaren ordurik gehienetan hegazkinen aurka gertutako *refugio* edo babesleku aurrean eserita

egoten zala esaten ekien Portugaletetik, hegazkinen bildurrez. Gerra baten arduretan baino gerrari iges ezinda lez.

Bestalde, aurean, gure muturretan, ia lehorreko kainoien mende gelditzen ausartzen zirala, hor ezagutu genduzan *Almirante Cerver* kurtzeroa; *Velasco* sumtsi-ontzia, *Jupiter* mina erailea eta beste laguntzaile batzuk, *hemen gagoz* harro esan eta danok zemaitzen.

Itsasoetarako, itsasontzietarako jentea bagenduan; ontzirik ez. *Gizon torpedotarako* inor ausartzen ete zan itandu ebenean, hogeta hamarretik gora mutil gertu ziran horretarako.

Baegoan gogoa, baegozan mutil ikasi eta gertuak, baegozan itsastar jatorrak. Baina itsasoetan, aideko antzera, salduta egon ginan.

Gure bloketan, hainbat itsasontzi menderatuen izenak gordeten genduzan: *Achuri*, mineralez beteta etorrela, atxilotu eben. *Nuestra Señora del Carmen*, harrikatzez betea, bardin; *Oled*, ha be harrikatzez beteta etorrela. *Mar Cantábrico* Mexikotik armakin etorrela, beste aldera eroaten ikusi genduan. Epail edo martiko zortzigarren egun ha ilun eta mintsu geratu zan gure gogoetan.

Galerna atxilotuta eroan ebela esan dogu gorago. *Aitzol* zana, Jose Ariztimuño nahitaez burura ekarri behar gertaera horretan.

Itsasoetan hilak bihotzez negartu zituan herria da gurea. Beste batzuk gizon handi entzutea gero eta zabalago eben, edota daukie. Sekulako ospea gorde eta eskiniko deutso gure gerrateko gizataldeak santurtziar bateri, Lezo jatorrari. Preminarik handienean, beste inongo ontziren arriskuen bildur barik, hainbat gerra gai sartu zituan berak Bilbon nahi Bermeen.

Bestalde, gosetzen hasi ginanok, ogi baltzik be ez eukitera heldu ginanean, itsasontzi batzuen izenak ikasten hasi ginan, gure mescedean etorten ziralako. Halan *Seven Seas Spray*, *Mac-gregor*, *Stenbreak*, *Hamsterley*...

Beste izen batzuk erruki minez edo negar ondorioz gogoratzen genduzan: *Habana*, *Goizeko Izarra*, *Margaux*, *Carimade*, *Almer*.. Ume eta emakumeak erbesteratzen ebilzala hartu genduzan izenok.

Bilbok eta Bilbon ezin bizi itsasoari lepoa emonda.

GARRIKOA

Garrikoa!

Bilboren itxaropen eta Bilboren logarri. Erremedio guztien osakai? Irudiminetan, sortzeko asmoetan, egiteko erabagietan, baleiteke. Gero?

Elorrio, Durango, Gernika menderatuta gelditu edo jausi eta azken itxaropen bat: garrikoa.

Euskaldunen Maginot ingurua deitzen eutsen, frantziarrek europar gerran egin ebena gogoratu.

Zementuzko mamuta, burdinazko garrikoa, kaltzaiduzkoa... Bete be eten ezina, apurtu ezina, igaro ezina.

Zuloz betetako garrikoa. Mila larehun metrailatzaleen zulo, habi, sator zulo egiteko ziran bertan. Aurean, azeririk hurreratzen bazan, alambreko sare nahastetsuak. Zenbat habi egin eta itxuratu ete ziran azkenetarako?

Garriko luzea benetan. Ertz batetik bestera 100 kilometro. Santurtzitik gora Punta Luceron hasi eta Sodupera. Handik Ganekogortara. Gero Arrigorriagatik zehar Galdakaora, Ibaizabal erreka aurrean lagata. Upoko zati deitzen eutsen honeri. Gero Galdakaotik Erletxe, Larrabetzu eta Gaztelumendira. Eta handik, Munarrikolandatik zehar, itsasora, Algorta eta Gaminiz (Plentzia) bitartean.

Ondo lotuta ete cukan Bilboren sabel zatarra garriko ikaragarri honek?

Gerrak indarra hartu ahala, berotu ahala, bildurrez gengoan. Bere iruditzailea beste aldera joan zala gogoratu. Eta hitz batek gero eta indar gehiago cukan gure artean: salakuntza, traizinoa.

Zenbat bihurrikeri ete eukazan garrikoak? Asmau ebanak ba ei ekiazan, edo uste hori zan, non egozan hutsuneak, nahita eginak zira-lako.

Habi asko, iskilu toki asko, goietan egin beharrean besteak menderatzeko, beste edonondik mendetu eikezan tokietan egozala, edozein arranoren mende.

Ezin zuzenduz, jo eta su lanean, hutsunez beteta uste ziran tokietan: Ganekogorta alderdian, Upo mendian, Fika ingurutan.

Gainera garriko hori uri nagusitik, Bilbotik, hurregi egoala. Oraingo teknikaz suaren txipriztinak Bilbo bertan noz nahi igarri, sentidu edo jausteko arriskuz.

Gernika galdu ondoren bildurrak gehitu ziran.

Bagenkian bake egunik ez genduala gehiago ezagutuko. Garrikoa estutzen hasi beharko ginala.

Bagilaren lehenengotik hasi ziran suak garriko horren gain. Tart eragin nahi. Nondik?

Monnier-Jaureghi ibili zan garrikoa ikusten maiatzaren azken aldictan. Bere esanetan itsasertzetik Arrebakarra bitartean egina atxaki barik laga eikean. Handik hegoaldera... akatsez beteta. Ez behar adina metrailatzalenzako habiarik, ez behar adina alanbradarik. Trintxerak eurak, ezkutatoki eta bide sakonak, zuzenegi, erreskada luzeegietan, su batek bertakoak osoan zuzitzeko eran.

Hain zuzen, lehenengotatik be, toki hori zan tranpa-tokia: Gaztelumendiren sartaldea.

Jakitunen eretxian, Kantoibaso hartu eta zabalduz, Gaztelumendi eta Irurimendi mendetuta geratuko ziran neke handi barik.

Garrikoa, estutzeko baino okerrago geratu zan. Tart eraginda. Hain zuzen be galdu-une edo makal tartea cukan toki berbertan, Fika aurrean.

Bagilak 13. Garriko etentzakotzat, Sopela eta Urduliz ingurua salduta geratzen ziran. Hustuteko agindu behar.

Bilboren egunak atzamarrakin kontetako eran igarten genduzan, etsipenez, nahita oraindik askok Artxanda eta Pagasarritik Bilbo aldeztu eta zaindu eitekeala pentsau.

ETSIPENAREN OINARRIAK

Indatzu etxeko gorengo lekuan gengoan, teilatupean; hau da, gorengo etxe-oinean, betiko antzera lanean.

Iluntzea. Giro txarrak etozan guda lekuetatik. Zorioneko Bilbo-ko zementuzko garriko entzutetsua! Zorioneko edo zoritxarreko! Oraingotan, garriko ustela. Bilboren gorputza ondo lotu eta zainduta eukala-ta gengoan garrikoa, tart egiteko arriskuan egoan, ten egin ezkerro, bultzada txiki baten.

Utebako barriak entzuten ziran. Salduta gengoala, ez gengoala uste genduan adina ziur. Halaz eta be oraindik norbere indarrean sinisten zan. Itxaropena ei da azken galtzen dana eta guri ez jakun inondik be komeni itxaropen izpi hori galtzerik.

Ezelako ohar barik, ustekabea, zarata hozkil bat sentiduten hasi ginan gure gainean. Gero eta hurrerago etorren zarata bildurgarri bat. Txistuka etorren zerbaiten hots txiliotsu etengarria.

Itxuraz ez etorren indar handiz. Ez bizi-bizi. Indar galtzen, ozta-ozta gure ganetik igaroko zala irudian, aurrez jausten ez bazan. Igaro zan.

Alkarri begira geratu ginan. Bilbo guztiari zotin eragin cutsan. Zer? Telefonotik deitzen hasi ziran batzuk, zer etc zan ba ete genkian. Zer jakin, entzun genduan, igarri genduana baino gehiago?

Kainoien mende gengoan. Garrikoa eten eta kainoiak hurreratzean, horrelako suen mende gengoan albista izan zan.

Bilboren gogo eta Bilboren giroa bertan behera igarten ziran. Iluntze horretan, etsipenak makurtu, indargatu, dardaraka jarri ginduezan. Bilbo, garriko sendoz lotuta egoan Bilbo, galtzearen konzientzia hartzen hasi zan iluntze haretan.

GAU BALTZAK

Gau baltzak ziran Artxanda ganea gorri-gorri ikusten zan egu-
netan. Gero eta estuago ginoiazan.

Ibaizabal inguruko herriak Bilboratzen etozan. Plentzia aldeko-
ak hemendik ebilzan. Gero eta arpegi ilun eta tximurragoak Bilbon.

Aurrera ginoiazan bagilean. Egun luzeak, baina Bilboren gauak
luzeago, bildurgarriago.

Gauerdi baten, Arenaleko zubian, banakak ebilzan. Herri txiki
bat irudian Bilbok. Inork ez eban urtetan kalera.

Zubi azpian lanean ziharduen, bera zulotzen. Zubi eder ha be,
laster, egun gitxi barru, gerraren omenez eratsiko zan, leher eginda.

Zeregin batera Correo kalera ninoiala, ondarrutar bik urten eus-
ten bidera. Argi eske ebilzan, zerbait jakin nahian. Ames egin nahi
oraindik be, edo barealdi bat hartu nahi. Danen gaixo eta guraria.

Iges egiteko nondik eta zelan gertuko ebilzan, nahi eta eurak gar-
bi esan nahi ez holakorik. Edo ezkutatoki seguru atzetik. Alkarren
bildur ginan danok.

–Hegazkinak badatoz edo ez? –esan eustan garratz, zital, mintsu,
euren egoera edo burubidea onerexi eragin nahirik.

–Bilboko hegazkinen amesa galdu da –erantzun neutsan.

–*Egunatik* be guzurra esan deuskuzue –bota eustan arpegira zoli
eta mintsu batek.

Eta maite ginanok, auzotar onen begirapen on-oneko ginanok,
agur larri eta beragarri horrekin agurtu ginan. Eurentzako herria

atzipetu egin genduan. Heriotzako agonia estu eta izerditsu baten
orduan, adiskide baten horrelako esacra bat zelan hartu?

Euretariko bat gehiago ez dot ikusi. Bestea geroago hil zan, bes-
te urte mordo bat bizi ondoren.

Zorrotz sartu jatan herritarren mina eta eztenkada. *Egunatik* be
guzurra esan deuskuzue! Sekula ahaztuko ez dodan zemaia. Bale-
kie... Izparkarien lorra! Periodisten ogi galdua. Batek esan eta beste-
ak emonak, norbera lotu.

Eurekin egon eta laster, oraindik lanera joan nintzan, minduta.

Egunatik be guzurra esan dozue...!

Gau horretan, bagilaren 13an, gauerd inguruan, Carltonen,
Euzkadiko Lehendakartzan, batzar bat egin zan. Batzarkide: Agirre
lehendakaria, Leizaola eta beste ministro batzuk. Militarren artean
Gamir Uribarri, Lafuente, Gerrickaetxebarria, Arbex, Montaud eta
besteren bat. Eurekin guda aholkulari edo kontsejeru lez Monnier
frantziarra eta Goriev errusiarra.

Batzarreko gaia: Bilbo aldeztu edo ez; Bilbo zaindu edo laga; Bil-
bon eutsi edo etsi.

Bakotxaren eretxiak agertu ziran, eskatu ahala.

Monnierren txanda heldu zan; hau da, Jaureghyrena. Izen biek
ezagutzen zan hau. Gerrako gorabeheretan *jo* eta *eutsi* hitzak baka-
rrik erabili behar balira, hau *eutsiri* lotua zala esango genduke. Erde-
razko atake edo defentsan, hau defentsan bereiztua. Bere kontura
geratu zan gure Bilboko garriko entzutetsuko lanak jarraitzea, Goi-
koetxeak, garriko erdia egin baino lehen, bertako zertzelada eta guz-
ti bestaldera iges egin ebanean.

Eretxia eon ahala izateko Monnier Jaureghyk itandu eban eus-
kaldunek ba ete eukien hegazkin eta metrailadoreen itxaropenik. Eta
Agirre lehendakariak, nahigabez, itotasuncz eta etsipenak gainduta
erantzun eutsan: “Beti gagoz hegazkinen zain; luzaro egon gara
hegazkinen zain...”.

Lehendakariak, bere hitzekin, horretan saldu egin ebela mintsu,
lotsati eta garratz agertzen eban. Lehendakariaren itxaropenik ez ete
genduan agertu behar *Egunatik*?



1987ko martiaren 21ean, Bizkaiko Batzar Nagusietako EAJ-PNVko taldekoekin, agintaldi-amaieran.

Handik hiru egunera zuzendariak deitu eta dana bertan behera laga eta atean gertuta ekarren kotxean Balmaseda inguruko Herrerra joateko agindu eustan.

Egunako zereginetarako genduan kotxea Bilbotik aldentua zan. Bestetan be ez genduan asko erabili. Bere erabiltzailea, txoferra, gu baino bizkorrago ibili zan hanka egiten. Gero jakin genduanez, Santanderreko kaletan bilatu eben, handik erbestera iges egiteko itsasontziren batera norbait eroanda.

Jantzirik hartzeko astirik be ez genduan euki, bideak libre egozan artean urteteko. Bagenkian Bilboko zubiak lehertu eragiteko gertaerak hasiak zirala. Ez geunkan zereginik Bilbon gudarosteetan ez gengoanok, edota azken unetan gudarosteei izentau cutsezan zereginetan sartu behar ez genduanok.

Halantxe, makur, jausi, galdu, lotsa eta minez, gure agurrak itota, Enkartazinoetako bidea hartu genduan.

Kastrexanako aldats burura heldu ginanean, Artxanda ganera begira geratu ginan. Kea eta sua. Ez genduan begiratu zeruetara, bagenkialako Bilbon ez zala Guadalajara eta Pozoblancon lez hegazkinen miraririk barriztuko.

Ez neukan ahazteko: *Egunatik* be guzurra esan dozue... Baina nondik etorren guzurra?

Irujok eskatuta Gerrako arduradun nagusiak Valentzian, maizta baino aurreko egunetan batu ziranean, gure lurraldeetarako hegazkinen autua zan gai berezi. Prietoren esanetan teknikoak bilatu eben Iparraldeari, gure herrialdeari, hegazkinekin laguntzeko era: Torrelagunatik hegazkinei urten eragin eta Reinosara zuzen, hegada baten, bialduta.

Hori entzun eta orduan Zuzentzako jaurlari edo ministro zan Garcia Oliverreri minduta, hitz honeek urten eutsen: beraz euskaldunekin azpikeriaz jokatu dogu, *engainau* egin doguz.

Bilbo, zer ikusiko, atzean laga genduan.

BILBO GALDU ONDOREN

BIDEETAKO BIHOZKADAK

Lur gorri,
burdin lur.
Hau ez da
nire Amalur.
Buztin eta harri
aurrean sarri.
Odolaren gorri,
zainetan ezik,
non?
Azalean
hautsaren hori.
Bizkai berdea,
zer dozu hori?
Gaixo?
Eri?

Muñatones!
Harriak be
ozta zutik...
Nik maite dodan Bizkai zuriak
badauka hemen akats eta ugerrik!

Eleiza bat erreta ikusi dot.
Nire barruak otoitzean jardun dau.
Gizonaren libertadeak
ez ete dau sinismena
bere kontzientzian deduzko?

Eleiza txiki bat teilatu barik.
Kontzientzi gehiago txapel barik.

Onton.
Zementuz zarratu deutse hatsa eleizeari.
Mugak ipini nahi espirituari.
Gizonaren bihotzari
inork ez deutso ipini oraindik
zementuzko aterik.

Saltacaballo.
Zabal ikusten dot aurrean itsasoa.
Keipean, urrunetan, Bizkai lurra.
Zertan zagoz, Matzaku,
-moko arru-
itsasoari mosu eta mosu?
Zure atzean igarten dot
-nire kezken kezketan-
Ondarru,
nire sorleku.
Agur Bizkai,
-mendi eta ibai-
nire amesen kai!
Lainopean ikusten zaitut,
gero eta urrunago,
lausoago.
Laino eta laino,
begi eta kampo.

laino...
ino!

Veac victis!

Solares.
Nongo urak daukiez herri honetan?
Hormetan txalo eta omen euskaldumei:
“Santanderrek agur egiten deutse
Euskal korrikalarici”.
Garraztutako bitsak.

Korapiloa egiten jat eztarrian orduko ibilerak gogoratzen. Begiak busti, putzitu, uganditu...

Alargun gaztea jatort gogora. Senarra hil eta adoretu, inguru-koak be bere adore eta tentetasuncz kutsatzen.

Egunak, igaro ahala... bakartadearen pisua, astuntasuna, larritasuna, itotasuna, etsipena... zeharo ahulduta gelditu arte, orde, gu. Baina etsiko ete dogu?

SANTOÑARAKO BIDEETAN

Bilbo galduta zer egin ete genduan handik aurrera euskaldunok? Esperantzatan bizi.

Hormarik gehienetan, inguru askotan, eslogan bat genduan: *Ez dira igaroko. No pasarán*. Baina igaroten ziran. Gu lehenengo, atzeraka, eta besteak gero, guri segika. Beti be indarra etortekotan eta bialtzekotan.

Gure giroa ez zan hain zuzen atsegin eta erraza izango egunetan. Oroitzen nabil.

Bilbotik Balmaseda ingurura joan ginan lehenengo egunean. Bide ertzeko etxe bat gertu euskuen guretzat. Alderdiko agintari batzuk han ziran. Eta zer? Hirugarren egunerako, bateko senide eta besteko adiskide, egunero gure tokia galtzen hasten ginan zaharren mescedean. Lurra genduan ohe mahaitzat. Lehenengotan zabal, gero estuago eta azkenean txandaka. Hori horrela, handik Karrantzara aldatzeko agindua hartu genduan. Han be bardin, jarraitzaile bardinak.

Karrantzatik Gibajara ez dago bide askorik. Letra bigunak gogortzeko lekeitiarrak daukien berezitasunez, Gibaja horrerik ikipaka deitzen deutsie hareek. Halanxe ikusi neban behin karta bat. Ziur dakit Gibajara ondo heldu zala, lekeitiarrak erro asko zabalduta eukiezalako gudarien artean.

Gertuten ziran tren bakarrak, ganezka Gibajara. Gudarienzako ateraten ziranak be, bestelako jentez beteta.

Ordura arteko nire lokarriak eten, luma eta buruz gerran ebilzanez agur egin eta aurrera joan nintzan, nire kontura. Agur izparkaritzeta eta abar.

Ampuero eta Limpias igaro, bide barria lortu eta handik Santoñara joan nintzan, Monteanoren hegaletik. Gure marinel zaharrek deitzen eutsien Santoña Ameriketara.

Guk be gure kalbarioa bagerabilen eta benetan esan neikean hau: hirugarrenean jo dot hemen lurra. Ez nerabilen maletarik, Makuto bat. Balmasedan adiskide batek emon eustan alkondara nire gainontzeko jantzizat.

Banekian Santoñan bazala ondarrutar ezaupidea. Hirugarren karlisten gerratean askok igesi eben gure herrietatik hara. Horregaitik abizen euskaldun ugari bilatzen dira han. Eta odola?

Ez genduan abegi onik. Edozeinek esaten euskun saldu egin ginala Bilbo lagatean. Irrika agurtzen ginduezan: "Santanderrek agur egiten deutse euskal korrikalariei". Adar jote mingarria. Dendariak, tabernariak, bizar kenzaileak...

Santoñan giro txarra egoan euskaldunentzat. Kobardetzat etsiten ginduezan, Bilbo zaintzen jakin ez gendualako.

Gure abade eta fraileen meza emoteak be sututa lagaten zituen. Ez dakit danak horrela sinisten eben barruz, baina bestela agertzeko itxurarik eta borondaterik ez jaken igarten.

Kaleetan, euskera entzutean, haserre gogorrek sortzen ziran, batez be iluntzetako ibileretan, eta askotan, gudari bereziak urteten ziran kalera, ordu horreetan, haserre eta ikusiezin eta alkar arteko garrazkeriak isildu eta baretzen.

Tabernari bat, Bilbo ez aldezteak, beretik ateraten eban. Eleizaren azpikeriatzat eukan eta errepublikearen aurkako makaltasuntzat. Beharbada Bilbo galtzeak bildurra sartu eragin eutsan eta bildurak zitalkeria.

Gizon mardula zan bera eta, itxuraz, espiritu zabalekoa. Bere ziurtasunean, Santoñako hatxik inork ez eban hartuko, eta dan-dana hondatuta be, santoñarrak euren buruen jaube gertatuko ziran, ugarte edo isla baten antzera; gaurko gerrak hamargarren gizaldiko era-koan baziran lez.

Gu, euskaldun gaixoak, etxe gabeko euskaldunak, salduta genbilzan Santoñan.

Bizartegira joaten ginanean be, kaisarren sablea zala irudian bizar-kenzaile baten labanak, zirti-zarta behera eta gora, odolik ez genduala euki eta putzak hartuta. Hemen sartzeko barrabilik ez daukie hareek, esaten eban, geroago indar eta neke gabe sartu zirana-kaitik.

Oi, Santoñako bizar-kenzailea.

SANTOÑAKO BIZAR-KENTZAILEA

Nik ez dakit Santoñan ezagutu neban bizar-kentzailea amu-egile-ren bat izango zan edo ez. Edo maluta-batzaile, abarketa-egintzaile, edo antzekoren bat. Itsas herrietan holako gizonak, bizar-konpontzaileek, gure denporetan eukiten zituen zereginetako bat esatearren.

Luze gehiago, erdiko baino; txatxar eta igarra; kolore horiko; bizar zarratu, gogorduna; bularretiko gaixoak jotako itxurako, edo zornakatzen batek, ultzeraren batek garraztua. Dana dala, itxurako argalkeria, hitzen indar eta zolitasunez eskatzen zituen zala bai, agiriz eta egitez.

Herrietako gorabeherak errazen erabagiten ei dituen gizonak diran entzute eta fama badaukie bizar-kentzaileek. Ondorenak, samar potean, ule zuri eta koipetsuen artean.

Nik maite dodan herri txiki baten, Kontzeju etxea deitzen deusie bizarra kentzeko tokiari.

Jai aurregun baten, herri horretan nengoala, lagun artean esan neban:

–Ule moztutera noa.

–Lagunduko deusut.

–Bai zera. Badakit non dagoan.

–Niri be Kontzeju etxean batzarra toketan jat gaur eta goazen.

Ez nintzan konturatu nora joian erantzumaren txikota. Ezer ez nekiala sartu nintzan.

Sartu orduko herria garbitu eta astintzen hasi zan bizar-kentzailea: kainu lohiak, iturrietako urik eza, esneen ur larregia, zergak,

kanposanturako bidea, ogiaren pisua... ekin eta ekin, bat amaitu orduko, baten aurretik bestearen bidea zabalduz.

Amaitu eban nigaz. Nire laguna jarri zanean, bertan ez egotearren esan neutsan: adiskide bat ikusi nahi neuke eta...

–Gero arte.

–Laster amaituko dozue Kontzeju etxeko batzarra?

Gorri-gorri egin zan nire adiskidea. Konturatzen hasi nintzan, baina sakontzeko denporarik ez eustan emon bizar-kentzaileak. Eztenkada igarri neban:

–Zuen herri horretan sator eta adarjotzaile asko dagoz ala? Ez badakizu be, jakin akerraren adarrak ustelak dirala.

Nire adiskidea gorri eta sututa egoan. Gaur be gogoratzen naz ni neu be zelan urten nintzan handik.

Santoñakoa, Kontzeju etxe ordez, kapitania bat zala esan zeinkean.

Bilbo galtzeagaz min handia hartuta irudian. Guri botaten euskun galtze haren errua. Berak baekian nondik aldeztu. Baekian nondik jokatu behar zan ez galtzeko. Baekian zein menditan zenbat kainoi nahiko ziran, danak atzera jaurtiteko. Baekian Bilboko Abran zenbat itsasontzi nahiko ziran inguruak garbitzeko. Baekian Ibaizabal eta Kadagoa ibaiek non eukiezan beharrezko zabal eta hondoa hurreratzen ziranak ito erazoteko. Baekian zer egin behar zan Altos Hornos, Naval, Backok Wilcok eta Euskaldunagaz. Eta baekian zer egin behar zan gu euskaldunokaz. Bilboko kapitalisten zaintzaile izan ginan gudariakaz, koruetan bezperak kantetako baino balio ez genduan abade-morroiakaz.

Eztarran korapiloa eginda lagaten eban bat, izerdi likinetan, bizar kentzeko labana zirt-zartadaka norbere samearen ertz-ertzean itu-itsuan erabilten ebanean.

–Ez dozue hor ikusten? Ez dozue oraindik ikasi? “No pasarán”. Ez dira igaroko. Lau kartutxo ipiniko deutseguz Monteanoko komentua baino aurreratxua go hona datorren bidetari eta danak aidean joango dira, gu ez gara inora aldatuko, hementxe geratuko gara.

Hilebete baino lehen, Laredotik Santoñara gazteak bide betean, edo hondartza zehar ibilpide neketsuan iges egiten ikusten nengoan iluntze negargarri haretan... ez dakit non ezkutauko zan gure bizarkentzailearen beroa.

MIERESEKO GARRAZKERIAK

Zertan garocz Asturiasera?

Behin Bilbo galdu ondoren, bertan behera gauzak lagateko gogoa igarten zan gure artean. Tartekako itxaropen txirristadak zertarako?

Burua makur, garratz eta mintsu urten ginan Santoñatik. Mendiarte baten egon ginan batailoia osotzen; ez daukat izenik gogoan. Handik Asturiaseko Arriondas ingurura. Gero, oinez, Villaviciosara. Zertan? Ez zan izango nonbait euskaldunoi atsedenaldi bat emoteko ustetan. Eskatu be ezin lei atsedetik gerra baten.

Villaviciosan, sagardao herriaren ezaugarri, mahats usaina herri guztian. Laster ginan edaten eta ezin aseta. Ramon Artolaren bertso erdikak hartuta osatu lei gure orduko giroa:

Kupelan dagon sagardoak dit

ematen tentazioa,

prezisamente cran bearra

daukat persekuzioa.

Eranago ta herriz naiago

beti nago egarriyak,

begi bitarte txarrikan ez dit

egiten tabernariyak...

Halantxe. Ez genduan dirurik ukatu. Oraindik balio eban gureak. Nekea laga genduan eta umorea herbiztu eta zabaldu.

Aterpetzat sagardao dolara edo antzeko etxe huts bat eskini cskuen. Batzuk eguraldi beroa egoalako, nahiago kalean. Halantxe ni. Izartu nintzanerako, besteak ordubete aurrez bidean.

Handik Pola de Sierora eta ondoren Sama de Langreotik Mieresera heldu eta ha zala esan euskuen, ordukoz behintzat, gure gelditokia.

Mieres. Harrikatz langileen herri jatorra. Indianoen etxe handiak eta beharginen etxe merkeak. Hauts zikin, baltz, lodi eta koipetsua.

Hiru-lau egun igaro orduko, han ginan gure kezka barrizten: zertan ekarri gaitue bertora?

Merkadu eguna be gertatu jakun heldu eta laster. Alkondara eta abar erosteko aukera. Bagenduan barruko jantzien premina. Hasi ginan gure diruak trukau eta bertakoekin balieta. Ogerlekotan zana, *durutan*. Ez egoan txikiagorik edota guk ez genduan aukeratu. Gora edo beherako akatsak, txikikeriekin osotzen ziran. Ogi, txokolate, beste zerbait, beti be *un duru*. Galtzerdi, sudur-zapi eta besteak, *un duru*. Gehiena zana be *durutan*.

Guaje deitzen euskuen hangoek eta pozik gu. Lehenengotan *guapo* esaten euskuelakoan. Baginoiazan bertako esakerak hartzen. Atzamarrak eta behatzak be, han, *dedos* eta *dedas*. Eskukoak arrak, hantetakoak emeak, *dedas*.

Casa del pueblo dalakoa laga euskuen gure aterpetzat. Han lo eta aldamenen sukalde eta tresnak.

Gure batailoian abade bat eta fraile bat genduzan fedezko zerbitzutarako. Manga zabala frailea eta estua abadea, halan esaten ekien *plana mayorekoek*, gure artean ostatu bilatu eban neska bat zala eta ez zala.

San Inazio eguna heldu jakun, bertara heldu eta lehenengo astean. Eguna ospatu behar. Goizetik meza. Hor hasi eta amaitu zan gure jaia. Zein joan ete zan kalera hango gizoni mezako eukaristia egitera ginoiazala esatera? Guk be barrabilak genduzan. Non eta *casa del pueblo* baten hasiko ginan ba meza eskintzen?

Hango haserre eta hango nahaste, hango hitz gordin eta zital, hango ten eta hanka egin beharra! Armetan jarria daukala Iñaki deunak bere konpainia? Bai gu be txispaz armaurik egun haretan.

Ordu bat edo bi emon euskuezan handik urteteko. Ia *casus belli*. Kalera be ez ginan agertu. Alboko baratzean, ahal zana jan eta burua

makur, trukautako diruak be gastetako era barik, ikusiezin eta nahieztako mutilak bagina eran, herritik kanpora urten behar izan genduan.

Lehen haserre eta gogo ilun eta betozkoz bagenbilzan... onak geratu ginan ames barriak egiteko! Errekonkista barrien bat egitera joan ginala iruditu ete eben bertakoek?

ESCUDO INGURUAN

Gogo txarrez joan ginan Asturiasera. Ez genduan jasoago atera handik.

Zertan inardugun? Hori zan danon kezka. Batzuen erantzuna: eutsi! Besteen ondorena: zeri eutsi?

Eutsita lortzen dan garaitza ez da indarrez eta ahalez datorren garaitza bezalako zoro eta alai. Ez da garaitza mozkorra. Indar eta norbere eskintza gehiago eskatzen dau eustekak. Hasiera makalagoa. Horretarako ahalegin, eupada eta bihotza behar.

Eutsi ordez, ez etsi zan guri egokuna.

Miereseko gertaera harek lehen makaldutako adore asko galdu eragin euskun. Vae victis, esaten ekien erromatarrek. Halantxe ginoiazan barrero gero eta estuago ikusten genduan lekura, bertakontzat arrotz eta errudun ginan Santander aldera.

Ontanedan agertu ginan halako baten. Herri inguruan, aldapa txiki baten egiten zan etxe zabal bat buru edo izardumen etxe. Besteok nonahi, herri inguruko tokietan.

Egun batzuk horretan. Karlisten denporetan egon ei zan batailoi bat *jan da lo* izenez ezagutua. Herentzi hori hartu geinkean. Guk egin geinkeana baino beste nonbaitetik agertu eitekeanaren zain gengoan. Denpora irabazten.

Agindu barriak etorri ziran egun baten eta ez pozgarri. Mendira joan behar ginala, goiko mendietara, Escudo aldera.

Horra gu, baldar eta alper, bidez bide. Urkiolara aldatsa baino pikeago da Lucnako lurralde haretan bidetarako daroana. San Andres,

san Migel... Izerdi likinetan aldapan gora, errebera bihurrietan. Egun bi-edo egin genduzan bidean, agindu zehatzen zain. Gora helduta gero igarten genduzan bide-laburketak, atajuak. Azkueren hiztegiaren ikasi dot Ondarroan, atajuari, *bidur* deitzen eutsela gure aurretikoek. Honetan be bagoaz bide galtzen.

Gaineak hartu eta gau baten han geratu ginan laguntzaile edo antzerakoien taldekoak. Konpainiaren bat aurrerago joana zan, ton-torrerago.

Gau haretan ez nintzan konturatu. Eguna egitean bai. Bidea, kaminoa bitarte zala gelditu ginan gaua egiten agintari eta nagusiak eta gu. Bide ondoko lautadan hareek. Gu, ezkerretara, bidearen behe-rako baten egoan txabolatxu baten. Hemen ginan Koldo Larrea, gaur Leongo gotzaina dana, Gotzon Renteria, gaur Gernikako apaiza, besteren bat eta ni.

Eguna zabaltzean, zarata baldarrez, hegazkin handi bat igarri genduan gure ganean; gorago kazakoak. Urruntxuago igarri genduan bonbak husten. Ha alde egiten eta berehala beste zatar bat, behe-behetik. Hango txistu eta bunbadak! Lurra sentiduten genduan brasta-brasta gure txabolaren pizarradun teilatuan.

Alkarri begira zuri gengoazala, goiko dei, ulu, negar eta txilio eta garrasiak entzuten hasi ginan. Bat-batean bertara hurreratu eta han egoan triskantza!

Garin, zeraindarra, komisario politikoa, putzituta, zerraldo. Aita Etxaniz, frantziskotarra, gorputza etenda, arrakalatuta. Anbulantzia sartzea lortu genduan, salmoen bat esaten ziharduan, latinez, bere bostean. Getxo aldeko bat, Sasia edo antzerako abizenduna, teniente zala uste dot, ha be minci eutsi ezinda. Nire Jesukristo jauna errezetan, sekula beste bat igarri ez dodan fede eta damuz. Eta halantxe beste zenbait.

Eurak kotxetan sartu eta atzera bialtzen hasi orduko, Escudo aldeko konpainiakoak arin-aranga etozan, haserre eta gorrotoz, salduta laga zirala-ta. Goian be ba ci egozan zaurituak nork jaso eta nora croan ez ekiela. Gure egoera ikusita konturatu ziran gure laguntzarik emon ezinagaz.

Tatarrez danok, atzeraka, arerioa zalapartari genduala, ez nora jo ez non gelditu ez genkiala kilometroak egin genduzan. Soinean soinekoakin.

Iluntzen hasi zanean, adoretu nintzan. Preminazko nituan txabolana lagatako jantziak. Beste lagun bat eta ni, biok, barrero kamino zabala baino beheratuago joian bide batetik lehengo gure txabolara joatekotan hasi ginan. Gauaren bake eta isiltasuna mendiarte bakar-ti haretan! Gu be bildurrez ginoiazan, irargi unetan igarten edo iruditzen genduan zerbait gure arerionen bat izango zalakoan.

Txabolara, ia gehiago ezinean heldu ginanean, alkarri esan geuntsan, gaua testigutzat ipinita: eta orain zer?

Hitz batek urten cuskun, bioi batera, kontzientziako urteera lezeutsi!

Barrero lehengo bidean hasi eta lortu genduan lagunekin alkar-tzea.

Gerra baten aurka genbilzan. Biok isilean zenbat otoitz egin ete genduan bide arriskutsu haretan?

Eutsi! Gure espiritua baerorien hilek, goizean ikusi genduan lez, guzurrik esaten ez dan azken agerbideetan.

LAREDOKO HONDARTZAN

Kabotzatic igaro gabe sarjentu izentau ninduen behin. Escudoko gertaeren ondoren zan hori.

San Pedro del Romeralen gengoan, Vega de Paserako urteteko asmotan. Komandanteak deitu eta esan eustan:

-Gure ibileren ordaintzat, besterik ezean, galoiak emon behar deusudaz. Badakizu badogula agirietarako edo informazinorako teniente bat. Lekeitiar maiordomu, kontramaisu edo horrelako bat zan bera bere bizimoduan. Lagun egiozu eguneroko agiria egiten. Horretarako sarjentu izentetan zaitu. Hartu gaur bialdu deuskuezan marrazki batzuk, arerioaren hegazkinak ezagutzeko. Mendian egon edo ez, hareek edonondik be ohartzen dira eta hortaz agiri bat iluntzetan ekarri eta kitu. Gaurtik emoten deusut baimena, arerioa aurreko mendian igarri orduko, isil-isilik zu atzeraka joaten hasteko sukaldeak egon leikezan tokira hurreratuz. Hemendik aurrera gure gerra bakotxaren soina zaintzen egin beharko dogu. Beste zereginik gatx bete geinke.

Esan eta egin.

Sukaldearen tokia, besterik ezean gudariak gauctan afari beroa jan egien be, hamar bat kilometro atzerago izentetan zan ia egunero. Jakina, ia egun bat toki berean egiten ez gendualako zan hori. Halan, Vega de Pasetik Villacarriedora, handik Soto de Iruzera eta horrelaxe aldatzen.

Albizarra baino lehenago igarten genduzan arerioak aurreko mendian. Batzuetan tiro zoroak jaurtiten. Gu kexetako tiroak. Beste-

tan, mando eta guzti, bildurra eta lotsa barik mendiz gora eta behe-
ra ibilten.

Horrela, goizeko kafesnea hartu orduko banekian nora jo. San-
tanderreko mapa ondo ikasi neban. Nik eta beste askok.

Hasita gengoan zerbait entzuten. Zurrumurru, autu-mautu, isi-
leko kontu lez zabaltzen hasia zan euskaldunontzat bake berezien bat
egin edo egiteko zala. Bilbo galtzean zerbait egina zala, baina eta han
gertaerak aurreratu eta ezin, eta halaz eta be jakingo genduala laster
zerbait gure mesederako.

Ha behintzat ez zan gerra. Informazinoko sarjentu eran izenpe-
tzen nebana, ia egunero gauza berbera zan. Bost-sei hegazkin igari
genduzala, gehienetan tankera berekoak, eta baginoiazala Santander
uri nagusira hurreratzen.

Egun baten kontraordena hartu genduan, ez dakit zeinek emon-
da. Atzerakadarik ez egiteko gehiago, alborakadak baino. Atze-atze-
ka barik, albo-alboka ibili behar ginala. Hau da, Santanderrera
hurreratzen barik, Bizkai aldera ahal zan bestean hurreratzen joate-
ko, hango gudariekin nahastuta inguratu barik, gure konturako
nortasun bat hartzen hasteko.

Horrelaxe igaro eta bete genduzan zortzi-hamar egun, barrukal-
detik, gaurko bide nagusia baino barruragoko tartetatik zehar.
Askotan egunez arboladiren baten ezkutuan egon eta gauaz egiten
genduzan gure ibilerak.

Gogoan daukat azken egunetan Bilbo galdu ondorengo tokietara
hurreratu ginala, Ramalesetik Gibaja, Ampuero eta osteko mendietatik
zehar Laredo gainera zuzenduz.

Han, Seña izeneko auzo txiki batera heldu eta gelditu ginan, ber-
tako eleizatxua gure mende hartuz. Hain zuzen be gaur Laredo eta
Colindreserako bidekurutze barria egiten dan haretan, zerbaiten zain
igaro genduzan hiru-lau egun. Seña: eleiza txiki bat mendi-lautada
estu baten, korta bi edo hiru, lau-bost etxe eta beste hainbeste zelai
txiki, harriz inguratuta. Inor bizi zan? Ohiturazko genduan tokikoak
ahalik eta gitxien kexaratu edota ganean erabiltea. Baketan lagaten
genduzan danak euren etxeetan.

Gero eta barri itxaropentsuagoak etozan. Guk genduan bakearen
garra! Halantxe, itxaropen bizitan, handik Laredora jatsi ginan,
kalean, eskoletxe baten leku hartuz, dana egina zala-ta.

Eta Laredon zer? Egumak igaro, ezer egiten ez gendualako asper-
tuta.

Oraindik uda zan. Bero eta sargori egunak. Soineko ugerrak hon-
darraz kendu eta...

Elantxobe, Ibarrangelu eta Mundakan, kapitaien emazteak itsas
ondoko etxeetako leiho zabaletan senarraren txalupa noiz agertuko
itsasora begira kantari egoten diran antzera, halantxe igaroten gen-
duzan egunak Laredoko hondartza luze eta zabaletik itsas handian
begiak genduzala, "Txalupatxu bat, txalupatxu bi Santoña aurrean
agiri" kantetako gar, ames eta preminaz.

Tarteetan, kai ondoko mendi azpiko tunela igaroten ausartzen
ginan, itsas bidean beste alderdiren batetik agertuko ete ziran igarri
nahirik.

Beti be egocra asper eta lainotsu ha amaitu nahirik.

ZEINEN MENDE GENGOZAN?

Gatx da gerrate baten egunen zehaztasuna erabiltea. Kontuan euki hiru-lau aldiz soinean soinekoekin geratu ginala eta gerratik ez ginala etxetara etorri.

Gertaerak dira goi gorengo.

Laredon zer? Itsas giro. Apar eta bits, itsas bare eta itsas kizkur, hondar eta gar. Egun larriak eta egunetik egunera larritzen. Zenbat gengoza 1937ko udan Laredo, Colindres, Santoña, Gama, Argoños eta inguruetan? Nik Laredokoa dakit. Hona gure egoera.

Castro aldetik barri ilun eta nahastuak etozan. Baetozala, baetozala, baina ez txalupak edo itsasontziak, tankeak eta soldaduak baino.

Jentea estu. Zerbait nonbaiten izana, kexu. Handik urten behar ginalako itxaropenez gengoza. Ezina be ikusten genduan. Horregaitik listak egin behar zirala, izenak agertu behar zirala, zein geratu eta zein joan.

Txalet baten egoza gure gudarosteen arduradunak, hondartzaren hasieran. Gaurko etxadirik ez egoan oraindik, turismoaren premina, eskabide eta lorrak urrun egoza oraindik.

Hango burrukak! Ezin inor baretu. Barku bi edo hiru baetozan, jakina zan danentzako aukerarik ez zala egongo. Nor gelditu?

Ez zala txarrik gertatuko. Gudari soil eta bestelako jentek ez cukielat zertan kezkatu. Agintariek bakarrik urten egiela. Gerrako gidariek bakarrik.

Bost minutuko barealdia, esanak aintzat hartu balira lez, eta bat erremuskadan hasi orduko, hor besteak lehen baino bizi eta itsuago.

Halantxe gabiltzala, Laredo ganean, gaur torre luze biribila jasoa dan tokian, hara etsaia agertu, bestaldekoen kotxeak hurreratzen igarri.

Italiar ikurrina ikusi genduan guk haizetan, lehenengotan. Hori egia.

Horrek be batzuk baretu zituan, esaten zana, italiar agintariren bategaz zerbait egin zala itxura hartzen zalako. Baina eta besteak, gehienak?

Lehen baino larriago. Hori ikusi eta arineketan itsuan hasi ziran batzuk hondartzatik zehar, besteak bide nagusitik, Santoñara hurreratu nahirik. Bakotzak ahal eban eran. Hara sartuko ei ziran ontziak, txalupa merkanteak.

Laredon geratu nintzan. Ikusi eta ikusteko.

Sidekardun motor baten laster zan italiar talde horreetako buruzagiren bat. Ikusteko zan haren ausardia. Ez ete egoken gure artean minak eta nahigabeak eta hori ikusi beharrak itsutu eta beretik atara eikeanen bat?

Udaletxera joan zan, harro eta zorrotz. Euskaldunontzako gerra amaitu zala hots egin euskun. Nasai egoteko, baketsu.

Udaletxetik berehalako baten zabaldu ziran ordenak: gudariok bakotxa bere tokietara aldentzeko eta han geldi egoteko.

Barruan, bi-hirutan hartu genduan agindu bardina. Batailoietako armetatik gain, beste edozelakoren bat eukanak, kuartelean bertan lagateko. Bilbon emondako errebolber handi bat gogora etorri jatan. Bilbon bertan laga neban *Egunako* idazkaritzan neukan mahaian. Barre egiten neban neurekiko. Errebolberra emon eusten eta sekula ez beretzako bala batik. Bihotzik ez horretarako.

Laredon, azken orduan, agindu berezi bat hartu genduan guretarrengandik: intendentzia zabalik egongo zala, bakotzak egoki eritxana hartzeko.

Gau haretan, kalte egiteko adina esne batu gozo hartu genduan, potoak zabalduz. Ez ziran ordu asko igaroko gure *leche condensada* hori garrazten igarteko.

Lorik ez genduan egin gau guztian, nahi eta aterpean egon eta egunaren larriak jota gure buruak igarri. Neke gehiegi lotarako. Bes-

talde, ordurik ez eban galtzen arerioak agindu barriak emoten, eta zer ikusi edota zer entzungo gengoan.

Nire burua aidean ez badabil, dagonil edo abuztuko 25ean gertatu zan hau. Gure arteko itauna, jakin nahi eta erantzuten ez genkiana, hau zan: zeinen mende gengoan?

BURUA MAKUR ETA BIHOTZA GORI

Laredo. 1937ko dagonilak 26.

Goizeko agindua: inora ez urteteko.

Gerotxuago: gertu egoteko.

Handik laster: zumardi edo alameda ingurura joateko.

Ondoren: talde bakotxa, arma gabe, baina talde lez osoan agertzeko.

Igarri genduan. Azalak bete eta barruak mindu beharrean ginala oraindik. Begiak busti eta gorritu eta barrua irakiteke gengoan ba!

Guretako batailoi bat hautu eben makurpena ofizialki, agirian egiteko.

Negarrez dagoan gizonak ez daki hitzik egiten; albora begira edo behera begira, begiak gora jasoteko adorerik eta indarrik ez daukan gazteak, bere orri idatzia dauka.

Irakurri irudipenez goiz haretako gure egoera. Hango hitz leunak, isiltasun gordin eta bete-bete haretan, guk irunsi ezinda, haizeak ezkutetan zituan.

Niretzako... latin ikasletako esaera nerabilen: *morituri te salutant*.

Aurrean, zuri, gorri, hori, berde... malkoen leiarrak nahastu egiten zituan koloreak. Belarriak bai igarten eben oinots nekatua:

Latz, hots

galduen oinok.

Eusko gudari izan ginan, izan ginanaren ordeko emaitza haritzeko oraindik. Istorio handiago bat egun berean bizitzea gatx.

Amaitu orduko, oraindik batailoiak aldebanatu orduko, hainbat kamioi zahar gertu erreskadan. Italiarren *Spa* berde ilunak gehienak. Norako?

Nahi ebenak eurretan sartzen hasteko dei egin eben. Eta alkarren lehian, alkarri bultzadaka, danak aurrea hartu nahian bete ziran eta urten. Inork ez ekian nora. Billora? Asko ginala eta bazan horrelako poz giro zerbait. Besteok zain. Goserik be igarri barik.

Handik ordu batzuetara, barriro agertu ziran eta ostera be lehen-go bultzada, alkar jote eta estutasunak sartzen. Norako? Bilborako?

Kontuak egiten hasi eta kamioi hareek ezin Bilborako ostera hain arin egin. Kezkak. Bidean lagaten ete zituen lagunak, Ortuella aldean edo, handik trenetan bialtzeko?

Ez genkian alde horretako barririk. Ezin guzurtetsi edo egiaztatu.

Beste ostera bat gehiago, handik orduetara. Bardin. Iluntzea etorri zan gure txanda ordurako.

Sartu gu be eta aurrera, halako baten.

Castron herria igaro eta Bilbo aldeko bidean hartu baino lehen, hara geldu gure aurrekoak.

–Jatsi zuek be –hots norbaitek– aldretan ez, bata bestearen atzetik erreskadan baino.

Bide hegaletik gora, baratza igaro behar. Goian etxea, baratz buruan. Aurrean, ezaugarri, Josuren bihotzaren irudia. Izen hori kolegioak. Piloka, inguruetan, lehen etorriak. Gora eta gehiago. Ahal genduan tokian leku egitea gure kontu zala eta han laga ginduezan, biharamoncan etxerako beste osteraren bat egin beharko genduala-ta.

Silvio Pellicoren *Nire kartzelak* liburua etorri jatan burura. 1832 urtea agertu arren, ehun eta bost urtetara be eguneko. Eta Ovidioren elegiak be bai. Ez al da berea *gau ilun haretako irudia niregan bizitean...*?

Etzetik urten neban lehenengo gauaren oroitza nekarren. Urte osoa baino hilebete gitxiago hain zuzen, egun honetan, etzetik urten nintzala. Gau haretan ez nekian noiz arteko eta zelako gerran sartzeko nintzan. Gau honetan be ez dakit gure iluntze honek zelako egun argitzea eukiko dauen.

Gero, biziak kontetako jakiten ei dabe eta, etxeko ataria barriro ikusi orduko beste hiru urte eta erdi igaro behar zizala konturatuko nintzan. Hara nire gertaera. Parkatu, ez nirea; “ezer egin ez genduan” gaztedi oso baten kondaira da.

Laredotik urtekeran gaua etxean egiteko amesez urten ginan. Gure etxea...

Ames egiten genduan goizetan
noiz biziko ete ginan han baketan.

MUSIKA ETA GUZTI

Polita da Castro,
eder hango neskak,
haiekin dantzatzeak
sortzen ditu kezkek.

Halan, musika eta guzti. Bai eta malko eta guzti, eta odol eta guzti be egon ginan Castron.

Milaka lagun aterpe txiki baten. Ez ur eta ez irol, ez mahai eta ez ohe. Alkarren ganean, ahal zan tokian, egoki etorri edozein tartetan.

Urtetarako simaurtu genduan hango lurra. Egunean hiru-lau aldiz aldatu behar izaten genduan lur hori gure soinak arintzeko. Gero, piku eta palazko ekipotan, txandaka, ilara luzetan erreten sakonak ateraten genduzan horretarako. Lurra hartzeko eta lurra estalgi. *Coprógenas* baino irakurgai usaintsu eta ateraldi irritsuagoak egin eitekezan gugandik han.

Etxearen goi aldean, mendi aldera zan hori, baratzean.

Etxearen behe aldean, hango lora artean, bagenduzan gure arantza zoliak. Agerbide minberatsu eta larriak. Bakotxa goitik behe-
ra etenda lagaten eben agerraldi eta egonbehar itzalak.

Noiznahi deitzen euskuen taldeka hara. Han tinko egon eta euki, gure aurretik, arpegietara zorrotz eta zital begira gizonen bila ebilzan mandatariak geldi-geldi, banan-banan igaroten ziran artean. Nahitaez garratz eta erreta etorri behar horretan etozanak. Eta nahitaez mendetutako gizon batek bere zotina igarri behar. Baten antz irudi bat nahiko, handik aukeratu eragin, atera eta eroateko. Baten lotsaz

gorritze bat nahiko, besteari irudipen txar edo kezka edo zalantza suspertzeko.

Alderdi itsu eta beroak, gorrotoak gaindutakoak, badaukie zertan eta nondik gaitzetsi gerretan. Baina eta hotzetan gertutako alderdi zital eta pozoidunak hobeago ete dira?

Egun bi-hiru barru hazteriz (sarnaz) bete eta maldatu ginan batzuk. Hanka eta oinak haragi gorritan, puspuloka. Egoera minberatsua.

Baratzaren hegal bateko etxe txikian egoan botikina. Lehenengotan, hara joateko baimena eskatu eta nekez lortu. Zauriak erakutsita be, alper, nagi edo tunantetzat etsi. Hainbaten artean gertatu eitekeana hori be, ezin ukatu.

Osagileek ikusten eben zer genduan. Eta? Hautsak. Zer eskatu geinkean besterik, eta zer ete cukien, euki be, gehiagorik?

Egunetara, hondartzara bialdu edo aterateko premia edo horrelako zerbait erakutsi eutsen zaindariei, danok gaixotuko ez baginan be. Halan, gero eta ugariagoko talde bat, ahal genduan garbitasuna egitera, itsas ondora eroaten ginduezan, gure zauri eta urratuak kresalez erre eta bizitu eta gorritzen.

Gosea be baetorren. Lata txiki batzuk, hiru-lau laguntzako bat, eta eutsi. Egona asmotxa eta zirikalaria ei da eta alkar haizetzen bagenkian. Alkar adoretzen be bai.

Oraindik ez genkian bide barrien urratsik. Egunen gorabehera zalakoan bakotxaren etxerako ate sarea zabaltzeko.

Burua arindu eta galtzen be hasi ziran batzuk, gosez. Ezin ibilita indarge beste batzuk. Indarrik eza, makal egoera igarten, gehienok hasi ginan.

Merkatariak agertu ziran anaien artean, tratulari txikiak. Dancetako gara. Gure behi eta txahaldun diruak trukatzeko... boltsan bezala, zelako haizea halako bela. Lehenengo eta bereziki, bizi behintzat.

Halako baten trenera eroan ginduezan. Bilbo aldera ginoiazan. Arkumeak lez, piloka, jarleku gabeko bagoi zabaletan. Atea erdi ede-

gita bidean, itoko ez baginan be. Geldi beharretan, soldaduak kanpotik ateari morroiloa sartu eta barruan barrukoak.

Ibiliaren neke eta galdan, itxaropen bat: gero eta arduratsuago gure Bilbo aurrean eta oinpean igarri genduan. Eta?

TRENBIDEAN BILBON

Ai Bilbo, Bilbo,
zertan zagoz lotan?
Italiar eta doixtarrak
pozik zure lepoan.

Txandarik ezin hartuta, alkarri lekurik emon nahi ezta, bagoi leihoetako burdin artetik zerbait igarri edo ikusi nahian gengoan Bilbon, ez dakit zein egunetako goiz lehen baten.

Buero Vallejoren *El tragaluz* ikustean, gure Bilboko egoeraz gogoratzen nintzan. Itzaletik argira begira, baztertu eta nekatu baten gar, gogo, dei, eskari, gose, larri, etenbako nahi eta eutsi ezineko min...

Halantxe gu. Nor ausartzen zan Bilbo bertan arpegi emoten? Etxe batzuetan, leihoetara urten nahi ezta bezala, bildurtuta lako irudi ilunak ikusten edo igarten genduzan. Hor ikusbide bat.

Tren geltokian gengoan, bide geldi edo hilean sartuta.

Danetariko. Andrazkoren bat leihoan igarri orduko, maitekerietan crituak; Bilbo honetako goikaldeetako neska galduen ikutu eta labankeriak gogoetara ekarzanak; Bilboren isiltasunak askatasun mina barriztu eta negar eragiten eutsenak; bildurti eta koldarrak eta gartsu eta itsuak; ezer jakin nahi ez ebenak eta ezinaren amorruez kirioak (nerbioak) galtzen zituenak. Danok pisu batek gainduta: gerra galdu genduala bagenkiala, nahita zehatz konturatu ez hortaz.

Ordu batzuk egin genduzan era horretan. Beste trenei egokitasuna edo aurea emotearren, edo ez jakin erreleuben zain edo agindu barriak hartzekotan.

Guk abestu ahala, aurreko etxe barruetan, noizbehinka, hautsak kentzen ziharduen antzean, zapiren bat aidean barriro, agurka.

Geldi gengoan eta egoera larri haretan be, oraindik bagenduan gure galdu ezineko itxaropen txirrista. Handik etxetara bialduko ginduezalakoan, fede onez gu.

Bagoien ardatzak mailuz jo eta pattalduta ete egozan igarteko ardura eta zeregindunak igaro ziran. Trenak bidea luzatu edo aurrea jarraitu behar ete? Kezka.

Barrutik, edozelako tartetatik, hango langileei oleska. Jaramonik ez. Zergaitik erantzun ez?

Atea zabaldu eta aurrean ofizialetako bat, geldi egoteko eta hainbat lasterren esateko zenbat gengoan barruan. Zenbat? Ez al daki? Metroak baino gehiago. Barriro atea itxi eta hor konpon. Zertarako zenbatu? Ez al dakie Castrotik zenbat gatozan?

Bagoaz nekatzen, aspertzen.

Barriro atea. Urkia hor al dago? Huts. Zergaitik ha bilatu? Eta etxera bialtzeko bada, zergaitik atea zabalik lagateko bildurra?

Castrotik ekarri genduan itxaropena, bere neurrira jausi ahala, etsipen indarra gugaz gaintzen igarten genduan.

Zergaitik deitu cutsan treneko gidari batek adiskide bateri: Txomin, badakizu? Arandara goaz. Ikusi arte. Cuk entzun edo jakitearren edota gu konturatzearren?

Bagoi batetik bestera, ohol tarteetatik, leihoetako argi bideetatik, lehenengotan ez bai itxuran, gero eta ziurrago, hitz bat zabaltzen igarri genduan gure artean: Arandara, Arandara.

Agur gure Bilbo. Agur etxerako asmoak. Trena txistuka eta tengadaka igarri genduan.

Ateak zabaldu zituen. Zabaldu ahala, ate bakotxean soldadu bi iskilu eta guzti jarri. Trena, narraz eta alper, baldar eta oker, aurrea. Tapia erdal olerkariena:

Qué bien, qué bien, qué bien

va el tren, va el tren, va el tren...

Ez al dogu jakin behar nora doan?

Etsipena azkena beti be. Soldadu batek: gaurko legean, zuena lako bakotxaren barrua ikusi behar izaten da. Horregaitik eta horretara zoaze Arandara. Ez dakizue? Esamina egiten, Arandara.

Guretarak laster: odola ikustera? Nik 0 daukat. Nik be bai, besteak. Ez dogu hori euskaldunik gehienak?

-Ez dot uste letra horreotaraino heltzen diranik hango azterketak. Ez dakizue? A, B eta C ez al dira errazago?

Begira:

A = fusila eta mendira.

A-D = piku eta pala.

C = kartzela.

Eta soldaduak, hortik aurrera berari ezer ez itantzeko, bera gehiago ez zirikatzeke, agindu eban zorrotz.

Gu euskaldunok beti atzeraka. Zelan irabaziko genduan gerra, bakotxaren fitxarik ganoraz hartu edo egin gabe bagenbilzan?

DUEROKO ARANDAN

Egumen kontua galduta, badakit Bilbotik Arandara heldu ginanean, leihoak apainduta bilatu genduzala. Ez guri agur egiten. Euskaldun batek, abadinar batek sortu ei eban egunaren izena: hispanidadearen eguna. Pilareko eguna.

Beharbada ez nintzan konturatuko horrekin, nire agirien artean zertifikadu bat aurkitu ez banen. Halan dino: "Castron *presentatu* nintzala 1937ko dagonilaren 26an (abuztuan); handik Arandarako joan beharra hartu nebala eta hemen sartu nintzala urriaren 12an eta bertatik Mirandara bialdu ninduela urriaren 18an. Eta Mirandan ez dala agertzen han egon nintzanik".

Laga Miranda beste baterako.

Arandan zer? Han be txakurrak ortozik. Halan ni. Minez, hankarik ezin erabilita, gero eta zabalago hazteria (sarna) garritik behera.

Trenetik urten eta nekez egin genduan bidea, herriko hegal baten egoan guretzako egonlekua. Besteakandik aldenduta geratu ginan gaixook. Halaz eta be dei eta zereginak besteekin batean.

Fitxa leku zan Aranda. Tribunal batera deitu han, zer ete ginan edo zer izan ete ginan agertzeko. Ez neban herriko agiririk.

Herrira eskatu arren, ez ziran garaiz heldu. Niri zuzenduta ez behintzat. Geroago bai, handik bi-hiru urtera hartu nituan. Onak: "buena conducta social, moral y religiosa".

Geroago jakin neban isopu eta guzti bedekinatuta etorten ziran agiri batzuk deabrukeria eukiela "a petición del interesado" ipinten baeben.

Esatea lez: hemen, herri txikietan, danok ezagutzen gara. Ezin ukatu. Baina agiri hau hartzen dauenak jakin daijala ez dala borondatez emona, ukatu ezineko *konpromisoz* baino. Eskabidez emona, ez borondatez.

Danok egin behar izaten genduan gure agerpena tribunal aurrean. Nik, gitxi gorabehera, hau:

-Izen-abizenak ondo dagoz?

-Halan esan behar.

-Bilbon zer zinan?

-Urteko kinto.

-Eta urteko kinto izan eta zelan ez zinan egon Garellanon?

-Beharretatik gain, *excedente de cupo* gelditu nintzalako.

-Zergaitik ez zinan Bilbon gelditu?

-Urteteko aginduz urten neban.

-Herrian zer zeregin zenduan?

-Ikasle.

-Zein alderditako zinan?

-Inongo ez.

-Euzko alderdikoa zinala badakigu.

-Nik badakit ez nintzala.

-Egiarik ez dinozu. Kuadrau zaitetz.

-Oraindik ez neukan horretarako adinik. Beraz, ezin izan.

-Luistarren lehendakari izan zinala dinosku hango parrokoak.

Ezagutzen Gines Aretxaga?

-Ezin ukatu. Harek idatzi dau?

-Bai. Parroko horren agiriak balio gitxi dabe. Separatista da.

-Berak baleki zer dinozuen!

Besterik ez. Ezer egin barik egun batzuk gehiago bertan, gaixolekuan.

Goiz baten deika ebilzan; hain zuzen be, haserre eta zital kabo bat ordu lauren nire bila ebilzala-ta. Ezin berari sinistu eragin gure tokitik ez genduala ezer entzun. Konturatu orduko ostikada bi sentidu nituan neuk dakidan toki baten. Goizeko diana zan.

Lehen minez eta orain nekez, ia tatarrez joan behar izan neban trenera. A D sailean sartu ninduela jakin neban. Bilbon esaten ebena; A D = piku eta palako gai.

EBROKO MIRANDAN

“Eta Mirandan ez da agertzen han egon zanik”.

Halan inoan geroago soldadutzako denporak itxuratzeko eskatutako agiriak. Arandatik Mirandara ondo zainduta eroan ginduezan. Eta Mirandan...

Harri alperrari tenga ibili nintzan hainbat egunetan bideak itxuratzeko harrikatz-hautsa zabaldu eta zabaltzen.

Eta ibai ganean, “aire libreko komuna” guk ipini genduan. Eta han jaso zan egurrezko kapillatxuan guk egin genduan lan. Ha egiten gendualako libre gengoan handik ia astero urtetan eben batailoietarako izentau edo deitu ezkeru, bertako langile ginala esan eta han geratzeko.

Halantxe egin be hiru-lau aldiz. Ez ondo gengoalako, baina... Egon ginan tarteetan zigortuta, adiskideen artean, gure txaboletan, euskeraz egiten gendualako. Halan entzun edo ohartu kanpotik zaindariak. Eta Mirandako gaugiroak ez ziran epel alkondara hutsik tinako, firme, orduak igaroteko hango ihintza hartzen.

Gaueko orduak ez ziran baketsu guretzat, soinean goseti igarten genduzan zomorroak geldi egoten ez ekielako. Lanik ez egoanetan, nahiko zeregin hartzen genduan praka eta alkondarak kendu eta josturen hegal eta tarteak astintzen, han ezkutetan ziran bizilagunak ezin uxatuta.

Eta eztarriak garbitzen be ikasi genduan, ameslari eta gerlarien abestiak kantau ahal izateko.

Nik dakidala hantxe bete nituan 23 urte.

Herri txistularia da Miranda. Gau eta egun trenak txistu jotzen. Gure aurretik igaroten ziranetatik zapiak atera eta agur egiten igar-
tan genduzan ibiltari batzuk. Gure artean batzuk negar egiten eben.
Sarrri gertatzen zan bertara etorritako senideak etxeratzen han igar-
tea. Ikustaldi ondorengo malkoak, trena ikustean barrizten ziran.

Zori on bat euki neban gerratean. Oraindik ez neukan maite
lokarririk. Maite minetan ibili gabe nengoan. Beraz, ez neukan hor-
taz oroitzia eta egarririk. Baina neskatila askori esan neikioe mutil
ugari ikusten nituala negarrez euren kartak hartzean. Maitasun atse-
kabeak... eta ez hain zuzen maitasunetik sortuak.

Paperek ez dabe esango, baina nik badakit Mirandan urriko
hamazortzigarren eguncan sartu eta abenduaren lauan urten nintza-
la bertatik.

Ez dakit zein eskertu, baina idazkaritzan baegoan batailoiak ger-
tuten esku handiko bat. Arratiarra zala dakit, besterik ez. Harek
esanda lez jakin neban behin, egun bi barru Mungia alderako asmo-
tan batailoi bat gertuko zala eta nire izena be sartuko ebala eta auke-
ra hori ez galtzeko.

Halan, gertu gengozala, gure laguna estu ibili zan danoi jakina-
zo ezinik harako gertatu zan batailoia, azken orduan, Ebro alderako
eskatu ebela prisaka.

Abenduko laugarren eguna: Santa Barbara eguna. Esaera gogo-
ratu neban: *Santa Barbara eta Santa Krutz, Jauna erruki zakiguz.*

Behin pentsau dogun ezkerro, aurrera. Ez nintzan baliatu nire
aukerekkin.

Halantxe urten ginan Mirandatik, *trabajadoreetako* 64 batailoia
izango zanean.

Beste azken orduko agindu batez, Ebrora ordeztu, Nafarroako
Oteiza de la Solanara joan behar ginala jakin genduan.

Gau haretan, Lizarra inguruan lo egin genduan, irargi argitan.

Horra Mirandako zerbait. 47 egunetan zenbat barri!

Halan dan edo ez, ziurtatzeko eleizgizonak testigu on badira,
izentauko neukez hiru adiskide gaua *al sereno* igaroak, ikurrinpean
tinko, cuskeraz hitz egiten sentidu zituelako euren txabolan, gaulehen

baten: Aita Ramon, pasiotarra; Amutxastegi eta Urrutxurtu abade-
ak...

PIKU ETA PALAZ

OTEIZAKO DEABRUAK

Mirandatik Lizarrara joaten egun bat baino gehiago igaro genduan. Gau bat Lizarran, inguruan. Goizean goiz, tapa-tapa, Oteiza aldera. Lizarratik Tafallarako bidean, erdi alde inguru egiten da Oteiza. Aldapa. Oinez gu. Baldar eta nekez. Hiru hilebete kanpoetan euki ondoren, lehenengo urteera zan.

Itxuraz, baekien Oteizan joateko ginala. Bertara sartu orduko, aldapa gogortu egiten da. Eta hantxe, berreundak metro lehenago, hegaleko muntetan zain egozan herriko neska-mutil txikiak. Isildu ezin. Hareen erretolika!

–Gure antzeko dira-ta. Aiba los!

–Jope! Buztana non daukie ba?

–Deabruak dirala-ta, adarrik ez daukie behintzat. Jo-do!

–Mekatxis! Gu lakoxeak ez dira ba?

Umeeek garbi erakusten eben zelako antz irudia sartu cutsen, zer entzun eta irakurri eben. Zaharrek toki ezkututu eta salatariagoetatik ikusi ginduezan herrira sartzen.

Bide ondoan dago eleiza. Bideak eteten dau eleiz-aurrea eta plaza. Hantxe batu ginan. Arapilesko teniente bat zan gure buru, komandante. Castellarrek baino arenga zaratatsuago bat sartu euskun, agindu zehatzak, bildurtzekoak.

Halaz eta guzti, lotarako tokiak taldetan bilatzeko baimena emon eban. Poztu ginan.

Formazinoa etenda gero, eta aurrez, gizon bat igarri neban zolizoli niri begira. Arteगतु nintzan. Castroko giroa hemen be, gizonen bila? Bere arpegia ezagun zan niretzat, baina gogoratu ezin. Bera hasi zan jardunean:

–Ezagutzen zaitut.

–Baleiteke.

–Zergaitik zuk ni ez?

–Arpegi ezagun egin arren, ez naz gogoratzen.

–Hau eta ha zara, ondarrutarra.

–Ez nago ukatzeko.

–Ez bildurrik fletxa eta guzti ikusten banozu. Zure herrian karlista edo abertzale izan behar zan. Nik, bata nahi besteko ezin nebalako, errepublikan izan nintzan. Egozan banaketako. Gogoratzen ez?

–Kontxo! Nikolas zara! Maisua. Kursilloetan zinala ni egon nintzan hain zuzen zure orde herriko eskoletan.

–Oraindik azken hila zor deusut...

–Mesede bat. Han zer izan nintzan... zeuk bakarrik dakizu. Hemen Falangeko idazkari naz eta parrokiako organu-jotzaile. Han gorri eta hemen zuri. Zuek han santuei mosuka eta hemen deabruekin orroaka. Ezagutzen gara. Iso eta kitu.

Eskerrak emon neutsazan, eta esan be bai agintzen eustan bere etxe ordez, nahiago nebala lagunartean bilatzen genduan txabolaren bat. Halanda be, emaztea agurtzera croan ninduan. Mahats ale sikuak hartu eragin be bai ni eta lagunentzat.

Lasto leku bat aukeratu genduan ostatutzat lagun artean.

Berehala herria ikusi nahi eta parrokiara joan ginan. Gu sartu eta parrokoa agertu zan zelatari. Lehenengotan atzean, gero hurreratu zan. Oker ez banago Bitor Biurrun zan bere izena.

Alboan cukan bere etxera croan ginduzan. Kontu kontari, bera be euskaldun zala-ta. Ez ekian besterik “ni naz, zu zara, bera da”, zelan lodi lodiz esaten eta hitzen bat baino.

Ama zaharra, larogetak urtetako ama, dardaraka ikusten genduan. Hemen, ama, gorriak. Ikusten?

–Corriak honeek?

–Bai, ama, bai. Baina ez estutu.

–Bitor, etorri hadi hurreratxuago.

–Ez bildurrik, ama. Ikusten? Eleizan be egon dira.

–Honeek dira Bilbo erre ebenak?

Barre egin genduan. Han zertifikadu zuriak emoten ebilen nire herriko gorri bakarretakoarekin gogoratu nintzan. Sinistuko ete eban ama zahar harek, bere semeagaz ia egunero jokoan ibiltzen zan organu-jotzailea, bere pentsaera eta jokabidean, libertade haizeen brastadetan... Kandelak amatetera lehenago joango zala biztera baino?

Lehenengo takada emon genduan. Buztanik eta adarririk ez euskuen bilatu, ondo begiratu arren.

Igarri barik zabalkunde edo propaganda batzuen ondorenak beratzen hasiak ginan.

ORAINDIK OTEIZAN

Oteizara heldu eta bigarren egunerako Sortzez Garbi eguna gertatu zan.

Oraindik ezagutzeke gengoan lagun asko. Meza euki genduan. Organu jotzaile lagunari esker, korora joan ginan batzuk. Han igarri genduan Perossiren ahots biko meza ekiela holako jaietarako.

Baegozan gure artean musikariak, baegozan organu-jotzaileak be, eta herrietan abeslari izanak. Ez ete ginan talde bat osotzeko adina? Halan gertatuta be, nahiago genduan herriagaz bat egin, bertakoen nahastean bizi.

Cabonak etozan. Ez genkian noiz arte gengoan han, ez zer egiteko ginan. Piku eta palaz norabaitera joan behar baginan, ikasiko genduan gero be zeregin hori.

Un-do, un-do, han ibiltzen ginan, ia egun guztian, errebera txiki eta erdikak ezin ikasita. Besterik ez.

Cure komandantea gizon alaia zan, besteok eukiten doguzan zoro aldiak eukiteko baimena lagata. Erdi salduta egoan, lagun barik. Bere ondoren, sarjentu bi. Errioxarrak biak. Berdea bata: piper berde errea, zitala, harek, min emotearren, ukondoa erreko eban. Bestea, ordez, arto bero.

Txori hegalaria bata. Bestea, ezkondua, maite mintsu. Hau etxean hobeto egongo zan. Bestea galoien harrotasuna erakutsi nahirik.

Oteizan, herri barruan, nonahi ibili geintezkan. Herritik kanpora, bostehun metrora, markak eginda gengoan bideetan, ha zan guretzako muga.

Gabonak heldu ziran. Aldra polita batu ginan abesteko gurariz eta borondatez. Gernika aldekoak hainbat. Bertakoa zan organu-jotzailea be: Joan Larrinaga. Saiatu ginan eta herritarrak eta gu batu-ta, koru bete xamarra osotu genduan. Gabonei kutsua gordez, "Mesias sarritan agindu zana" be abestu genduan.

Bagenkian Bizkai aldean otoitzik erraz eta ohienak be galerazo egiten zituela euskeraz. Guk herri honetakoak bertan sekula entzun ez eben Mesias euskeraz abestu genduan, Inor ez zan haserratu. Poztu bai.

Halako kantu eta gogoia ezagutu eta esaten eben: honcek zergaitik dira ba gorriak?

Halantxe, Gabon guztiak, baketsu igaro genduzan.

Egun baten edurra zan. Zuri-zuri. Bidea estalduta, ia metro lauren. Erretoreagaz edurtzan ibiltaldi bat egitera urten genduan bostsci lagunek. Bera etorri zan guri deika horretarako.

Bidean genbilzala, zelatari ikusi genduan sarjentu zitala. Etorri zan muga genduan tokira eta zarataka hasi. Parrokoak onez esan eutsan guk ez genduala errurik. Berea zala, baina metro batzuk gorabehera, halako egun baten, ez zala horretan gogortu behar. Berean ha.

Plazara eroan ginduezan. Hantxe, edurtza zurian, garritik gorako jantziak kendu eragin eta tinko cuki. Gero, bana-banaka, ate estu batetik udaletxera sartu eragin, berak idizilagaz *loxintzak* emoten zituala.

Inguruetako emakumeak haserre igarri genduzan lehenengotan, errukiz eta haserre, eta azkena ikustean, dekadarka ekin eutsen gure zaindariari, lotsatu eraginez.

Gure pekatua, ez zan gurea.

Neska bateri begia luzatzen hasia zan eta neska horrek bere begiz bilbotar bat jota eukan, hain zuzen be gure artean bidean ebilena. Bezperan sarjentua destainen bat hartuta egoan nonbait neskaren aldetik, eta beharbada bilbotarrak mosuren baten gozotasunak labanduta. Kitutzeko, idizila guk lepoan.

Euki genduzan egun ilunak eta kezkatia be. Ebro aldetik zarata txarrak etozan. Handik hilda ekarritako soldaduen hiletak be gertatu ziran han gengoza.

Egun ilunak herrirako. Nahigabe, min, negar egunak. Batetik senitarte ugaria osotzen eben bertakoak. Bestetik, herri txikietako ezaupide luzea.

Ez ginan kalera urteten holakoetan. Onez esan euskuen hori. Eta herriko isiltasuna handiago egiten zan. Guk be bihotzcan sentiduten genduzan gerrako heriotzak. Baekien herritarrek. Baina, aparteko mundu bat lez, gizarte haretatik kanpoko lez, lasto tokietan geratzen ginan. Pentsau be bai, orduko pentsacretan, gu lastoak ginala eta besteak garia.

OTEIZARI AGUR

Azken kronikan esana: Oteizan gengozala, gerran ebilzan bertako semeen heriotzak geratu zirala. Eta horrelakoetan, gure batailoia bere egontokietan geratzen zala, kalera urten barik, bertakoen minaren lotsa eta begirapenez.

Beste hau gehitzeko laga neban. Behin herriko seme bi ekarri zituen Teruelgo lurretan hilda. Oteiza lako herri txiki baten horrelako gertaera batek zotin eragin behar.

Hileta gertu eben. Gure batailoian gengozan abeslariak pentsau genduan, guk ez genduala zertan koldartu eta zertan lotsatu hilei omen egiten, eurei betiko bakea eskintzen. Beharbada mutil bi harek gure antzeko izango zirala edota gu baino mintsuago ibiliko zirala orduko gerran.

Ez jakin gure lurraldean gertatu baziran, gure artean makurtu eta beheratuta egon beharko ete eben be.

Eta jaictan egiten genduan antzera, koroa indartzera joan ginan.

Ez dakit ze pentsauko eben nafar anai hareek gure jokabide horretaz. Isil eta harrituta bezala ikusi ginduezan eleizara joaten. Ez ginan ausartu gu be euren artean geratzen.

Tenor segundotik ez naz sekula pasau. Baina ez dakit zergaitik, gertaerak, ezaupidea, lagun arteko bultzada edo dana dalakoa, Oteizan egon ginan bitartean sekula euki ez dodan gaitasun bat euki neban: koruko zuzendari egin beharra.

Gogoan daukat, hango gizonak, koroan gengozala, gure inguruan, inoiz baino arreta gehiagoz begiratzen euskuela, beharbada guk



Tarbesko gotzainagaz. 1940ko Pazko Eguncan koroa zuzentzen irudiaren erdian alboz..

be une haretako minaren itzalean, gure abestietan, bihozkada berezi bat ipinten gendualako. Handitu bezala egin ginan, ugaritu lez, eta hileta kantuak samur urten eta gogoz entzun ziran.

Berez urtendakoa zan jokabide hori, inork zirikatatu eta haizetu barik, barruko sentimenez.

Badakigu herriak gogoan euki ebala gure jokabide hori. Ordukoak gogoratzen dabe oraindik. Gure denporetako batzuk dira han. Orduan neskatala ziranak ezkontuta. Mutilak frentecetan ebilzalako ezin guk eurak eta eurak gu ezagutu. Baina neskak... Tabernako ahizta baltzeranak aidean erabilten zituen gure arteko asko. Gaur hirurogetak urtedun eurak be, eta etxeoandra zabal eginak bizi arren, lehengo edertasunik ez dabe galdu.

Batailoiko lagun asko nik baino hobeto ezagutzen ditue eurak. Izan be, oraintsu bertan jakin nebanez, badira ia urteoro bertara joaten diran 64 langile batailoiko lagunak.

Lehengora jota, gogoan daukat guk eleizakoa amaitu eta berehala urten egin ginala, omenaldi politikoketan ez nahastearren.

Hurrengo igandean, hildakoen senide bat etorri zan eskerrak emoten senide guztien izenean, eta ezer hartu nahi bagenduan eskintzen. Eskertzeko zan euren gogoratzea.

Hori egitean ez genduan pentsau ez politikan, ez gure burua zuritu nahian ez beste egun egungo ezertan. Frutuak?

Gu, Oteizatik, begietan malkoak genduzala urten ginan, handik aldatzeko agindua etorri zanean. Ez urtetearen minez, bihotz zotinez, emozioz baino.

Herri guztia etorri zan agur egitera. Bidean jarraitu be bai askok herriaren mugara arte. Zer eskatu geinkio gehiago herri bateri, bildurrez eta arduraz hartu, gero geldi-geldi atek zabaldu eta azkenean atsekabe eta negarrez agurtu ginduzan herri hareri?

Gerran gengoan. Zenbat gerra egingo ete litzatekez alkar hobeto ezagutu ezker?

Lehengo hilean, jaietan ebilen Oteiza. Handik igaroteko zoria izan neban, gertabidez.

Aldakuntza gitxi herrian, kale, etxe eta tokiak, lehengo antzera. Lehen baino etxe gehiago hutsik, lehengo batzuk ez dira bizi. Inork ez ei dau eleizan organurik jotzen, nire *adiskidea* Lizarrara joana dalako zahartzaro eratsu bat igaro nahirik.

Udaletzeko balkoian, gure denporetan, hiru ikurrin egoten ziran. Orain, hiru hareetatik bi kendu eta beste hiru gehitu ditue: nafarra, herri berbertakoa, eta Euzkadikoa.

ROMANONESEN LURRALDEETAN

Berrogeta zortzi egun egon ginan Nafarroako Oteizan. Gerrateko giroa kontuan eukita, ez gengoan txarto. Horregaitik, urtarrilaren 16an kanpora urteteko albista hartu genduan, zurbildu ginan.

Tafalla aldera jo eta handik Castejonera. Ez dakit inguruen barri eta ikuspegirik, bagoi zarratuetan eroaten ginduezan. Dana dala, badakit Siguenzan lurra jo genduala. Handik barrero oinez, Guadalarako hainbat lurralde alper, huts eta baldarretan zehar. Mirabuenon gelditu.

Etenda heldu ginan, gaua eginda gero. Txabola luze baten sartu. Nor gelditu han? Ha zan lehenengo gaua, ha!

Nafarroan garbi zaintzen ginan. Aukera handi barik, baina zikinkeria gabe.

Lehenengo gau horretan... luzerako hondatuta geratu ginan, ez genduan lo askorik egin, ezin geldi egon, gau guztian soina arraskatzen.

Eguna egin orduko jakin genduan Afrika aldeko batailoia bat egon zala han eta gu sartu baino ordu bi lehenago urten ebala bertatik.

Mirabuenon hiru hilebete egin genduzan. Lehenengotatik hasi ginan piku eta palaz. Eta berehala zeregin barri bat ikasten be: maula egiten ikasten. Euskeraz esanda, alper, zabar, arduragabeko izaten, azpikeriaz jokatzen, edozeinek be igarteko bestean.

Ez genduan osagilerik gure batailoian. Geroago etorri zan hatakotzako bat, oraindik ikastaroak amaitu gabeko bat, salamankata-

rra, Bejarkoa. Zenbat bider gogoratu nintzan latinezko esaeraz: berezko ez danari, Salamankak ez deutsala prestetan.

Ha etorri aurrez, errioxar sarjentuak egiten eban osasun begirale. Ez eukan bihotzik hartarako, baina azkenean, gure gehiegikeriaz, behin edo behin ipuinekin bururaino egoala eta ezetz esan behar gure gaixo agerraldiari.

Goizean, txikoriaz koloretutako ura hartu aurretik hartzen genduan beretzako txanda. Jakina zan bere agindua: kinina hartu eta egon txabolan, inora urten barik. Danetarako eta danentzako osagaiak zan hori: kinina hautsa. Inoiz bikarbonatoa be bai. Ez genduan gehiagorik.

Hainbeste gaixo nahiko ikusita bildurtu egiten zan bera egunen baten komandanteak gaizki esango eutsalakoan. Halan gertatu be egiten zan, hamar-hamabost egunetara, konpainian langileak baino alper gehiago gengozala konturatzen ziranean.

Guk ez genduan telefonorik. Guardia zibilen kuartelean egoan. Harako izentau ninduen behin. Han egon, deiak hartu eta gaueko parte ofiziala hartzeko aginduz. Hori gitxi zanez, oraindik maitasunetan pentsau be egin ez neban honek, maitasuneko kartak idazten ikasi behar izan neban.

Gure komandanteak hainbat gerrako amabitxi eukazan. Horretan eukan bere gozamenak. Gerrako *madrinek*, maitasun hitz gozoen gain, baekiezan paketetxoak bialtzen be eta hor egoan jokia.

Hori zan izan be amabitxi horreetatik bilatzen zana, gerrateko bakartade, min, neke, laztasun, gose eta estutasunak kontauaz. Tartetan maitekerien bat, hitz laban atze bikotxen orde.

Bagozan amabitxi fededunak, politikoak, adar-jotzaileak eta lizunak be bai.

Mirabuenoko lurralde hotz, pobre eta itzal haretan, zerbait behar zan biziari ten eragiteko.

Martiko san Jose egunean, bere izeneko jaia zala-ta, gure komandanteak bezperan hartutako pakete eder bat zabaldu eta *plana mayoreko* mutilen artean jatea nahi izan eban. Mokoloirik handiena berak batu eban. Andaluziako tabladu baten antzera, hiru-lau ohol

erdian ipini eta han ekin eutsan dantzari sekulako umore eta pikardiaz.

Hurrengo goizean pultsua hartzen jakin behar. Benetako biharmona. Danok aidean, kalabojoan sartzeko eran, errua guk euki genduan atxakiaz.

Baina ordurako ikasiak ginan ba kantetan:

Ez dago filosoforik, ez teologorik...

Eta eutsi guk.

JANTZIZ ALDATUTAKO FRAILEA

Egun baten, Mirabuenon, telefonoaren arduraz nengoala, kapilaua heldu zan, etorri barri.

Berak eukitako hizketalditik igarri be bai nik euskaldun zala eta Arantzazuko fraile. Prisaka ordenatu zituen bere urtekoak negu gorrian, tokirik latzenetara kapilau lez bialtzeko.

Arantzazuko bake eta isiltasunetik Teruel aldeko gerratoki eta orduko izotzen artera sandalia eta guzti bialdu zituen batzuk. Edota gu bezala piku eta palazkoen artera.

Telefonoan bertan agertu genduan bakotxaren ezaugarria. Azkoitiarra bera eta ondarrutar ni.

Haren mundurako sarrera latz izan behar nahitaez. Fraile mistikotik alferez kapilau.

Lehenengo egunetik galdetu eustan meza laguntzen ba ete nekian. Baiezkoa jakin orduko, komandanteari eskatu be bai nahiko ebala ni bere laguntzaile izatea. Harek ezetz. Ni telefonoko zereginean ondo nengoala eta beste bat bilatzeko.

Hortan egoala, handik egunetara, uste gabe, Torre Sabiñanera aldatzeko agindua hartu genduan. Han ez egoan telefonorik. Horrela geratu nintzan "lan gabe" eta bere laguntzaile izateko aukeran.

Sasoi haretan Arantzazuko fraileak *binatzeko* preminarik ez eben eukiko nonbait eta horretan zuri etorri zan. Halan igarri neutsan lehenengo preminan, zalantzan.

Ez zan hizlari be. Ezin esan gure batailoikoak sermoiekin asperzen ginduzanik. Meza isilak ziran gureak. Inoiz Mirabuenon Larru-

zea mendatarrak bai egin euskuzan hitzaldi jator bat edo beste. Ha bera fletxadunen kapilau ebilen inguru haretan eta guk eskatuta egin.

Hitz gitxiko zan gure frailea, isil, nahigabe eta minak beretzako eskatuzale. Salduta ikusten zan gure artean.

Gaurko abitu edo jantziak baztertzeko moda honetan, zenbat bidar gogoratu izan nazen gure fraile alferezarekin. Ez eban ikasi sekula uniforme txairo erabilten. Bestelakoan ohituta, eskuak non sartu be ez ekiala.

Jatorduetan mahaitik jaikiteko desiatzen egoten zan, gure komandante eta osagiletzakoak egunik lagaten ez eutselako berdekeria eta lizunkeriak platerera atera gabe.

Konfiantza apurra hartu eta egun bat edo birako baimena eskatzen ausartu zanean, Soriako komentura joan zan bere gauzatxuak erabagiten, eta arimako arazoak konpontzen nonbait, eta... jantzi bila, abitu bila.

Horrela, kalcen alferez jantziz agertzen bazan be, bere gelan abitua jantzita otoitzean sumatzen neban, inoiz zerbaiten eske edo jakin nahirik beregana joaten nintzanean. Otoizlari zan eta ikasle.

Arantzazuko fraile isil eta umil ha, frailea zan, lagunartera egin gabe, goi-goietako bedar gozotan hazia, sasi arteko arantzetan mindu gabea.

Beste agintari biek ez eben unerik galdu eta lagaten bera zirikatzeke. Inoiz, zabarkeriaz, izara artean asunak sartu be bai ohian, eta lotaratzekoan giltzan zulotik edo tarteetatik begira egon, ia zelako haserrealdi edo amorruez jaikitzen zan, ohian sartzean. Bai petakak sarri egin be.

Sekula fraileari hitz garratz bat entzun ez. Txistu garratzak be irumtsi harek. San Frantziskoren espirituz, anai zituan asunak eurak.

Halaz eta... inoiz garratz jarki izan balitz, anaitasun hobeagoan ezagutuko ginan. Gu sasi artean bizi ginan ba! Izarrak ikusi nahirik, eta ez jantzien mauka eta paparretakoak.

Ez dakit ze politikako zan. Catx berari ateratea. Orduko giroari gorarik emoten ez neban ezagutu. Beraz, hortik ezer ateratekotan... Baina isila zan eta...

Batailoiko karten zentsura bere arduratan laga eban komandan-
teak. Egun bi edo hiru orduko, nik errazago irakurri eta hobeto eza-
gutuko nituala lagunak eta nire kontu laga eban hori. Guk silua las-
ter ipinten genduan, baina herrietan barriro zabaltzen zituen eta... ez
danak zuri-zuri.

Geroago, neska bateri nire maite nahiak azaltzen hasi nintzane-
an, neskak baino lehenago jakiten zituan Eako alkateak nire bihoz-
kadak. Alkatea bere senitarteko zan. Beraz, pregoia jo eta beste.

CALATAYUDERA BAZOAZ...

Guadalajarako Mirabuenotik aldara txikia egin genduan, han
hiru hilebetez ibili ondoren. Torre Sabiñanera. Alcolcatik 15 km
ingurura, bide nagusiaren hegalean.

Gaztelar herri txiki atzeratua. Edozertarako be inoren menpeko.
Ez ostatu, ez saltoki eta ez zer ikusi. Lugin nekatuak danak. Itxuraz,
behartsuak.

Aragoiko Molina edo Almazanen zituen bertakoak begiak. Han-
go merkaduetara jo eta bertatik elikatu. Neska-mutilen ezkontzak be
han erabagiten ei zituen.

Etxe pilaren aurrean, menditxu zapal baten buruan, torre zahar
baten ondorenak. Handik etorkon izena bera herri honeri.

Telefonorik ez egoan han eta nire zeregina amaitu zan. Aldatu
behar. Horra, horregaitik eta gure nagusiak kasketaldirik euki ez
ebalako, fraile gaztearen laguntzaile, bost-sei hilebetetan, inguru
hareetatik Donostiara ekarri ninduen arte.

Gerratokietan genbilzan, baina ez gordin gerra sartuta. Langile
ginan, azken langile. Guk ez genduan zementurik eta haririk erabil-
ten. Zuloa zabaldu, trintxerak egin eta kitu. Ez genkian ziur zein
aldetan genbilzan.

Batailoi askoren ibilerak ohartzen genduzan handik zehar. Beti
eukiten genduan nor eta nondik ezagunak bilatu eta agertzeko kez-
ka. Bertara heldu eta laster hartu neban poz handi bat.

Gure *Eguna* egunkaria zala-ta, hango izparkari lankide batzuk
estu erabili zituela epaietan jakina nengoan. Ez eusten niri sekula

aitatu nire izparkari zereginik, baina Bilbon geratu ziranak heriotza-
ren eskabidez kexu egon izan ziran. Herrikide baten esanez, bilbota-
rrez osotutako batailoi baten Erkiaga adiskide eta lankidea ikusi eben
ni ikusteko garrez. Eurak aurrera joiazan. Ezin gelditu eta ni ez nin-
tzan han gertatu. Ezagutuko ete genduan alkar, txapelgorriz bera eta
txotoarekin ni, Bilbon txapel baltzez alkarrekin bizi ginanok? Ni,
han, kale zale baino etxe zulo gehiago nintzan, zerbait irakurri edo
zereginen baten atxakiaz.

Nahi eta ikusi ez, igarri neban nire lankideak zaparrada igaroa
ebala eta hori, gure orduko egoeran, arnasa luzatzea zan.

Batailoirako jakia Salinas de Medinacelitik ekarten genduan.
Aukera gitxi egoten zala-ta etortzen ziran zeregin hori eukienak. Jalon
ibaiaren erriberak aberatsago zirala-ta Calatayuden egoan Intenden-
tzi nagusira joatea komeniko zala eta harako asmoa hartu zan behin.

Nire anaiarik zaharrena hango lantegi baten ebilela jakin neban.
Ausartu nintzan kamioian laguntzaile lez iges egiten.

Bilatu neban anaia... eta berak ezagutu ez ni. Urtebete baino
gehiago ikusten ez ginala, sekula kakiz jantzita ikusi ez nindualako,
edota gure txotoak euskal burua itxuragabetuta nenbilerako, edo
bihozkaden batez, horra aurrean anaia nor nintzan sinistu nahi ez da.

Gero, gure denpora egin ondoren, plazara joan nintzan, kalearte
estu eta bihurrietan zehar. Asteguna izan arren, kontzertua egoan.
Beharbada handik ebilzan hainbat gerra gizonen atseginerako.
Herriari izenik ezin galdu. Azken jotaldian, "Si vas a Calatayud pre-
gunta por la Dolores..." jo eben eta hango txalo, olé eta ujuak entzu-
teko ziran.

Nire kontura egin neban bazkaria. *Plato único* edo horrelako zer-
bait agindua zan, baina ostatu haretan ez egoan neurri itxurarik.
Birritan be ekarten eben plater bardina eta jan eta jateko gu. Catx da,
dirua dagoala, urdaila gose eukitea. Korneta soinua da bat eta konor-
tea zaintzea bestea.

Iluntze berandu heldu ginan, bildurrez, gure kamioiak farolik ez
eukalako. Komandantea zain egoan eta kezkatu nintzan kuadrau eta
zer entzun eta crantzungo, zer atxakia emongo. Baina ortuari eta

janariei begira ahaztu zan, pozak ahaztu eragin, eta bere bat-bateko
urteeraz, handik aurrera Calatayudera joateko agindu eban jakiak
erostera. Horrela, beste bi-hirutan joan nintzan eta anaiak erraz eta
pozik ezagutu.

Calatayudera egiten neban igeskadan, Dolores non egon ete eike-
an bilatzen denpora galdu gabe, banekuan nora joan eta zein ikusi.
Nahita musikak bestela agindu.

TAJUÑAKO CORTESETAN

Torre Sabiñanetik Cortes de Tajuñara aldatu ginan. Beti Guadalajarako lurretan. Guk ez genduan sekula jakiten nora ginoiazan, ez eta non geratu behar ginan. Ez genduan horretarako eskubiderik ez eta goikoen begirapenik. Ibili, agintzen ebenean geratu eta planto.

Lehenagokoena: galtzaile gaixoak!

Halantxe gelditu ginan Cortesen. Ez neskak kortejatzeko. Bageduan Enbeitatar bertso kantari bat gure artean. Baekian honelako zerbait kantetan:

Dama gaztiak kortejatzia
ez da hemen gure plana,
neska lirainak ezin ikusi
gure itxuran dagoana,
guk be mosurik ezin opatu,
norbaiti zor gareana,
Gernikaldian gogotsuago
eingo genduke guk lana.

Ez dakit zergaitik, baina neskarik gehienak Iluminada eta Inmaculada eukien izentzat. Abizenik ugarietak: Rojo eta Aparicio.

Ahuntzak eta zaldizkoak kortetan, ukuiluctan. Goizetan, kanpai orde, ahuntz eta ahariak gertu eukiteko turuta. Ahal genduanean, goizeko ur epel baltzituaren orde, ahuntz esnea etxeetan erosi eta harekin gosaltzen genduan.

Herrirako ez egoan kotxerik ez beste aukerarik. Algoran geratzen zan kotxea eta handik herrira zaldiz edo oinez ibili behar.

Herri aldapatsua, baina garbia, edo erraz garbitzen zana. Zaldi korotzak eta ahuntzenak laster batzen zituen kaleetatik, hurren aberasgarri.

Itsas aldeko izanda, ez nekian erreketako karramarroen barririk. Eta Cortesen, erreka ondoetan, bedar eta ostroak estaldutako erribertan, eskua sartzea nahiko zan eskukadak batzeko. Gerrak eragindako egotaldiak ugarituta nonbait.

Egun negargarri bat euki genduan, garila edo uztailaren 17an, Karmen egunaren biharamonean. Batailoi guztiaren aurrean gure arteko bat hil eben. Danok behartu bere eraiketa ikustera.

Mutil harek ez eban sinisten hil eitekeanik. Jakinazota gero be olgetan zalakoan, bildurra sartzeko ete zalakoan. Ez eban kristau sinisterik federik be.

Gogoan daukat. Herriko eleizara eroan eben, goizeko bederatzia inguruan, jaunartzera. Zergaitik sinisten ez daberen bateri, azken orduan Jauna hartu eragin? Bere zintzotasunean jokatu bada, ez al deutso Goiko Jaunak kontzientzi zuzenekoie agindua dan harrera onik eskiniko?

Eleizara eroan eta soldaduak atean geratu ziran. Fraile kapilauaren laguntzaile nintzalako gertatu nintzan han. Negarrari eutsi ezinda. Jauna hartu ondoren, berak, kezka batek eraginda, benetan ete zan hilko ebena eta salbau ahal ete eitekean galdetu eustan.

Hori izan zan bere azken gogoeta eta larrialdia. Atetik, nahiko zala eta eten eben gure jarduna, kanpora urten eraginez. Leongo mendietako langile mardula zan.

Koldartuta, bildurrak eraginda, nire burua eleiz koroan ezkutau neban. Gero, inguruko zelai baten, danen aurrean erail eta kanposantura eroan eben bere gorpua ohol zabal biren ganean.

Bero larriak Gaztelako zelaietan sortzen dauen bakartade eta hutsunea astun eta pisutsuago iruditu jakun goiz haretan. Etenda geratu ginan danok. Zotin eragin heriotza harek.

Ordura arte sekula ez genduan holakorik ikusi.

Egun bi geroago beste batena ikustetik ez dakit zelan askatu ginan. Oraingoan gure arren eta ahaleginek lortu eben zerbait. *Jagi-*

jagiko izan zan bilbotar gazte baten txanda zan. Eskerrak gure eskariak balioko izan zirala.

Uda larria euki genduan geroztik. Betozko eta ilunaldi ugari. Handik laster zan gure zaindariaren eguna, Inaki deunaren jaia. Ez genduan umorerik jaietarako.

Bost-sei lagunek lo egiten genduan herriko juezaren etxeko ganbaran. Lastoz beteta egoten zan. Jai honetan, gauerdia ondoren, su bizi-bizia igarri genduan bat-baten gure ganbaran. Alboan neukazan gerrera eta galtzak eskuan hartuta, suz inguratzen hasia zan eskilara igarotea lortu eta erdi jantziz ortozik itsu-mustuan eta larri joan nintzan kaleetan zehar kanpai torrera su kanpaia jotera. Teilatu guztia erre zan, baina han lo egiten genduan ez euskuen ezelako errurik emon. Hain zuzen han gengoan lagunetatik ez genduan inork zigarrorik be erreten.

Oroitzaz betea gertatu jakun hango egoera. Guretzat bihotz oneko ziran bertakoak. Gu be ez ginan hain okerrak. Urteak geroago be, kartaz, alkarren barri emoten saiatzen ginan eta ezkontza baterako deia be hartu neban.

EREINOTZAK ETA OROITZAK

Ereinotzen oroitza eukiten dogu Erramu igandez. Euskal palamak. Eta ereinotz bedeinkatua ipinten da atadi askotan, etxe nahi lantegietan. Bai eta solo buruetan be.

Arrantzaleek, ereinotz hori, itsasontziko tximinietan ipinten dabe.

Ereinotza gordeten dabe gure zaharrek, etxean okasinorik gertatu ezkeru, ur bedeinkatua beragaz zabaltzeko.

Mirabuenon gertatu ginan urte honetako Erramu igandean. Ez genduan horrelako ezer igarri ez ezagutu han. Pazko denpora zala-ta pazkogazkoa bete eragin euskuen. Urteko zuriketa, irabazleen harrokeriaz eta menperatuen gogo txarrez.

Handik laster, Alcolea del Pinarreko bikario zaharrarekin, horren aurka ginan han batutakoak. Backian harek euskaldunon barri. Garrazkeriak ez daizuela haizetu eta uxatu zuen barruko sinismen onik, inostan berak agur egitean.

Geroago Cortes de Tajuñara joan ginan. Lehen be esana daukat. Sekula ez dot herri txiki baten nesken artean han adina Inmaculada izen bilatu eta bertakoen artean Rojo abizen gehiago. Danei matrail-hazurreko bama emoteko gogoia eukiten neban sarri, guzurretan ebilzalakoan. Ez dakit zertatik sartu jatan burutasun hori. Nik behintzat ez neban ezer horretara pentsetako.

Borondate oneko jentea bilatu genduan Cortesen. Lotarako gariz betetako kutxa eskini eusten etxe baten, metro erdi behetik goratuta, behean arratoiak ibiltzen ziralako. Halantxe gari-ale ganean lo egiten neban.

Abizen gorri eta izen zuridun hareek euren ondasun guztia eskintzen eben.

Izenak! Izenik ez litzateke ipini behar edozelan.

Nire adiskide bateri Felipe Segundo ipini eutsen gurasoek. Epai edo juizio baten izena eskatu eta hori erantzun ebanean, amari burla eta irri egiteko ihardetsi eutsen. Barrero eskatu eta adiskideak, kua-drauta, izen berbera erantzutean, izarren dirdirak ikusi behar izan zituan emon eutsenagaz.

Goazen Cortesera. Gu gorriok gure izatea zuritzat laga genduala badakit. Bertara heldu eta laster jakin neban han gertatua. Gure aurretik beste talde bat egon zan bertan. Hain zuzen nire eskola lagun bat eurekin.

Bere hogeta hiru urterekin, kanta-kantari beti. Eguen santuz, eleizan, goizeko mezatan, halantxe jardun be. Ha be *gorria* zan ba! Eta halako baten, hegazkinen burrundara. Ez jakin zergaitik, han ez egoalako ezer, bonba bat jauiti edo jauzi, eta hain zuzen nire eskola laguna eleiz aurrean hil.

Bizitzaren gorabeherak. Gudari gorria, hegazkin gorriak hil, goiz guztian eleiza zuri haretan kantuz jardun ondoren. Eta gorriak hilda be, ez eutsen etxekoei bere herrira ekarten laga, hemengo zuriak minduko ziran bildurrez, euren zuri eskusiba galduko eben bildurrez.

Maitasun eguna zan Cortes de Tajuñan.

Kanposantuan sartu eben, hegal baten, eta kurutze orde, botila bat bere buru ganean, barruan bere izena sartuta.

Gu hara heldu eta jakin orduko, ota zaharrei makila zuritu, eurekin kurutza bat egin eta hantxe laga neban botilaren buruan. Ereinotz bila ibili nintzan, baina ez egoan han horrelako ezer. Eta Inmaculada Rojo hareei, bat baino gehiago ziran deitura bardinekoak, gorri ha eurak baino zuriago zala eta baketan zaintzeko eskatu neutsen.

Nire herrikide eta eskola laguna, Joakin Aristondo zan. Ondarroan Joakin Zesterua.

Zenbat negar egin neban han, bakartade eguzkitsu haretan, hogeta hiru urtetako sentimenen indarrez!

ORAINDIK GUADALAJARAN

Behin, Cortes de Tajuñan nengoala, adiskide baten karta hartu neban, laburki hau esaten: poliziakoak zure bila dabilz Burgosen dagozan gerrako atxilotuen artxibotan.

Ez ekarren izenik, baina hotsean igarri neban norena zan. Ezin ukatu lehenengo arrada.

Iparraldera begira geratu nintzan, ez dakit zergaitik. Isil-misilean kantu herrikoi bat nerabilen gogoan. Bihozkada.

Karta ha bialtzeko nire adiskideak zentsurako lagunen batekin baliatu behar, karten azaletan, nahita ez zentsurako silua behar zalako. Certatu eitekean gure batailoian beste norbaitek hartzea, nik baino lehenago...

Horrelako gerta eitekezanak gogoratu nituan. Pentsau be bai norbait egon eitekeala ezkutuan nire erantzunaren zain.

Ohar larri honek bacukan esanahiren bat. Iges egin edo ezkutatze. Edo beti be gertu egoteko.

Igestu? Nora?

Bilbo galdu ondoren, Santander eta Asturiasen ibili ez banintz, beharbada beste era batera pentsau neikean. Ha ikusita, ez neukan iges egiteko adorerik.

Sekula ez nintzan aurre-aurrean egon, tokiak ezagutu eta nondik igaro pentsetako be.

Zereginik ez neukala aurrera joan eta han ikusi orduko, berehala sortu neikean zalantzaren bat. Eta ez egozan, egun harectan, gure galoidumak olgetan ibilteko.

Nire artean esan neban: datorrena datorrela.

Hile bi inguru igaroko ziran karta horren beste barri barik. Ezin ukatu mila pentsamentu erabili nituala. Aidean geratzen zan beti zertarako ete zan nire bila ibilte hori.

Eguzkiak epela ekarten dauen antzera, niri be ohar horrek gure artean ezagun ziran desertore batzuen kantuak gogora ekarri eustazan.

Urte pare bat lehenago, gu soldadutzarako kaxan sartu ginanean, norbaitek gogoratu eustazan atzerrira iges egindako mutrikuar batzuen ibilera eta itzaltasunak. Soldadutzari kale egitearren iges egin eben. Izenak be, oker ez banago, Maixako Patxi, Aategiko Zezilio, Langa-Etxebarriko bat eta Pikuako mutila ziran. Zelan-halan Frantziara igaro eta hango barku baten Australiara heldu ziran.

Eta Aategiko mutilak bialduak zirala eta bertso batzuk ezagutu ziran gure artean. Zotin eragiten eben:

Gu hemen nola bizi geraden
esango diet danari,
arrazoi txarrak aditu behar
ta gogor heldu lanari;
kalabazia tomatiakin
dirade gure janari,
ta errekan geldi daguan
ura gañetik edari.

Australia aberats eta zabalean nongo basamortutan sartu ete ziran gure mutilok?

Toki estu, behartsu eta txarragoan bizi ginan, zelan halan. Lotuago. Hileta joten hastekotan, Jesus!, ahoa neurri. Eta... beste edonora joan eta zer? Eutsi eta kitu.

Hurrengo aldatzea Las Inviernasera izan zan. Izena bera tokia-
ren salatari. Herri itzal, hotz, traketsa. Era guztietara galtzen. Udaz-
kena zan eta giroak zotin eragiten eban. Betiko lancan hemen be, bai-
na egoera estuagoan.

Halan gengozala, telegrama bat heldu zan batailoira. Hirugarrenez agintzen deusut, inotsen gure komandanteari, hainbat lasterren Donostiako espetxera croateko ni.

Horra nire adiskidearen oharren urratsa. Non egozan aurrerago-
ko telegrama biak? Heldu ez? Edota adiskidieren batek gorde eta ez
hartutzat egin?

Dana dala, gure izarduna gora-goraka hasi zan. Hirugarrenez
berari gauza bat agindu beharra... mingarri zan beretzat. Eta lehen
be erreta egoan, goragokoen haserreak hartzen.

Halantxe, eguerdi oste baten, guardia biren erdian urten neban
Las Inviernasetik. Kilometro luzeak oinez. Gaua eginda heldu nin-
tzan Agorara. Han lehenengo egotaldia, lehenengo estazinoa. Nire
kautan Iparragirrerren abesti mingarri ha gogoratzen nenbilen:

Zibilak esan naute
luzero egoki,
Donostin behar duela
gauzak erabaki.
Hirugarren egunean jo neban lurra Donostian.

AGORATIK DONOSTIARA

Agoran, gaua igaroteko, korta antzeko toki ilun baten sartu ninduen. Ez dakit zer egoan, kanpotik atea itxia eusten. Etxun eta lo nik,

Hurrengo egunean Siguenzara. Ezagutzen neban herri hau.

Inguru haretan genbilzala, katedrala ikustera joan ginan behin. Hilario Yaben jauna, nafarra, zan bertako bikario edo gotzain ordeko sasoi haretan. Hain zuzen tope egin genduan beragaz. Bere idazlan eta artikuluetatik ezagutzen neban.

Berbalduma zan, hiztuna. Ezaupidea emon orduko, gure herri inguruetako pelotariak ezagutzen zituan eta bizi-bizi izenak gogoratu eta euren oroitzua egin orduko... *trabajadoreak* ginala konturatu zanean, aidean erabili eban pelotea, horma biak jotzen laga barik, eta beste jokoren bat eukala-ta aldendu zan.

Oraingotan ez ninduen katedralera eroan, udaletxeko kartzelara baino. Emakumeak laster errukitzen dira eta eguerdia jo orduko, patiotik deika sentidu neban bat, janariren bat ekartea nahi ete neban-ta. Eskertzeko zan andrearen borondatea.

Laster eroan ninduen handik guardia zibilen kuarterera. Han ez ninduen kalabozoan sartu, gela baten radioa entzuten laga baino, iluntzera arte.

Iluntzean Siguenzatik Coscuritara, trenez. Hemen be zain egon behar zan, beste trena etorri arte, eta ostatu batera eurekin eroan ninduen zibilek. Eta, egia, nire afaria be eurak ordaindu eben, baekiela diru askorik ezin euki neikeala-ta.

Beste bikote batek zaindu ninduan gero handik Mirandara, ardurara handi barik, kontu esaten, trenean.

Mirandan aldatu ziranek, iparraldeko bildurra edo, *esposakin* lotu ninduen eta halantxe Donostiaraino.

Hemen, sarreran, andra arrain-saltzaile batzuk egozan eta ni ikusita ohartu neutsen minez esaten: hau be guretarra izango da ba!

Kotxea eskatu eben kartzelara. Baina ez egoala eta tranbian egin neban ibilera. Horra nire burua Ondarretako espetxean.

Egun batzuk han egin eta Azpeitiko kartzelara, goizalde, kotxe txiki baten, beste hiru lagunekin batean. Han astebete igaro eragin eta Gabon aurrean, gaueko hamabiak inguruan, barriro handik Ondarretara.

Ondarretan etxeko mina hartzen ikasi neban. Nire laguntzat, hogetak lagun gengozan gela baten, azpeitiarrak batzuk. Ezin ahaztu bat. Egunik gehiena bere emazte eta seme-alaben argazkiari begira malkotan igaroten eban. Bere pekatua? Gipuzkoan gerra biztu eta laster, Loiola inguruan egoten zan, zaindari, *dokumentazinoa* eskatzen kotxedunei. Zein harrapau eikean berak, irakurten ez baekian? Paperetatik ez behintzat. Bestalde, inori okerrik egiteko asmorik be ez ei eban sekula euki. Agiri edo paper bakarra ateraten ebanari, pizka bat begiratu, itxura bete, eta aurrera. Paper gehixuago baziran, gehiago. Goitik behera eta behetik gora erabilten ei zituan paperak, irakurten ez ekiala konturatu ez eragiteko.

Goazen gurera. Zergaitik gure ibilera horreek kartzela batetik bestera? Ez dakit. Zergaitik lehenengo osteran Azpeitira lagun batzuekin, eta handik Ondarretara beste batzuekin, bietan gau eginean eta bietan taxian? Ez dakit.

Gauerdiko ibilera horreek ez ziran atseginak. Nahita zaindariak bildurra sartzeko ezer egin ez. Sarri gogoratu izan dodaz eta ezin konturatu zer burubidez erabili ginduezan horretara.

Azpeitiko kartzela... kartzela zan eta lagun artea. Ez ginan asko han batzen ginanak. Horregaitik danok lagun eta kide, nahita alkar ezagutu ez.

Lehenengo egunean etorri zan Ramos zaindaria bakotxari itanzen ia inor ezagutzen ete genduan Azpeitia eta inguruetan. Jesuita biren izenak emon orduko, "Horreekin probetxurik ez dozu" erantzum berak, jator. Batek badaki hareek nondik dabilzan! Ezagutzen emoten eban, horrela, hareek non egon eitekezan.

Dirua emon ezkeru, han egoala bera edozertarako eta nahi gendua ekarten euskun plazatik, ardura barik. Zergaitik egia esan ez? Eta egun guztian ez genduan zaindaririk ikusten inguruan, barruan egon behar.

Beste gauza zan Donostiakoa. Donostiako oroitzetatik ezin dodaz kendu gertaera batzuk.

Bat: lagun bat edo biren gelan, hogetak egon beharra, alkarren ganean, garbitasun eta gizaki preminak egiteko be leku barik.

Bestea: egunean behin ateraten ginduezan patiora eta han, denporarik gehiena, komuneko kolan igaroten genduan, kexu, egotaldi larri, eutsi ezin, min eta estutasunetan.

Beste bat, orduan niretzat, nire sentimentuentzat mingarriena. Gizonezkoen andra gosea eta emakumeen gizon eskaria. Zoratu eragiten ete dau ahal ezak?

Azken etxe oin edo pisuan gengoan. Gure gelak leiho bakarra eukan. Burdin artetik ozta-ozta ikusten zan emakumeak egozan gela baten hegala. Ikusi baino, igarri, egokiago esanda, nahita anguloa egin, gela batek bestea ertzean hartzen ebalako.

Eta arratsaldeetan, ordu erdi baten, gela batetik bestera zarataka, deadarka, ikusi nahi eta ezin, esan nahi eta nahaste eta zaratan entzun ezin, hitz eta gurarizko lizunkeriak batetik bestera esan eta deika... sinisgatx egiten zan denporaldi ha. Itxuraz zaindaria zerbait hartzen eben ordua zan eta curak aldegitian berehala hasten zan emakumeen aldetik barbaroa.

Zaindaria agertu orduko laster egiten zan isilaldia, baina, benetan, nekez ahaztekoak ziran barriketaldi zakar hareek.

GIZON TRUKEA

Gizon truke edo kanje baterako gengoala jakin genduan. Bederatzi ei ginan.

Han gengoan Jesus Garriz, iruindarra, *Euzkadi* egunkariko guda izparkaria; han Angel Aurrekoetxea, deustuarra, *Euzkadiko* takigrafoa; Jose Mari Cazaña, *Gudari* eta beste aldizkari batzuetako idazlea; Agustin Luma, Donostiako *Pueblo Vascokoa*; Julio Sarasua, eibartarra, *Jul-Sar* idazlea; Leon Barrenetxea, *Leo-Bar* donostiarra; Abasolo, bilbotarra... Han ni, *Egunako* idazlea.

Zortzi gengoan, eta bederatzi ei ginan. Ha agertzen ez bazan, besteok be han gelditu behar. Itxuraz gure trukatzea, gure kanjea, hain berandu egitearen errua falta zan horrena zan. Jakin genduan nor zan be: Basauri, *Lan Deiako* idazlea.

Gerra galdu eta Castron alkarregaz ginan. Nondik ete ebilen orain? Castrotik Arandara geroazala, trenetik saltu, iges eta ezkutau ha. Alde batekoak esaten eben, baekiela Castron egona zala eta jakin behar zala zer gertatu zan gchiago bere azterrenik ez jakiteko. Eta jakin ezik ezin ordainik bialdu.

Gauzak estutzen etozan. Bagenkian Katalunia alde txarto egoala eta ha galdu ezkeru...

Azkenean be, bere ordezkatzeko zan bestaldeko izparkariaren senideren batek ibili eta ibili zerbait jakin eta ezkutauta egoan tokia jakitea lortu, zertarako zan esan eta halantxe agertu gure Basauri Donostian.

Zaragozako izparkariak ziran gure ordezkooak.



Biriatu (Lapurdi) 1939-02-10. 1939an kanjeatutako kazetariak. Goian ezkerretik eskumara: Augustin Zubikarai, *Eguna*; Lon Barrenetxea, *Eusko Langille*; Julio Sarasua *Gudari*; Bitor Basauri, *Lan Deya*; Josu Garriz, *Euzkadi*; Augustin Luma, *Lucha de Clases*; Behean: Jon Abasolo, *La Tarde*; Joseba M. Cazaña, *Euzkadi*; Gotzon Aurrekoetxea, *Euzkadi*.

Bera agertu eta berehala, 1939ko lehenengo hilaren 4an, bederlatzi lagunok, ezelako ikusketa barik, genduana batu eta eroateko esanda, autobus baten Irungo zubira eroan ginduezan, beste aldera igaroteko. Lagundu euskuen zaindarien arreta onez eta gizonki agurtu ginduezan.

Ordu berean, Bartzelona aldetik, beste bederlatziak igaro eben muga.

Trukau eta Hendaian bizi ginan aste batzuetan. Garriz eta Basauri Mexikora joan ziran. Besteok... agure zaharrak baino atxaki gehiagoz, han geratu. Telegrama bateri esker geratu ginan Hendaian.

Bartzelonan ipinia zan eta euskal izparkeriontzat hilebeteko baimena esaten eban. Jakina, baimen hori Bartzelonan gelditu egoteko

zan. Halaz eta, zehaztasunik ez eukalako, Hendaian igaroteko lez hartu eben frantziar poliziakoek.

Halantxe geratu ginan. Zorionez. Hamabost egun geroago Katalunia galdu zan eta hangoak tatarrez atzeraka. Nahaste horretan sartuta aurkituko ginan, inor ezagutu edo nonbaiten sartu edo bizibidea hartu orduko.

Gero, batek apendizitis, besteak urdaila, besteak birrikak... osakuntzak egin beharrean egon ginan.

Ta... betikoa.

Kanjeatutako izparkeriak *muga* ondoan gengozala eta haserre agiriak gobernuak. Hendaian alde eragin euskuen. Ziburura jo. Handik be urten egin behar, Euskal Herritik urten egin behar, gitxienez Landesetara. Gero gerra.

Lotsatu egin ginan frantziarrak gerran eta gu euren artean gelditu egoten. Tarbesko artsenalean lan egitera eskini ginan.

Baietz agindu eta tokia aldatu euskuen. Lannemezana eraian, orduantxe lurra gertuten hasi barriak ziran artsenal barri baten peoiztan egitera.

Cugaz egoan Jose Mari Cazaña, bilbotarra. Agindua agindu zala eta Tarbeserako hartu ginduezala eta hara aldatzea nahi genduala eskatu. Ezagutu eban hango agintariak eskintza hori. Halantxe Tarbesera eroan eta bertan hasi ginan lanean.

Lannemezananen treneko bagoiak alkartu eta lotzen neukan nire zeregina. Lo be bagoietan egiten genduan.

Tarbesen, lehenengo zeregina, burdin goriak labeetatik ateraten. Osasuna galduko genduan han, luzaro jarraitzekotan. Gero, torru zaharretan, espoletari hari ateraten.

Zeregin honetan diru mordo irabazten genduan. Baina ezin nahi adina egin. Cerran gengozala frantziar langileak bake denportara begira egozan. Eta asko egiten bagenduan, bake aldiari lan oinarritzat hartuko zala orduko neurria eta zortzi orduan egin zeikeanaren erdia hartu genduan neurritzat.

Ehundak emakume eta hamar gizon batzen ginan nire lantegian. Hortik igarri gure lana lan arina izango zala.

EUSKAL NORTASUNA TARBESEN

Langile mordo batzen ginan Tarbesen, handia da hango artsenala. Euskaldun mordo bat be baginan, gehienak etxegintza edo konponketan sartu zituen, konstruzinoan. Hareek egunez lan egiten eben, goiz eta arratsalde.

Besteok txandaka goiz, arratsalde edo gauean.

Gure nortasuna erakutsi nahi izan genduan han. Lanetik kanpora batzen hasi ginan, ezin geldi egon. Artsenalean bertan, Urbieta debarra zuzendari zala, abestalde bat sortu genduan. Gure ahalegin eta ardura ikusi eta hango zuzendariak ensaioetarako beta lagaten euskun.

Hango jai batzuetan abestu genduan. Beti gure abestiak. Bertako *chansonierrek* eukiten zituen jaialdietan be tartea cuki genduan. Horrela, kale eta eleizetan, euskaldunon nortasuna erakusten hasi ginan.

Euki genduzan jaiak hiru eleizetan abestu genduanak be. Ez ginan aspertzen horretan. Eta ateak zabaltzen hasi ginan.

Gure erara ospatu nahi izan genduan urte haretako Aberri Eguna. Hamarretan katedralean cuki genduan meza. Gotzainak berak bere etxean agurtu nahi izan ginduzan.

Egun haretan, Tarbesko katedralean, *Garraztasun edontzi* izenarekin kuadru bat eskegi genduan, euskaldunon oroitza lez. Guk geuk aukeratzeko tokirik egokiena eta ate nagusitik sartu eta aurrez aurreko horma baten jostea lortu genduan. Diaz Ibarrondo arabarra bere egilea. Ortu santuko irudia, kaliz eskintza, Euskal Herriaren kezka eta minen irudi.

Aurrez, egun batzuk lehenago, Ibarrondoren lantegira, *estudiora* bikario nagusia etorriko zala-ta, lantegi ha *zuritzen* ahalegindu ginan. Bilozik egozanak atzekoz aurrera hornei begira ipini eta abar.

Bikario hori hiztuna zan. Bilbotar handiki guztiak ezagutzen zituan, udaldi baten, Neguriko etxe aberats baten egunak igaroa zalako. Horregaitik, Bilbo aldeko *zuri* askoren ezaupidea erakutsi eta gogoratzen erabili genduan. Politesse?

Guk geureari eutsi eta geurea erakutsi. Lehenengotatik ondo ikusi eban gure eskintza. Halan, Aberri egun horretan, gure herrimina erakutsi genduan.

Alemanak Tarbesen sartu ziranean, kalcen gengoan. Sarrera horren testigu itzal eta mintsu gertatu ginan. Bakez sartu ziran, burruka barik.

Burrukak, negarrak eta zotinak bihotzean ebilzan. Frantziarren bihotzetan lez guretan be.

Guk, lehenago horrelako unea gure herrian igaro genduanok, beharbada une haretan bertakoek baino gordinago ikusten genduan haren atzea.

Etxeko kezka nerabilen. Etxean, egunkariak ikusi eta irratiak entzutean, ze bildur eukiko etc eben. Eta gu, itxuraz, bake sator baten menpean gengoan kalean.

Erraz jaubetu ziran herri guztiagaz.

Gaueko txanda neban egun haretan lanean. Eta beti lez lanera sartu ginan.

Esanak, autuak, zer etorri eitekean.

Bagenkian ezin geinkeala lanean jarraitu. Halantxe, lanik egin ez arren, agindu barriak hartu arte bakotxa bere lantegira eta bere makinara joateko esan euskuen.

Makinak geldi, garbiketa pizka bat egin eta han egoten ginan, alper eta asper, kontu esaten. Hasi ziran alemanen ordezkariak agertzen. Nongo etc ginan itandu be bai.

Euskaldun ginala erantzuten genduanok, zorioneko gertatu ginan, bertan jarraitzen laga euskuen. Espainiar ziralda erantzuten

ebenak kontzentrazinoko zelaietara edo hondartzetara eroan zituen. Gure lantegian halan gertatu zan.

Baina egunak igaro ahala, ordura arte genbilzan Ameriketarako ahaleginak be alperrik zirala igarri eta etxerako asmoa gero eta kez-katiago igarten neban niregan.

Halan, baimenagaz batera, bost eguneko epea laga eusten han irauteko.

Ezin atzerarik egin eta bidean hasi behar.

Nora?

ETXERAKO ASMOTAN... GIBRALTARREN

Etxerako baimena lortu, bidean hasi eta... tope. Alemanak laga ez Irun aldera joaten.

Zenbat kilometro ibili behar chun egiteko?

Ez neukan beste aukerarik, Katalunia aldera jo. Eta handik... Jaungoikoak argi.

Maletaz beteta nenbilen. Lau urte etxetik kanpora ibili eta bitartean lortutako jantzi, liburu eta abar. Nire etxe ibiltaria.

Horrelaxe heldu nintzan Cerere-Port-Boura. Pazientzia pitin bategaz dana egin eta beteko zalakoan. Baina pazientzia be zaspikiak zapaldu eta gaindu ei eban eta... Beti be borondate on eta handiko tonto lapiko ni.

Muga igaro eta bakarrik ikusten nintzan Por-Bouko geltokian.

Zaindari bat ikusi eta gatxik pentsau barik, Bilbo aldera nondik edo zein trenetan joaten zan itandu nik.

Ezer esan barik edonon sartu banintz, zer gertatuko? Ez jakin.

Nire itauna entzun eta zaindaria esan eustan beragaz joateko. Nora? Barrero kurutzetakoak nire bizitzan.

Egun berean jo neban hiru-lau zaindari-etxetan, azkenean Figuerasko gazteluan, penalean, iluntzean lurra jo. Zergaitik eta zertan han?

Sarreran maletak zabaldu eragin eta... nire *tanganiluak*, gorbatak gain-gainean. Hirurogetak bai behintzat. Zaletasun hori erabili neban aldi baten.

Atean egozanek eskatu lez egin eustezen. Nahi baeben bat edo beste hartzeko. Horregaitik, nire nortasuna jakin arte zala-ta, han egon nintzan egunetan, egoera larri barik euki ninduen, penal bateko araudiaren menpe sartu barik.

Handik Reusera. Etxera bialtzekotan ez ete zan errazago Bartzelonan geratu eragin eta trenez bialtzeca?

Reus! Zelako gosea! Aza musker gordinak be jaten hasi ginan, horretarako lapurretan lez sukalde atzera jetsita. Gizon mardul itxurakoak burutik egiten eben gauean. Bildurgarria.

Egun batzuk han euki eta Madrileria.

Beti esaten ni kanjeatua izan nintzala. Nik euki neikean errua, beste nire ordezeko baten biziagaz kitututa egoala, Kontsuladuan esan eustela, goikoei itanduta gero, etxera joango nintzala zuzen.

Madrilen egunetan cuki eta Villaverdera. Han mordera batu eta Andaluziara, Gibraltar aurrera.

Maletak ezin erabilita nenbilen. Neukazan dirutxuak eurak erooten laguntzarren emoten neutsezan nirekin batera gertatzen ziran gizonen. Bide batzuk trenez egin genduzan, baina beste asko oinez, eta orduan izaten ziran kontuak.

Gogoan daukat. Rondan, trenak aldatsik ezin igon eta danok behartu ginduezan trenari bultz egitera, eta ha ibilteko ez zala-ta gure maleta eta tresnak handik atera cragin eta barrero oinez joatera behartu.

Azkenean San Rokera heldu ginanean, geltoki ondora joan nintzan, eta han ikusi neban emakume bateri eskatu be bai, mesedez, maletakin jaubetzeko eta nire herrira fakturatzeko.

Kontrabando tokia zala-ta maletak zabalik agertu behar zirala fakturatzean. Beste biderik ez neukanez, andreari maletan giltzak laga, ezer nahi baeban hartzeko esan, eta kendu neban pisua, heltzen baziran ondo eta ez baziran beste batzuk gehiago galduko ebela-ta hor konpon esanda.

Ondo heldu ziran maletak Ondarroara. Bestetan norbera heldu eta gero heltzen dira maletak. Oraingotan ni baino hilak lehenago etxean egozan.

Gu Algecirasetik gora sartu ginduezan. Barrero piku eta palaz, *batallon disciplinario* baten, 54 zenbakidunean. Lo egiten genduan tokitik bost kilometro egiten genduzan lantokira. Egunero ikusten ginan bidean beste batailoi batekoekin. Gu hareek biziteko txabolak eukiezan ingurura lanera. Hareek guk genduzan tokietara.

Diziplina sartzea da lehenena, gero beste lanak.

Busturiako bi nituan txabola lagun, Aranguren eta Isidro Retolaza, alkarri lagundu eta laguntzeko prest beti. Inoiz etxetik paketetxua hartzen ebenean... gurea izaten zan jaia!

Bilatu neban gosea ahal bestean kentzeko era bat: *Akademia partikularra* ipini neban. Sarjentu batek, nik eskola banekiala-ta, ia berari pizka bat erakutsiko neutsan eskatu eustan. Berak ikusten ebala gauzak amaitzen etozala eta udaletxe edo kontzeju txikiren bateko idazkaritza bat hartzeko asmoa eukala, gehien be lehenago galoiak meritu zirala.

Tranpako akademia zan. Nik beste lagunekin batera piku eta pala lepoan nebazala urten behar neban. Lantokira heldu... eta ezkutau, hango kortxo azaldun zugatz artean, berak lanak eratu eta etorri arte. Halantxe egin be.

Ezkutau eta gero, bera etorri artean, perretxikotan ibiltzen nintzan. Batu, bertan sua biztu eta zotz baten puntan erre eta jan. Sekula pentsau ez kalte egin behar ebenik. Gero ordubete inguru sarjentuari idazten erakutsi eta lau erregelak erabilten ahalegindu. Egunero kobratzen neban nire lana. Zelan? Bazkari eta afaritan, lehenengotako nintzan *reenganchean*.

Ez nintzan ni hain jatun garai haretan, baina nire lagunek esaten eusten Jaungoikoagaitik be aukera hori ez galtzeko, eta halantxe, nire platerkoa ezin amaituta han egoten nintzan gehigarriaren zain.

Egun baten bildurtu ginan, gure txabolen erreskadan, gizon bat hilda agertu zan. Berrogeta hamar urte inguru eukazan, valentziarra, eta zorriak janda, zorriak odol guztia sikatuta hil zan.

Eta biharamonean, bere alboan bizi zan madrildar bat, banku bateko langile izana, era berean igarri genduan. Egun batetik bestera bat-bateko beherakadan.

Sarjentuari esan neutsan eta mesede lez eskatu haregaz arduratu behar ginala. Sarjentuak bere laguntzaile zan galiziar arrantzale bateri deitu, gugandik be aldean egiten zan errekatxo batera gizona eroan, jaboirik ez bagenduan be hondarrez soin guztia igurtzi hirulau bider, orduetan bilozik euki, zorri arrautzen azterrena be galdu arte, bere jantziak bardin hondarrez arraskau eta garbitu... eta igarri genduan gizona odolbarritzen. Zenbat bider esan eustan harek niri zor eustala bizia! Gerrako kontuak.

Halantxe, lau hilebete eta 21 egun El Tirador de los Barrios deitzen dan lekuan egin genduzan. Etxerako baimena, lizentzia, emon eusten egunean, *estretxuko* ekatx gogorra egoan. Kilometro mordoan egin behar zan gure tokitik Algecirasera oinez. Egoteko egun bat edo bi... Horretarakoxe nengoan!

Euri, haize eta ekatx, bidea egin eta Algecirasen agertu nintzan. Trenik ez egun haretan hain zuzen be ekatx horregaitik. Biharamonean, geltokian nengoala, loak hartu eta ez nintzan konturatu trena etorri zanik be. Beste egun bat gehiago han.

Jakinda nengoan eran, billetea eskatu nebanean, saltzaileak kinu egin, barrura sartu eragin, eta bost ogerlekogaitik etxera arteko billetea emon eustan.

Halantxe amaitu neban nire gerratea.

NI BAINO HANDIAGOAK BAZIRAN

1936ko udan, gau baten etxetik aste baterako izango zala-ta urten, eta 1941eko negu gordinean etxera bihurtu arte, zenbat gorabehera, batzuk esan eta agertuak eta beste asko esan eta agertzeko!

Nik hori.

Eta ni, olatu artean, ez nintzan hain estu ibili. Zenbatek, nik baino neke, min, estutasun, negar eta odol gehiago! Eurekin oroitu behar, eurekin errukitu behar. Ez nintzateke ez euskaldun ez aberkide, euren eskintza goi mailan jarriko ez banau. Ni txindurri bat nintzan, besteen parean.

Horregaitik, isilik gorde dituen askoren ekintzak, nireak eta beste askorenak baino meritu gehiagoko zirala autortu barik lagatea ez litzateke zuzen.

Horregaitik, gaur, gertaera horreen berrogei urteak aidean dabilzala, ezin ukatu euri bakotxari zor jakon goramenik. Herri baten zoriona aldi baten lortzen da. Baina aldi hori gertatu arte, zenbat isileko lan eta egite, zenbat nahitaezko eskintza eta kurutzze?

Halako baten gure semeen semeek ikasiko dabe euren aitonak be aberri aldez jokatu genduala, bakotxak bere eran.

1936 urteko gorabeherek ondoren baltza ekarri euskun orduko gizataldeari. Hori behintzat ezin ukatu izango dabe ez oingoek eta ez gerokoek.

SUTONDOAN SORTA

1. Ebaristo Bustintza Kirikiño: *Egunekoa*
Aukeraketa eta hitzaurrea: Xabier Perea
Aurkezlan eta moldakuntza: Jesus M^a Agirre
2. Jose Manuel Etxeita: *Josetxo*
Moldakuntza eta sarrera: Adolfo Arejita
3. Estepan Urkiaga Lauaxeta: *Azalpenak*
Aukeraketa eta hitzaurrea: Jon Kortazar
4. G.C. della Croce – Bernardo M^a Garro Otxolua: *Bertolda eta Bertoldin*
Aurkezlana eta moldakuntza: Adolfo Arejita
5. Eusebio Erkiaga: *Jaioko dira*
Sarrera: Lino Akesolo
6. Ebaristo Bustintza Kirikiño: *Edo geuk edo iñok ez. Euskerearen alde*
Sarrera eta hautapena: Xabier Perea
Moldakuntza: Xabier Perea, Adolfo Arejita
7. Mikel Zarate: *Ipuin antzeko alegi mingotsak*
Aurkezlana: Igone Etxebarria
8. Eusebio Erkiaga: *Batetik bestera*
Moldakuntza eta aurkezlana: Iñaki Sarriugarte
9. Txomin Agirre: *Auñemendiko lorea*
Moldakuntza eta sarrera: Rosa Mari Arano
10. Txomin Agirre: *Kresala*
Moldakuntza eta sarrera: Mirari Alberdi eta Jon Arretxe
11. Jose Manuel Etxeita: *Jaioterri maitia*
Aurkezlana eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
12. Eusebio Erkiaga: *Txurio Txoria*
Aurkezlana: Igone Etxebarria

13. Txomin Agirre: *Garoa*
Moldakuntza eta sarrera: Bingen Zupiria
14. Resurrección M^a Azkuc: *Latsibi*
Moldakuntza eta sarrerak: Mirari Alberdi eta Karmele Olano
Adolfo Arejita eta Luis Villasanteren hitzaurreak
15. Jean Barbier – Bernardo M^a Garro Otxolua: *Ixtorio-Mixterio. Ipuin-Mipuinak*
Sarrera eta moldakuntza: Igone Etxebarria
16. Ebaristo Bustintza Kirikiño: *Guda Nagusia (1914-1918)*
Testu-aukeraketa eta sarrera: Xabier Perea
17. Jose Antonio Oar-Arteta: *Zaar-Barri*
Sarrera: Segundo Oar-Arteta
18. Xabier Goitia: *Eusko umeak atzerrian*
Eratzaila: Jaime Kerexeta
19. Eusebio Erkiaga: *Arranegi*
Sarrera eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
20. Sorne Unzueta Utarsus: *Idazlan guztiak*
Testu-aukeraketa: Igone Etxebarria
21. Ipolito Larrakoetxea Legoaldi: *Grimm anaien berrogeita hamar ume ipuin*
Sarrera, oharrak eta moldaketa: Miren Atutxa
22. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) I*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
23. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) II*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
24. José Basterretxea Oskillaso: *Euskaldunak Madrilen*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita
25. Karmelo Etxenagusia, Gotzaina: *Euskerea nire bizitzan*
Testuaren ardura: Igone Etxebarria
26. Jean Hiriart-Urruti: *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*
Sarrera eta edizioa: Xabier Altzibar
27. Mikel Zarate: *Haurgintza minetan*
Sarrera: Jesus Etxezarraga
28. Domingo Agirre: *Kresala*
Sarrera: Sebastián García Trujillo
29. Xipri Arbelbide: *Zoriona. 31 eta esku*
30. Ebaristo Bustintza Kirikiño: *Abarrak*
Sarrera eta edizioa: Miren Atutxa
31. Gorgonio Renteria: *Izartu euskaldunak! Elantxobetar baten olerkiak eta artikuluak*
Biltzailea: Jule Renteria
Sarrera eta edizioa: Igone Etxebarria
32. Ebaristo Bustintza Kirikiño: *Aberriaren alde. Artikulu politikoak*
Testu-aukeraketa: Javier Perea
Sarrera: Cesar Gallastegi
Edizioa: Igone Etxebarria
33. Estepan Urkiaga Lauaxeta: *Gure aberriaren elea. Kazetari-lanak*
Sarrera eta testu-aukeraketa: Xabier Altzibar
Edizioa: Igone Etxebarria
34. Balentin Berrio-Otxoa Santua: *Neure amatxo maitia. Euskerazko gutunak*
Sarrera: Roman Berriozabal
Hizkera-azterketa: Adolfo Arejita
35. Eusebio Erkiaga: *Goizean eta arratsean. Eskubete neurtitz • 1*
Sarrera: Igone Etxebarria
36. Eusebio Erkiaga: *Goizean eta arratsean. Eskubete neurtitz • 2*
Sarrera: Igone Etxebarria
37. Bitoriano Gandiaga: *Hitz lauz idazten*
Sarrera eta edizioa: Iñaki Sarriugarte Irigoien

38. José Basterretxea Oskillaso: *Kurloiak. Mutiko kaletarrak Bizkaian*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita
39. Ebaristo Bustintza Kirikiño: *Bizkaia begietan (1913-1928)*
Testu-aukeraketa: Javier Perea
Sarrera eta edizioa: Miren Atutxa
40. Angel Ugarteburu Meabebasterretxea: *Milloitik mundura.*
Ume-denporako oihartzunak
Sarrera: Juan Luis Goikoetxea
41. Georges Simenon: *Aspaldiko Maigret*
Itzulpena: Eusebio Erkiaga
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
42. Felix Bilbao: *Ipuin-barreka*
Sarrerea: Adolfo Arejita
Edizioa: Nagore Etxebarria
43. Errose Bustintza Mañariko: *Ipuinik ipuin Mañarian gora*
Sarrerea: Jabier Kalzakorta
Edizioa: Nagore Etxebarria
44. Juan Bizente Gallastegi: *Tontorretik begira*
Abade baten oroipenak
Sarrera: Adolfo Arejita
45. Pablo Zamarripa: *Firi-firi. Ipuin eta nahaste*
Sarrerea: Adolfo Arejita
Edizioa: Nagore Etxebarria, Maribi Egia
46. Esteban Urkiaga *Lauaxeta: Ludi honen bestaldez. Olerkiak*
Sarrera eta edizioa: Antton Mari Aldekoa-Otalora Zamalloa; Adolfo Arejita Oñarte-etxebarría; Xabier Boveda Garai; Alberto Errazti Igartua; Sebastian Gartzia Trujillo
47. Domingo Agirre: *Garoa*
Sarrera: Sebastian Gartzia Trujillo
Edizioa: Miren Atutxa, Adolfo Arejita

48. Augustin Zubikarai: *Euri eta Txingor*
Gerrateko Oroimenak
Sarrera: Adolfo Arejita
Edizioa: Igone Etxebarria

SUTONDOAN SORTA

Azkenengo liburuen zerrenda

38. KURLOIAK
MUTIKO KALETARRAK BIZKAIAN
Jose Basterretxea. *Oskillaso*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita
39. BIZKAIA BEGIETAN (1913-1928)
Ebaristo Bustintza. *Kirikiño*
Testu aukeraketa: Javier Perea
Sarrera eta edizioa: Miren Atutxa
40. MILLOITIK MUNDURA
UME-DENPORAKO OIHARTZUNAK
Angel Ugarteburu
Sarrera: Juan Luis Goikoetxea
41. ASPALDIKO MAIGRET
Georges Simenon
Itzulpena: Eusebio Erkiaga
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
42. IPUIIN-BARREKA
Felix Bilbao
Sarrera: Adolfo Arejita
Edizioa: Nagore Etxebarria
43. IPUINIK IPUIIN MAÑARIAN GORA
Errose Bustintza. *Mañariko*
Sarrera: Jabier Kalzakorta
Edizioa: Nagore Etxebarria
44. TONTORRETIK BEGIRA
ABADE BATEN OROIPENAK
Juan Bizente Gallastegi
Sarrera: Adolfo Arejita
45. FIRI-FIRI. IPUIIN ETA NAHASTE
Pablo Zamarripa
Sarrera: Adolfo Arejita
Edizioa: Nagore Etxebarria
46. LUDI HONEN BESTALDEZ
OLERKIAK
Esteban Urkiaga *Lauaxeta*
47. GAROA
Domingo Agirre
Sarrera: Sebastian Gartzia Trujillo
Edizioa: Miren Atutxa
Adolfo Arejita
48. EURI ETA TXINGOR
GERRATEKO OROIMENAK
Augustin Zubikarai
Sarrera: Adolfo Arejita
Edizioa: Igone Etxebarria